

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

GURE KRISTAU ELKARTEAK BERRIZTATU

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA**

2005eko GARIZUMA-PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1. z.)

- Bihozberitzea eta berriztatzea (2. z.)
- Sakoneko berrikuntza (3. z.)
- Pastoral Idazkiaren jasotzaileak (4. z.)
- Idazkiaren egitura (5. z.)

I.- GURE ELKARTEEN EGOERA

1. Begirada analitikoa (6. z.)

- 1.1. Fededun motibatu eta konprometituak (6. z.)
- 1.2. Kristau praktikatzaileak (7. z.)
- 1.3. Noizean behingo praktikatzaileak (8. z.)
- 1.4. Elkarre-bizitzatik aldentuak (9. z.)

2. Hurbilketa orokorra (10. z.)

- 2.1. Zeinu itxaropentsuak (11. z.)
 - 2.1.1. *Elizan bertan* (11-12. zz.)
 - 2.1.2. *Erljio-mundu zabalean* (13-14. zz.)
- 2.2. Zeinu kezkarriak (15. z.)
 - 2.2.1. *Erljio-krisi orokorra* (15. z.)
 - a) Sinesteen krisia (16. z.)
 - b) Arau moralen krisia (17. z.)
 - c) Erljio-jardueren krisia (18. z.)
 - d) «Jainkoaren krisia?» (19. z.)
 - 2.2.2. *Barneko sekularizazio-prozesua* (20-21. zz.)
 - 2.2.3. *Eliz erakunde ahuldua* (22-23. zz.)

II.- GAUR EGUNGO EGOERAREN SUSTRAIAK

1. Aldaketa bereziki kulturala (24. z.)

2. Era askotako aldaketak (25. z.)

- 2.1. Tradizio-krisia (25. z.)

- 2.2. Erakundeen krisia (26. z.)
- 2.3. Indibidualismoa (27. z.)
- 2.4. Gure kulturaren joera nihilista (28. z.)
- 2.5. «Ekoiztu eta kontsumitu» (29. z.)

3. Kristau-elkartearen ahulezia eta desleialtasunak (30. z.)

- 3.1. Fede-esperientziaren utzikeria (30. z.)
- 3.2. Fedearen eduki nagusien lausotzea (31. z.)
- 3.3. Jarraipenaren krisia (32. z.)
- 3.4. Fede biziaren gainetik etikaren nagusitzea (33. z.)
- 3.5. Zatiketarako joera (34. z.)
- 3.6. Erantzun desegokiak eragin kulturalaren aurrean (35. z.)

III.- GURE ELIZ EGOERAREN IRAKURKETA SINESTEDUNA

A) IRAKURKETARAKO GILTZA BATZUK (36. z.)

- 1. Proba mingarria (36. z.)
- 2. Egundoko erronka (37. z.)
- 3. Lurreratuak, ez zapalduak (38. z.)
- 4. Erljioak bizirik dirau (39. z.)
- 5. Espirituak munduan jarduten du eta Eliza gidatzen (40. z.)
- 6. Bihozberitze-aldia (41. z.)

B) GURE GARAIRAKO ESPIRITU BIDEA (42. z.)

- 1. Konfiantzaren espiritu-bidea, ez baikortasunarena (42. z.)
- 2. Leialtasunaren espiritu-bidea, ez arrakastarena (43. z.)
- 3. Erantzukizunaren espiritu-bidea, ez erruduntasunarena (44. z.)
- 4. Itxaropenaren espiritu-bidea, ez nostalgiarena (45. z.)
- 5. Eroapenaren espiritu-bidea, ez presarena (46. z.)
- 6. Txikia estimatzearen espiritu-bidea, ez handia irrikatzearena (47. z.)
- 7. Sintoniaren espiritu-bidea, ez distantziarena (48. z.)
- 8. Sendakuntzaren espiritu-bidea, ez kondenarena (49. z.)

IV.- BENETAKO BERRIKUNTZAREN GAKOAK (50. z.)

1. Esperientziaz igurtzitako fedea (51. z.)

- 1.1. Beharrezkoa (51. z.)
- 1.2. Zein esperientzia (52. z.)
- 1.3. Hasi eta berriz hasi (53. z.)
- 1.4. Otoitz egiten ikasi (54. z.)

2. Jarraipenaz landutako fedea (55-56. zz.)

3. Elkarte bizitako fedea (57. z.)

- 3.1. Taldea ala elkartea? (57. z.)
- 3.2. Elkartea beharrezkoa da fedea bizitzeko (58. z.)
- 3.3. Itun Berriko elkartearen antzera (59. z.)
- 3.4. Elkarreak eta elkartea (60. z.)
- 3.5. Komunikazio handiagorantz eta hoberantz (61. z.)

4. Ebanjelizatzeraren behartutako fedea (62. z.)

- 4.1. Ebanjelizatze berria (62. z.)
- 4.2. Bultzada ebanjelizatzailearen arrazoiak (63. z.)
- 4.3. Gaurko solaskideak (64. z.)
- 4.4. Nola ebanjelizatu (65. z.)
- 4.5. Pobreak begien aurrean ditugula (66. z.)

V.- GURE AUKERAK ZEHAZTEKO OHARRAK (67. z.)

1. Pastoral estilo eraberritua (68. z.)

- 1.1. Espiritualagoa (68. z.)
- 1.2. Ebanjelizatzaileagoa (69. z.)
- 1.3. Elkartekoagoa (70. z.)
- 1.4. Ardurakideagoa (71. z.)
- 1.5. Pertsonalizatuagoa (72. z.)
- 1.6. Ebanjelizatzaileak zaindu (73. z.)

2. Eliz eginkizun handiak berriztatu (74. z.)

- 2.1. Jainkoaren Hitzaren zerbitzua (74. z.)
- 2.2. Ospakizuna (75. z.)
- 2.3. Karitate eta sozial ekintza (76. z.)

3. Pastoral egitura batzuk eraberritu (77. z.)

- 3.1. Parrokia ireki (78. z.)
- 3.2. Pastoral Barrutiak edo parrokiak gaindikoak (79. z.)
- 3.3. Talde pastoral edo ministeriala (80. z.)
- 3.4. Laikoen bazkunak eta mugimenduak bultzatu (81. z.)
- 3.5. Biziera erlijiosoaren karismak sustatu eta berriro txertatu (82. z.)

BUKAERA (83. z.)

SARRERA

1. Jesu Kristo eta haren Ebanjeliorako bihozberritzea ez da kristau-bizitzako gertaera puntual eta iragankorra, prozesu iraunkor eta beharrezkoa baizik. Itun Zaharreko hamaikatxo orrialdetan behin eta berriz dei egiten zaigu Jainkoarengana bihozberri gaitzen.¹ Jesusek mezu bera darabil jendaurreko bere ministerioa has-tean: «*Hurbil da Jainkoaren erreinua. Bihozberri zaitetze eta sinetsi Berri Ona*».² Jesusen dei sutua Ebanjelioetan sendotasun eta maiztasun handiz errepikatzen da Itun Berrian.³ Kristauki bizitzeak etengabe bihozberritzea eskatzen du. Axioma hau denentzat da baliagarria: gizon eta emakumeentzat, elkar-teentzat eta baita Jauna-ren elkarteko erakundeentzat ere.

Bada liturgi urteko aldi bat, Jainkoak dei are zehatzagoa eta premia-koagoa egiten diguna bihozberritzera: Garizuma, alegia. Aldi honetan, Jainkoak berak, Eli-zaren bitartez, oparoago eskaintzen dizkigu bere Hitzza, Adiskidetzearen sakramen-tuaren grazia, Jaunarenganako gure itzulera sendotzen duen Eukaristia. Garizuman Elizak dei berezia egiten digu gehiago eta hobeto otoitz egitera, Jainkoaren ahotsa-ren aurrean sentiberago izatera eta gure ondasunak behartsuen alde oparotasunez ematera, eta horretarako neurritasunez bizitzera dei egiten digu. Garizuma, beraz, bihozberritzeko «aldi sendoa» da.⁴

Bihozberritzea eta berriztatzea

2. Idazteunak era askotara izendatzen du gure kristau-bizitzako funtsezko ezau-garri hau.

Bihozberritzea Jainkoarengana itzultzea da,⁵ garbitzea,⁶ adiskidetzea,⁷ bizi-zako norabidea aldatzea.⁸ Adierazpen hauetako bakoitzak hobeto adierazten du kristau-bihozberritzearen alderdiren bat. Horietako batek jasotzen du zehatzen Pastoral Idazki honetan nabarmendu nahiko genukeen alderdia: Itun Berriko idaz-kietan, *bihozberritzeak berriztatzea esan nahi du*.

Hainbat pasartetan, Paulo apostoluak, Itun Berri osoarekin bat eginik, dei bizia egiten digu barrutik bihozberritzeko, «giza izaera zaharra» erantziz *eta* «Jain-

¹ Jr 3,19-25.

² Mk 1,15.

³ 2 Ko 5,20; Ap 2-3.

⁴ Ik. 2 Ko 6,2.

⁵ 1 P 2,25.

⁶ Ez 36,25 hur.

⁷ 2 Ko 5,18.

⁸ Mt 4,17.

koaren irudira jantziz, Jesusen egiaren arabera biziera zuzena eta santua eramateko».⁹

Beraz, bihozberritzea, Paulorentzat, gu gizon eta emakume berri bihurtzea da. Berak darabilen hiztegiaren arabera, berriztatzea ez da *beste* fededun batzuk eta beste elkarte batzuk sortzea, fededun hauek eta elkarte hauek «*bestelako*» bihurtzea baizik, hau da, fededun eta elkarte hauek Jainkoaganako irrika gehiagoz bustitzea, pobreenganako zaletasun gehiagoz ukitzea, beren jokamoldeak ebanjelioko balioez itxuratzea, fedearen testigu egiazkoago egitea.

Sakoneko berrikuntza

3. Paulok bihozberritzeaz duen ikuskera guztiz argitzailea eta gaurkotasunez betea da gure elizbarrutientzat, berrikuntza espirituala eta eraberritze pastoralak bultzatu nahi dituzten une honetan.

Hain zuzen ere, San Paulok eskatzen duen berrikuntzak ez du esan nahi, norberak edo elkarteak kristau-bizitza asmatu edota zaharberritu egin behar duenik, ezta ukitu berri bat eman behar dionik ere. Eliza dagoeneko asmatua dago, nahiz eta sormena, ausardia eta eroapena beharko diren Espirituaren lankide izateko bere berrikuntzan. Kontua ez da, atzera geratu diren garaietako ereduaren arabera Elizaren eraberritzeari ekitea, nahiz eta beharrezko izango den indarra galtzen joan diren balio ebanjelikoak berraurkitu eta aintzakotzat hartzea. Gaurko urradura eta zauriak beren horretan uzten dituen ukitu hutsak baino zerbait gehiago behar du Elizak; Jesu Kristo Jaun bakar bezala aitortzera eta giza elkartearen zerbitzura ebanjeliozko jarreraz jokatzera eramango duen berrikuntza sakonean konprometitu beharra dago.

Pastoral Idazkiaren jasotzaileak

4. Mezu hau idaztean, gure fede bera eta Elizaren aldeko maitasun eta ardura saiatu bera duen gure elkarteetako multzo bizia dugu gogoan, lehenengo eta behin. Horiek dira gure mezu honen lehenengo jasotzaileak. Argitasunen bat eskaini nahi genieke gandu aldi honetan, eta beren itxaropena indartu. Begi aurrean ditugu, baita ere, igandeko Eukaristia gurekin ospatzen duten ohiko eliztarrak. Hauei kristau-bizitza ebanjelikoagora, Elizan ardurakidetza ekintzaileagoa, eta gizartearentzat interpelatzaileagoa izatera dei egin nahi diegu. Gainera, fede ahuldua bada ere eta eliz elkartearekiko lotura noizean behinkakoa dituzten bataiatuei ere zuzentzen gaitzaizkie, benetako kristau-izatearen egia, edertasuna, ontasuna eta zoriona aurkitzen laguntzeko eta apurka-apurka beren fedeak galtzeak ekar liezaiekeen arriskuaz ohartarazteko.

Era berean, elkarrizketa eskaini nahi diegu, produktibitatean eta kontsumismoan murgilduta bizi diren sinesgabeek, askotan beren bizimodu horrek ez baititu betetzen, eta galdera egiten diote bere buruari, hori ote den bizitzan egin behar den guztia eta bizitzaz espero daitekeen guztia. Gugatik hil eta berpiztu zen Hari esker, hori baino askoz gehiago dela bizitza erakutsi nahi genieke. Ezin ditugu ahaztu, azkenik, «Jainkorik gabeko benetako erlijiotzat» hartzen dituzten auzi nobleetan sartuta dauden beste sinesgabeak, izan ere egia bilatzean, justiziaren aldeko konpro-

⁹ Ef 4,22-24.

misoan eta elkertasuna gauzatzean murgilduta bizi da. Estimaten dugu hauen zintotasuna eta eskuzabaltasuna, eta beren kezkarik onenen azpian dagoen «Jainko ezezaguna» erakutsi nahi diegu.

Idazkiaren egitura

5. Lehenengo kapituluak «nola gaude?» galderari erantzun nahi dio. Parrokiakoak diren eta parrokiakoak ez diren gure eliz elkarteak osatzen dituzten fededunei begiratu eta horien egoera *deskribatu* nahi du. Aldi berean, egoera horren analisia eta sintesia egitea da asmoa. Analisia egitean, fededunen era askotako izaera aurkeztuko du: federa eta elkartera sakon atxikita daudenengandik hasi eta erlijioarekiko axolagabekeria sartuta daudenenganaino. Sintesia egitean, gure elizbarrutietako elkarteetan orokorrean eragina duten ezaugarri, erronka, arazo eta gabeziak jasoko ditu. Zeinu adoregarri batzuk azaltzen diren arren, guztiz kezagarria den egoera aurkituko dugu.

Zergatik gauden gaur egoera horretan *azaldu* nahi du bigarren kapituluak. Argazia aterako diogu inguratzen gaituen giroari eta giro hori baloratuko, era indartsuan moldeatzen baititu fededunen eta fedegabeen pentsamoldea, sentsibilitatea, jarrerak eta jokaerak. Kanpoko arrazoi hauekin batera, Eliza gaurko egoerara eramán duten eliz barruko eragile batzuk ere jaso eta baloratuko ditugu.

Hirugarren kapituluak batez ere *interpretatu* egingo du. Gure elizek bizi duten «gauaren» irakurketa sinesteduna eratuko du. Aldi berean, bere itzal horien artean antzematen hasia den «egun berriaren zantzuak» nabarmenduko ditu. Eta gure fedearen egiturak berak eta gure garaiko abaguneak eskatzen duen espiritu-bidearen ezaugarri batzuk zirriborratuko ditu.

Gizartearen egoerak eta Elizaren beraren egoerak zera eskatzen digute: beharrezko eta *funtsezko aukera* batzuk geure egitea edo finkatzea, kristau-elkarteak eta beraren kideok krisialdietan gure nortasunari eutsi diezaiogun eta nortasun hori balora dezagun, Jesusen Berri Ona eskaini eta geure mundua gizatasunez jantzi dezagun. Aukera hauez jabetzea eta beraiek deskribatzea izango da laugarren kapituluaren muina.

Koherentziaz nork bere egindako oinarrizko aukeretatik dator hauen gauzatze partzial eta apala izango den *lehentasunezko ekintza* batzuen hautaketa. Ezin dugu dena egin. Funtsezkoan jarri behar dugu arreta eta hori egoki gauzatu. Lehentasun hauek jaso eta aurkeztu nahi dira azkeneko kapituluan.

I.– GURE ELKARTEEN EGOERA

1. Begirada analitiko

6. Eliz elkarteak berriztatzeko beharrezko da horien egoera eta sinestedun eta eliztar bezala horien kalitatea ezagutzea. Egoera hori ez da homogenea, era askotakoa baizik. Gure elizbarrutien oinarritzko azterketak fede- eta kristau-bizitzako maila desberdinak erakusten dizkigu. Laburki aurkeztuko ditugu.

1.1. *Fededun motibatu eta konprometituak*

Hauek dira gure elkarteetako multzorik garrantzitsu eta biziena. Adoretu egiten gaitu beren Jesu Kristorekiko atxikimendu biziak, kristau-elkartearen aldeko zerbitzuak eta elkarbanatzean erakusten duten eskuzabaltasunak. Erlijosentiberatasun bizia dute eta hau egunero edo maiz egin ohi duten otoitzean antzematen da. Heziketa zabalagoa bilatzen dute, beren kristau-bizitza familian, lanean, bizitzako probetan eta ondasunen erabileran benetan bizitzeko laguntza gisa. Herri-elkartean nahiz eliz elkartean zerbitzuzko konpromisoak hartzera bultzarazten dien benetako sustagarria da hauen fedea.

Ardura eta samina eragiten die biziki maite duten Elizaren ahuldade gero eta handiagoak. Beren etxea dute. Beren familiako kideengan sumatzen dute makaltasun hau eta nahigabea eragiten die. Epe laburrera, fedearen gainbeherak ez ote duen Eliza osperik gabeko hondakin bihurtuko galdetzen diote bere buruari. Eliza ebanjelikoagoa izatea nahiko lukete, ez hain klerikala, partehartzaileagoa. Dena dela, hor diraute, nekaezintasunez eta leialtasunez. Fedean eta otoitzean aurkitzen dituzte kontsolamendua eta sendotasuna.

Gaurko gizarte honetako hiritar gisa eta sentsibilitate horretaz kutsaturik, ez dute denek beti erraz bat egiten Elizaren doktrina eta moral formulazio batzuekin. Baina giza elkarteko eta kristau-elkarteko kide izatetik sortutako tentsio hau ondo berenganatzen dute. Leialtasunez eta askatasunez eratutako jarrera da beren ohiko aldartea.

Kristau-multzo hau asko hazi da azken bi hamarkadetan. Milaka asko dira; zabalagoa da eliz barneko egitekoetan konprometitzen direnen taldea, beren fedearen eraginez eta Jaunak bidaltzen dituela sentituz, gizartea gizatasunez betetzean konprometitzen direnak baino. Beharbada, lehenengo talde honen tentaziorik handiena, gizarteak hartu duen norabidearen aurrean eta kristau-elkarteak orokorrean erakusten duen makaltasun ebanjelikoaren aurrean etsipena azaltzea da. Ez dituzte beti azterketa argiak egiten. Sarritan, alderdi argitsuak identifikatu ordez, eliz eta gizarte gaitzak azpimarratzeko joera dute.

Altxorra dira Elizarentzat, kontsolamendu eta itxaropena beren artzaintzat.

1.2. *Kristau praktikatzaileak*

7. Leialtasunez eusten diote astero Eukaristia ospatzeari. Kopuru esanguratsu batek beste deialdi batzuei ere erantzuten die: Garizumako katekesia, Penitentziaren ospakizunak, erromesaldiak Santutegietara, Gurutze-bidea, parroketako Batzar Nagusiak... Diruz laguntzen diote elkarteari eliz eta gizarte-beharrak daudenean. Nahiko sentiberak dira afektiboki eta aktiboki Hirugarren Munduko miseriaren

aurrean. Dena dela, zerbitzu erlijioso batzuen jasotzaile sentitzen dira, ez hainbeste eliz elkarteko kide ekintzaile.

Multzo jendetsua da oraindik, baina murrizten doa etengabe. Hauen portzentajeak desberdinak dira gure elizbarrutietan, baina gero eta baxuagoak. Datu nabarmen eta kezkarri bat dago: gazteak eta 30 eta 50 urte bitarteko belaunaldia falta direla.

Asteko egitarauan igandeko Meza eginkizun naturaltzat daukaten belaunaldi-etaoak dira asko eta asko. Erlijio-praktika, hauentzat, jaso izan duten ondare baliotsua da. Biziki heldu diote tradizio horri eta gordetzen jarraitzeko asmo zintzoa dute, «beren munduaren alderdi bat delako» eta beren fedearen zeinu berezia. Beste batzuk leial irauten dute jarduera honetan, beren belaunaldiko askok, utzikeriagatik, etsipenagatik edo fede-hoztasunagatik, uko egin dion bitartean. Honek «zerbait esaten diela» sentitzen dute. Funtsezko jotzen dute kristau Batzar honetan leialtasunez parte hartzea; ez da, beraz, usadio hutsaren fruitua, bakoitzaren aukera baizik.

Kristau praktikatzaile hauek otoitz egiten dute, era xinplean eta ahozko ototza eginez bada ere, baina sarritan, batez ere larrialdietan. Beren espiritu-bidea sendoa bada ere, nahiko oinarrizkoa da. Urte luzetan Hitza eta predikua entzuteak irizpide eta jarrera zintzo eta kristauen ondarea utzi du hauengan. Dena dela, gaur egungo kultur giroaren eta bizimoldeen eragina nabarmentzen da askoren pentsamolde, sentsibilitate eta jokabidean. Elizaren arau moralekiko atxikimendu mental eta praktikoa ez da hain argia eta orokorra, batez ere sexu, familia eta gizarte-etikaren arloan. Kontraesan horiek, hala ere, ez dira hauentzat oztopo, Elizako kide direneko kontzientzia, uste onezko atxikimendua eta borondatea izateko. Zalantzarik gabe, «katoliko praktikatzailetzat» daukate beren burua.

Multzorik jendetsuena denez, erabakigarria da kristau-elkartearen irudi soziala sortzeko. Alde batetik, igandero Eukaristiarako biltzean, Elizaren aurpegirik ikusgai eta ohikoena osatzen dutela esan dezakegu. Kopuruak behera egingo balu, Elizaren ikusgaitasuna bera lausotu egingo litzateke. Beste alde batetik, praktikatzaile askoren kristau-kaskarkeriak Elizaren nortasunaren oinarri den testigantza ebanjelikoa ilundu egiten du nabarmen eta desitxuratu.

1.3. Noizean behingo praktikatzaileak

8. Bataiatuen arteko askok eta askok (egindako inkesten arabera heren batek gutxi gora-behera) alde batera uzten du Eukaristiako asteroko Batzarra. Beren jarduera erlijioso publikoa bataio, lehenengo jaunartze, ezkontza edo hiletetako une berezien ospakizun liturgikora murrizten da. Batzuegan, jatorrizko parrokiatik deserrotzeak, asteburuetak aisiak dakartzan eskakizunak, «ez joatearen normalizazio sozialak» eta beste eragile batzuek ekarri dute aldentez hau. Beste batzuegan, gazteagoengan, igandeko Mezaren ohitura ia ez da existitu beren bizitzako historian. Erlijio-gogogabetasun hau da talde honen ezaugarririk kezkarrienetakoa. Dena dela, ez dira kristau-elkartetik erabat aldentuta sentitzen. Are gehiago: «*gure gizartean Eliza instituzionala izatea, eta Eliza honek adierazten dituen balioak egotea nahi dute*».¹⁰ Inkestetan «katoliko ez praktikatzaile» bezala agertzen dira. Baina elkartearrekiko benetako lokarriak, orokorrean, ahulak dira. Ez dute aparteko loturarik Elizarekin; bizi duten inguruarekin neurri batean bat egiteko joera dute

¹⁰ M. KEHL, *Adónde va la Iglesia*, Sal Terrae (Santander 1997), 143. or.

eta eliz elkarteari eta eliz artzainei buruzko hauen irudia ez da oso positiboa. Hauen irizpide eta jokaera moralak ez dira larregi bereizten gizarte osoarenetatik. Beren espiritu-bidea, kasu askotan, nahiko pobrea da.

Balio handiko hiru ezaugarri daude, halere, «fededun itzalitako» hauengan. Beren fedeari buruz galdetzen zaienean, fededun direla erantzuten dute berehala. Bada hor «zerbait» baliotsua, nolabaiteko fedearekin eta kide izaten jarraitu nahi duten Elizarekin lotzen dituen, nahiz eta zatitua eta zehaztu gabea izan fede hori. Otoitza da bigarren ezaugarria. Azterketa soziologikoen arabera, portzentaje esanguratsu batek otoitz egiten du noizean behinka edo aldizka, eta batzuetan tinkotasunez. Beren seme-alaben sakramentuak direla-eta beren jarrera erlijiosoaren inguruko hausnarketa eskatzen zaienean, askorengan pizten den erlijio-kezka da hirugarren ezaugarria. Halere, hiru altxor hauek urperatze baten ondorengo hondakinak dirudite besterik baino gehiago. Soziologoek zera ikusten dute urtez urte: «katoliko ez praktikatzaile» hauek federik ezak jotakoen taldea osatzen dutela gero eta gehiago.

1.4. Elkarte-bizitzatik aldenduak

9. Bada bataiatuen beste talde bat fedearekin eta Elizarekin lokarri are mehea-goak dituen, edo ia loturarik ez duela esan daitekeena. Hauetako askok Jainkoarengan sinesten duela dio. Baina bere itxura ez da batere bizia. Eguzki-argi motelaren antzekoa da. Jainkoaren izena ez da hauentzat ez oso ezaguna ez eragilea. *Jainkoarengan* sinetsi baino gehiago, Jainkoa *badela* uste dute. Sineste honek ez du inolako eraginik beren eguneroko bizitzan. Jainkoari buruz batzuek duten irudia lausotua eta desitxuratua dago, ez du ia ezaugarri pertsonalik. «Zerbait egon behar du», hori da beren esaldi arrunta. Beste batzuk agnostizismotik hurbil daude: «uste dut existitzen dela, baina ez nago batere seguru». Beraientzat, Jesu Kristo norbait aparta da adimenari eta jokabide moralari dagokionez, baina ez daude oso konbentzitututa Jainkoaren Semea denik. Ebanjeliotik, zeinu humanista duten balio moralak bakarrik baloratzen dituzte. Kristau-mezuaren edukia mendez mende Jesusen oroitzenaren inguruan eratzen joan den hitz-joskeratzat daukate. Otoitzak ez du lekurik beren bizitzan, une oso kritiko eta larrietan ez bada.

Kristau eta katolikotzat daukate beren burua. Baina adierazpen hauek adiera soziologiko hutsa baino ez dira horientzat. Beren kultura-mailaren arabera era zehatzagoan edota zehaztugabeagoan jabetzen dira, kristautasuna eta Eliza sorleku eta arnasa inspiratzaile nagusitzat izan zituen mendebaldeko tradizio horretako kide direla. Moldeatu dituen kultur tradizio horretako kide izaten jarraitu nahi dute. Batez ere salbuespenezko egokieratan Elizara joaten direnean, tradizio horretako kide direla erakutsi nahi dute eta kidetasun horri eutsi. «Elizarik gabeko, Kristo Salbatzailerik eta Jainko Aitarik gabeko katolikoak» dira.¹¹

Hainbat bidetatik iritsi izan dira orain bizi duten egoerara. Elizara joateari uzteak fedearen testigu biziekiko harreman hurbilekorik gabe geratzea ekarri zien. Misteriotsua dena arrazoizkotzat onartzen ez duen arrazoia kontzeptu zorrotza, beren fede goiztiarraren eraikina barrutik husten joan da, oihan tropikalean termita handiek zuhaitzen mamia jaten duten bezala: enborra eta adarrak ia hutsik gertzen dira. Galdera sakonagorik eragiten ez dieten familiaren, lanbidearen eta gizarte-harremanen inguruko beren bizimoduak finkatu egiten ditu beren jarrera horretan.

¹¹ Ik. *Ef* 2,12.

2. Hurbilketa orokorra

10. Ezinbestekoa zen gure elizbarrutiak osatzen dituzten kristauen talde desberdinak identifikatzea eta deskribatzea, zehazki eta zuzen jokatzeko. Baina aurreko deskribapenaren bidez ezin ditugu behar adinako argitasunez antzeman Elizan eta Erljioaren esparru zabalean gertatzen ari diren jazoera garrantzitsu eta orokorrak. Beharrezkoa da horiez jabetzea, gure elkarteen benetako egoera ezagutzeko. Batzuk zeinu adoregarriak dira. Beste batzuk, ostera, guztiz kezkarriak. Batzuk zein besteak jaso egin behar ditugu okerreko bi ikuspegi saihesteko aldi berean: errealitatea bere gordintasun guztian ikusi nahi ez duen baikortasuna eta eliz ikuspegiaren datu ilunak baino erregistratzen ez dituen etsipena.

2.1. Zeinu itxaropentsuak

2.1.1. Elizan bertan

11. Gure elizetako bazter guztietan daude Espiritu Santuaren presentzia bizi eta ekintzailea ziurtatzen duten errealitate ebanjelikoak. Jainkoaren Hitza lehengo garaietan baino hobeto ezagutzen da eta gehiago estimatzen. Nahiz eta oraindik mezezi duen leku nagusia izan ez, benetan «*Elizaren euskarri eta kemen*»¹² bihurtzen ari da pausuz pausu. Gero eta ugariagoak dira Hitzaren irakurketa era pertsonalean eta elkartekoan egiteko sarbide-saioak. Fededun asko Jaunaren Hitza aurkitzen ari da pozez eta beraren eraginkortasun salbatzailea bizi du. Herri fededunari Hitza itzultzea da horien artzainen aspaldiko zeregina.

Antzerako zerbait gertatzen ari da teologiarekin ere. Aipagarria eta gorantz doana da gure Elizek eskainitako heziketa-zerbitzuetara hurbiltzen diren laikoek kopurua. Gure fedearen mamia hobeto ezagutu nahiak, zalantzak eta gaizki-ultertuak uxatzeko kezkek, kristau-bizitza koherenteagoa izateko borondateak eta «besteak hezi ahal izateko norik bere burua hobeto hezteko» ardurak sustatzen dituzte eliz zerbitzu horren bila dabiltzanak.

Egia da igandeko Eukaristiara joaten diren askorentzat aspergarria gertatzen zaiela eta errepikapen hutsa. Hala ere, aurrean dugun bidea luzea den arren, zantzarik gabe esan dezakegu ospakizunaren kalitatea hobetu egin dela leku askotan. Orokorrean oharpenak, abestiak, erritmoa, partehartzea, Hitza hots egitea, prestaketa bera, duinagoak eta zainduagoak dira.

Baztertu eta marjinatuenganako elkartasun afektibo eta eraginkorra gizatasunezko zeinu ukalezina da eta gure fedearen ezinbesteko giltzarria. Adierazle guztiek erakusten digutenez, puntu honetan kristauen «batez besteko tenperatura» gizarte osoarena baino altuagoa da. Gure elizbarrutietako Caritas taldeak biziak eta sortzailak dira, eta gizartean gehien estimatzen den Elizaren aurpegia erakusten dute. Eliz eta herri-mailan elkartasunezko ekimenetan konprometitutako kristauen kopurua nabarmena da. Kristau-elkarteak behartsuen alde erakusten duen diru-eskuzabaltasuna bere benetako sarreren zati garrantzitsua da. «Eskuak Elkaturik» taldeari eta Hirugarren Munduaren aldeko beste erakunde batzuei ematen zaien laguntza benetan oparoa da. Egia da pobreak oraindik ez daudela gure elkarteen erdian Jaunaren inguruan. Baina egia da, era berean, gero eta hurbilago daudela.

¹² VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Dei verbum*, 21. z.

12. Azken hogei urteetan, ugaltu egin da pastoral lankidetzarako egitekoetan esku hartzen duten laikoen kopurua. Gero eta irekiago daude beren heziketa eta benetako ardurakidetasuna eragiteko ateak. Arduraz ikusten dugu, hala ere, atzoko belaunaldien erreleboa gero eta zailagoa dela. Gizarte osoan nabaritzen da jendea ez dela konpromiso egonkorrak hartzearen aldekoa. Gero eta zailagoa da lagunak aurkitzea enpresa-batzordeko kide izateko, alderdi politiko bateko militante izateko, udalerako hautagai-zerrendan aurkezteko, eskola kontseiluko kide izateko, edota kirol talderen bateko zuzendaritza berriztatzeke. Eta, jakina, baita parrokiako eginkizun eta erantzukizunetan konprometitzeko pertsonak aurkitzea ere.

Gure Elizaren irudian «zuzendaritza azaltzen da, eta ez hainbeste partehartzea». Errealitatea aldatuz doa urratsez urrats. Gure parrokia gehienek badute erakunde kolegiaturen bat apaizaren inguruan: Pastoral Kontseilu edota Parroki Batzorderen bat. Erlijiosoen obra gehienek ere beren Kontseiluak dituzte. Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua finkatuta dagoen errealitatea da. Egia da geratzen direla oraindik agintekeriako jarduerak eta bakardadean hartutako erabaki arbitrarioak. Denbora beharko da, gure artean partehartzea eta ardurakidetasuna nagusi diren «kultura» sustraitu dadin.

Erakunde zibilen babesik eta inguruko giroaren «aldekotasunik» jasotzen ez duen Elizaren egoera berak apalago izaten eta hainbesteko harrotasunik gabe jokatzen laguntzen digu, eta informazioan eta komunikazioan gardenago izaten, isilka jokatu gabe.

Azkenik, borroka luzeek markatua daukaten lurraldea da gurea, terrorismoaren astindua jasan duena, giza eskubide indibidual eta kolektiboen bortxaketaren testigu dena, era askotako sentsibilitate politikoez zeharkatua dagoena, alderdi politikoen arteko elkarrizketak gutxi landu duena...; hori dela eta, gure lurralde honetan bakea ezartzea izan da eliz arduradunen eta kristau askoren etengabeko ardura eta nahia. Bake egonkor eta zuzenaren irrika bizia da eta guztiz hedatuta dago elkarrekatolikoan.

Gure garaiko kulturaren atmosferan jasaten dugun erlijio-aterperik ezak ahuldu egin du, zalantzarik gabe, askoren fedea. Gizateriaren historiaren izugarrikeriek mende honetan bertan (hala nola, holokausto nazia, «gulag» komunistak, Rwanda eta Sudaneko sarraskiak, HIESaren zabalkunde ikaragarria edota hondamendi naturalak), filosofo sinesgabeen liburu askok baino gogorrago astintzen dute gure fedea. Baina kasu askotan fede hori araztu egin da, eta aurrekoengandik hartua izatetik pertsonalagoa, araztuagoa eta landuagoa izatera igaro da.

2.1.2. Erlijio-mundu zabalean

13. Gizona eta emakumea, beren izaeragatik, «Jainkoaren nahia» dira. Jainkoa itsu-itsuan bilatzeko eta Jainkoarengan beren betetasuna aurkitzeko diseinatuak daude. Nahiz eta guztiz kontrakoak izan inguruabarrak gurari hau sor dadin, gizaikiaren Jainkoaganako norabideak azaldu egin behar du, argiago edo ilunago, baita Jainkoaz galdetzen ez duen, jabetzen ez den eta arduratzen ez den talde jendetsu horretan ere. Norabide honen aztarna batzuk jarrai ditzakegu, beraz.

Giza nahiaren azterketak berak eskaintzen digu aztarna horietako lehenengoa. Bere helburu eta egitasmoetan, mugagabe antsiaz hornitutako izaki mugatu bezala azaltzen dira garai eta leku guztietako gizona eta emakumea, baita jakin gabe ere.

Kristau-fedearen argira, pertsonak ahal duenaren eta nahi duenaren, bilatzen duenaren eta aurkitzen duenaren arteko koska hau ez da «gaizki eginda» egotearen seinale, ezta gutxiago ere; gizakiak Jainkoagana duen norabide hautsezina agertzen den hutsarte baizik. Jainkoa dago, beraz, giza nahi ororen zeru-mugan. Zerbait nahi dugunean edo norbait desiratzen dugunean, Jainkoa desiratzen dugu, jakin gabe ere.

Ez da harritzekoa, beraz, Jainkoaren irrika hori agertzea, gutxi asko, gure garaikide sinesgabe askorengan. Horietako askorengan, beren interes pertsonalak baino garrantzitsuagoak diren idealekiko atxikimendu eskuzabalaz bildua agertzen da. Hauengan «balio absolutu» batzuk badaudela erakusten dute gizarte zuzenagoaren aldeko borroka iraunkor eta baketsuak, lurreko azkenak direnen aldeko eskaintza jasankor eta iraunkorrak, edota osasuna, zientzia, emakumearen duintasuna eta planetaren bizigaitasuna sustatzeko bizitza osoa emateak. Balio horiek ez dute horientzat jainko-aurpegirik. Baina sakratuak dira. Begirada sinestedunetik, balore horien atzean Jainkoa dago.

Badira beste pertsonak Jainkoa «begirunez aparte» jarria izan den ingurumenean heziak izan direnak; horregatik, zailtasunak dituzte beren buruan eta bizitzan federa irekitzeko; Jainkoaren irrika gutxi asko nabarmena erakusten dute, Jainkoaren existentziaren nostalgia, Jainkoa existitu dadin nahia. Duela urte batzueztik, nabarmena da hainbat herrialdetan haurtzaroan kristau-proposamena ia jaso ez zuten gazte helduen eta nagusien kopurua, beren familian, lanbidean eta herribizitzan ondo integratuta daudenak eta bere buruari galdera egiten diotenak: «Hau al da guztia? Ez al dago ezer nire bizitzari eta heriotzari, gozatzeari eta sufrizeari, bizitzako borroka, garaipen eta porrotei zentzu orokorra emango dionik? Geure buruaren aurrean eta besteen aurrean bakarrik bizi ote gara? Ez ote gara Norbaiten aurrean bizi?». Ez da zentzugabekeria, hauen antzeko kezka eta galderak, bizitzako aldi edo une batzuetan bederen, gure herrikide askorengan badaudela pentsatzea.

14. «Mugimendu erlijioso berriak» deiturikoen gorakada sinestezina harrigarria izan da denontzat. Aurrerago aztertuko dugu gertakari hau. Esan dezagun orain «erlijio-senaren berpizte» honek, gabeziak, anbiguotasunak, kutsadurak eta distortsioak izan arren, ez duela Erlijioaren ustelkeria adierazten; alderantziz, giza bihotzaren erresistentzia eta egonezina adierazten duela dirudi, giro sozial eta kultural itogarriaren aurrean; izan ere, mundua bere osotasunean hartu, errespetatzeko ordeztu, eta beraren jatorriaz eta jomugaz galdera egiteko ordeztu, munduko errealitatea zatikatua azaldu eta menperatu nahi du gaurko kultur giroak. Mugimendu erlijioso berriek zera emango lukete agertzera: gizakia zabalik dagoela berez, gainditzen gaituen Zerbait edo Norbaitengana.

Badaude hiru giza esperientzia, erlijiosoa ez den gizona edo emakumea txundituta uzten dutenak eta gainditzen dituen Misterio horretara zabal dezaketanak. Lehenengoa, gure ahaleginaren fruitu huts edo besteen dohain huts ez den zerbait eskertu beharrean aurkitzen garenean agertzen da, eta esker on hori nori zuzendu ez dakigunean. Seme edo alaba bat izan duten guraso fedegabeek, ez al dute eskerak eman beharrik sentitzen, beren maitasunaren fruitua eta izadiaren lana izateaz gainera, batez ere Norbaiten oparia den seme/alaba horregatik? Bigarrena, erruaren esperientzia da: norberaren errua kontuan hartu ez, baizik eta isilarazi nahi duten ahalegin pertsonalak eta korrante kulturalak dauden arren, gure jokabideari lotuta agertzen da, itzala gorputzari lotuta dagoen bezala. Ez al du gizakiak bere

errua aitortu behar, Norbaitek barkatzen diola jakin behar, bere hutsegite eta guzti onartua dela sentitu behar eta galdutako bere duintasuna berreskura dezakeela jakin behar? Hirugarrena, senitarteko eta lagunaren heriotza da. Lan, aisi eta egitasmoez egindako gure bizitza arruntarekiko etendura da, laburra bada ere. Bizitzari beste jarrera batetik begiratzen zaio. Ahaztutako balio batzuk gehiago estimatzen laguntzen du, eta hain baliotsuak ez diren beste helburu batzuegatik hainbeste ez lehiatzen. Une egokia da galdera honi aurre egiteko: «Zentzuzkoa ote da bizitza, dena honela bukatzen bada?»¹³

Badira itzal handiko pertsona adituak «gaur egungo gizartea astintzen duen zentzu-krisi sakonaz» erabat arduratuta daudenak; Elizatik aldendutako munduan bizi dira eta beren ahotsa entzunarazten dute han-hemenka, giza bizitza «produzitzera, kontsumitzera eta dibertitzera» murriztearen aurka; hain zuzen ere, giza aurrerapenak «*sufriendua arintzea, lanaren gogortasuna gutxiagotzea, ezagupenaren aukera zabaltzea*» lortu dutenean egiten dute protesta hori. «*Munduari xarma kendu diogu zergati eta ondorioen, funtzio eta erabilgarritasunen makineria mekanikora bultzatuz, munduaren zentzuari aurre egin gabe eta gainditzen duen misterioaz jabetu gabe. Mendeetan zehar, misterio hori Jainkoaren izenarekin adierazi izan da. Aurkeztu beharra dago Jainkoaren auzia*».¹⁴

2.2. Zeinu kezagarriak

15. Aipatu berri ditugun adierazleak hor dauden arren, kristau-fedea ahulduz doa zorrozki Europako mendebalde osoan. Hona hemen behatzaileek aho batez aitortzen duten gertakizuna. Herrialde hauetan guztietan, salbuespenik gabe, beheraldi nabarmena gertatzen ari da. Erljio- eta eliz negu latza bizi dugu Europan. Azter ditzagun honen ezaugarri aipagarrienak:

2.2.1. Erljio-krisi orokorra

Sineskizunen, arau moralen, jardueren, sinboloen, balioen, sentimenduen multzoa da, aldi berean, erlijioa. Fedea da osagai hauen guztien arima. Hauek guztiak eta fedea bera, krisialdi larrian murgilduta daude gaur egun. Krisi hau sakonagoa da eliz elkartetik aldenduago dauden giza taldeetan. Baina badu eraginik elkar-teagandik hurbil dauden taldeetan ere, eta baita elkarte-barrukoetan ere.

a) Sinesteen krisia

16. Jakina, katolikoek kopuru esanguratsu batek bere egiten du oso-osorik Elizaren fedea. Baina gero eta ugariagoak dira hainbat edukitatik «askatzen» ari diren fededunak. Jarrera kritikoa eta errezeloa nabaritzen dira kristau Mezuaren ardatz diren alderdi askoren aurrean. Gero eta joera ohikoagoa dago «fedearen supermerkatuan» neure plater konbinatuaren osagaiak aukeratzeko. «Aurrekoengandik jasotako fedea», askorentzat, «fede subjektiboa» bihurtzen ari da. Batzuen iritziak, «zisma ezkutatua»¹⁵ da gertakari hau.

¹³ Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 10. z.

¹⁴ A. MUTIS eta J. RUIZ PORTELLA, «Contra la muerte del espíritu» Manifestua, *El Cultural*-en (2002ko ekainaren 19-25), 1-4. orr.

¹⁵ I. ZUBERO, *El reto de la evangelización: dificultad y oportunidades*. Bilbaoko Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluri hitzaldia (2004ko otsaila), 1. or.

b) Arau moralen krisia

17. Katolikoek talde nabarmen batek «bere horretan» onartzen du Elizaren mezu morala. Baina, arlo honetan, Elizak proposatzen duen doktrina moralarekiko aldentzea nabarmenki handiagoa da. Aldentze hori ez da arau moralak alde batera uzten dituen jokamolde praktikoaren desbideratze hutsa. Kristau askok, baita praktikatzaileek ere, erreparatu larriak dituzte sexu, familiarik buruzko moralaren eta giza bizitzako etikaren inguruko eliz irizpideen aurrean. Puntu hauetan, eliz doktrina behar adina kontuan hartu gabe egiten da jokabide praktikoa zuzentzen duen bereizketa morala. Hala ere, nabarmenki handiagoa da, gutxienez teoriarik, Elizaren doktrina sozialarekiko eta baita beraren mezu moralaren hari nagusiekiko atxikimendua.

c) Erlijio-jardueren krisia

18. Hona hemen krisiaren alderdirik agerikoena. Begibistakoa eta kuantifikagarria da igandeko Eukaristia utzi dutenen kasua. Ez da gure inguruko gertakizuna bakarrik. Ezagutzen ditugun galdeketa soziologikoen arabera, katolikoek erdiak «ez praktikatzailerik» aitortzen du bere burua. Igandeko praktika hamar puntu jaitsi da azken hamar urteetan zehar. Antzeko zerbait gertatzen da, aztertzaile guztiek aho batez baieztatzen dutenez, Europako mendebaldeko kristauko herrialde guztietan.

Gure eukaristi ospakizunetan ikusten ditugun eliztarren batez besteko adina, orokorrean, altua da. 15 eta 50 urte bitartean dauden partehartzea nahiko urria da.

Kristau-sarbideko bi sakramentuek eusten diote oraingoz gainbehera honi: Bataioak eta Lehenengo Eukaristiak. Portzentajeak oso altuak dira oraindik, nahiz eta leku batzuetan nabarmenki jaisten hasi, eta horiek eskatzekoan izaten diren arazoak ere erlijiosoak bakarrik izan ez, eta kasu askotan ezta arazoirik nagusiak ere. Sendotzaren sakramentuaren inguruko pastoral arreta esanguratsua den arren, sakramentu horretara iristen diren gazteen kopurua jaisten ari da nabarmenki, oraintsu goraldia izan bada ere. Ezkontzako sakramentua %60an mantentzen da. Penitentziaren sakramentua gero eta gutxiago egiten da bakarka. Penitentziaren elkarteko ospakizuna liturgi urteko aldi berezietan lotuta egiten da... Gaixoen bakarkako Oliadura nabarmenki jaitsi da, sakramentu honen elkarteko ospakizunak sendotu eta duintasun handiagoz egiten diren bitartean.

Lekuko gure Elizek, sakramentuak hartu aurretik, arduraz zintzo eta arrazoituz, prestaketa-saioak eskaintzen dituzte, sarritan sorgortuta dagoen fedea esnarazteko, saio horien arrakasta desberdina bada ere. Dena dela, lortu nahi duten helburuari begira, ez dira nahiko, eta artzain eta arduradun askoren etsipena eragiten dute.

Liturgiako partehartzea indargabetzen doan bitartean, gure artean indarrean diraute eta loratu ere egiten dira herri-debozio eta -erlijiotasunezko adierazpen batzuk. Katoliko praktikatzaileengan pizteaz gain, ez praktikatzaile askorengan ere pizten dira herri-debozio horiek, baita fede-axolagabekeriatik hurbil daudenengan ere. Bistakoa da, iraunkorra eta kontsolatzailea gure santutegien, batez ere Andre Mariaren santutegien erlijio-erakarpina. Ostiral Santuko «Gurutze-bideek» maila desberdinetako fededunak biltzen dituzte. Fede ahaztuxea duten fededun askok bere Elizarekin duen lotura baliotsua dira gertakari hauek, nahiz eta hori nahiko ez izan.

Kofradiak azaltzen ari direla dirudi berriz ere. Jabetzen gara beren motibazio anitzez, beren arriskuez, garbitzeko duten beharraz eta zailtasunaz. Dena dela, horietan, alferrik galdu nahi ez den zeinu erlijiosoko «zerbait» dagoela uste dugu. Elkarteko liturgi bizitzan parte hartzen ez duen fededun asko erakartzen dute. Era berean, aldaketa hain sakon eta bizkorra bizi dugun aldi honetan, helduleku sendoen beharra isla dezaketela pentsatzen dugu. Haietara hurbiltzen direnak, beren aurrekoengandik jasotako erlijiosotasun kolektiboko molde batzuetan «lur finkoaren» bila dabiltzala dirudi. Arreta eskaini behar zaie, eta jarraipena egin.

d) «Jainkoaren krisia?»

19. Elizaren fedetik gehien aldentutako esparruetan, erabateko axolagabekeria erlijiosoan murgildutako bataiatuak eta ez bataiatuak aurki ditzakegu. Egoera hori Vatikanoko II. Kontzilioak berak ere aurreikusitakoa zuen: «*Jendetza gero eta handiagoak urrunditu egiten dira benetan erlijiotik... Laguntalde gero eta ugariagoak ia erabat aldentzen dira Erljiotik. Iraganeko garaietan gertatzen zenaren alderantziz, jadanik ez da gauza bakana eta gutxi batzuen... erlijioa aintzakotzat ez hartzea*».¹⁶ «*Dirudienez, ez dute erlijio-kezkarik eta ez dute ikusten zer dela-eta arduratu behar duten Erljioaz*».¹⁷ Gazte eta nagusien artean, axolagabetasunak hedadura eta ezaugarri larriak izan ditu azken hamarkadan.

Axolagabeak ez dira ateoak: ateoak ukatu egiten du Jainkoa; haiek, ordea, ez dira azaltzen, ez Jainkoaren alde ez Jainkoaren aurka. Besterik gabe, arduragabetu egiten dira erabat erlijioaz. Ez zaie interesatzen. Eguneroko bizitzako egiteko, ardua, poztasun eta frustrazioetan sartuta daudelarik, ez dute fede-aukeraren atarira eramango lituzkeen galderarik egiten. Beraiek giza izatearen «azalean gelditzen dira». Inkesten arabera, gure gazteen %24ak bat egiten du ondorengo erantzun honekin: «*Nik paso egiten dut Jainkoaz; gaia ez zait interesatzen; niretzat, ez dago Jainkorik*».

Desberdinak dira fedearen trenetik jaisteko aukeratu duten geltoki honetara iristeko ibili dituzten bideak. Batzuk «isilean» joan izan dira, apurka-apurka bartzertu dute fedea, hausnartu gabe. Beste batzuek, gazteagoek, ia-ia ez dute tradizio sinestedunarekiko lotura estu samarrik izan. Beste batzuk, fedearen eta sinesgabetasunaren arteko barne-gatazkaren ostean, ondorio honetara heldu dira: fedeak ez duela bizitzako arazo garrantzitsu bat bera ere konpontzen, eta, are gehiago, oztopo dela mundu honetan naturaltasunez jokatzeko. Batzuek bat egin dute kristautasunari buruz duten ikuskerarekin; gauza arrotza, zaharkitua eta atzerakoia iruditzen zaie. Badaude horien artean batzuk, fededunen eta artzainen ganoragabekeriaren, leialtasunik ezaren edota eskandaluaren aurrean oso sentibera direnak.

«*Axolagabekeria ez da, beste garai batean uste genuen bezala, sinestedunaren eta ateoaren bitarteko egoera, Jainkoarengandik aldentzearen erarik larriena baizik... Berarentzat Jainkoa ez da jadanik arazo; ez da Hartaz gehiago arduratzen*».¹⁸

Axolagabekeriaren hedapena dela eta, teologo eta aztertzaile batzuek giza modalitate berriaren sorrera antzeman dute Europako zerumugan: «gizaki ez erlijio-

¹⁶ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 7. z.

¹⁷ *Ibid.*, 19. z.

¹⁸ J. MARTÍN VELASCO, *La misión evangelizadora hoy*, Idatz (Donostia 2002), 66. or.

soa», eta jasaten ari garen erlijio-krisiari «Jainkoaren krisia» (J.B. Metz) deitu diote. Dena dela, «*gaurko gizonezkoa eta emakumezkoa desberdinak dira, baina gizakiak dira*».¹⁹ Kontua ez da Igorleak ez duela deitzen edota hargailuak uhinez aldatu duela, komunikazioa etena dagoela baizik.

2.2.2. Barneko sekularizazio-prozesua

20. Aipaturiko krisiek neurri batean fededunei eta artzainei ere eragiten dien krisi sakonagoa adierazten eta islatzen dute: kristau-elkartea sekulartzen (mundutar egiten) ari da. Horixe adierazi zuen gure Gotzainen Batzarrak: «*Elizak gaur egun Espainian aurrez aurre duen auzi nagusia ez da gizartean edo inguruetako kulturaren agertzen, bere barnean baizik; etxeko arazoa da eta ez kanpokoak bakarrik*».²⁰ Elizak sekularra izan behar du, baina ez mundutarra. Sekular izatea, munduari bere mezua eta lankidetzaz gizatiartzailea eskaintzea da. Mundutarra izatea, gizartean indarrean dauden irizpide, jarrera eta jokamoldeetara ohitzea da, Ebanjelioko irizpideetatik desbideratuz. «*Eliza munduaren berdina egiten bada, ez du ezer hari esatekorik..., berak dakiena errepikatuko dio mekanikoki*».²¹

Neurri batean, hauxe gertatzen ari da gure Elizetan. Horixe gertatzen da, ongizatea espiritu-bidea baino beharrezkoago bihurtzen zaigunean, fedea familian ahalegin apalez transmititu beharreko balioa ez denean, Aste Santua «udaberriko oporraldi» bihurtzen zaigunean, sakramentuak batez ere famili ospakizun direnean, eta gure fedea eragin eskasa duenean gure bizitzako hautapen ekonomiko eta sozialetan.

Ez ditugu inolaz ere gutxietsi nahi gure elkartea. Ezagutzen eta estimatzen ditugu. Jende zintzoa da, borondate onekoa, ez sentipenik gabea Jainkoaren eta bere kontzientziaren aurrean. Ez ditugu erruduntzat hartu nahi, ezta etsipenera eraman nahi ere, beren ahultasuna batez ere beren geldotasunaren ondorio izango balitz bezala, eta ez inguruaren eragin indartsuaren ondorio. Badakigu zaila dela gizarte honetan nork bere jarrerari tinko eustea. Min ematen digute antzematen ditugun gabeziek, eta poztu egiten gaituzte bizi-seinaleek. Pozez adierazten dugu elkarte guztietan daudela kalitatezko kristauak, eta gehienetan aurkitzen dela multzoren bat bizia, espirituduna eta besteei eskainia. Badakigu utopikoa dela askotan jendetsuak eta heterogeneoak diren taldeei erabateko fintasun ebanjelikoa eskatzea. Baina zintzotasuna eta egia zor dizkiegu. Hori esatean, fededun eta artzain bezala ditugun gabezia pertsonalak aitortzen ditugu.

Kezkagarria da fedea eragin eskasa fededun askoren eguneroko bizitzan, baita praktikatzaileenean ere. Ez dirudi horiengan, fedea eraginez, «oso desberdinak» direnik bakarkako eta familiako bizitza, kontzientzia moralaren arabera jokamoldea, zerbitzurako prestasuna. Gutxiengo zabal eta miresgarri batek «jartzen du alde nabarmena». Baina, orokorrean, fedea eta bizitzaren arteko koherenziak askoz handiagoa izan beharko luke fededunen elkarte osoan.

Esan dugu era askotakoak direla kristau-bizitzako mailak katolikoek multzo handiaren barnean. Baina, ez al da egia apal samarrak direla, neurri handi batean,

¹⁹ Ik. K. RAHNER, «El hombre actual y la religión», *Escritos de Teología*-n, 6. t., Taurus (Madril 1969), 15-23. orr.

²⁰ ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA, «Plan Pastoral 2002-2005», *Ecclesia*-n, 3087. z., 195. orr.

²¹ E. SCHILLEBEECKX, *Dios, futuro del hombre*, Sígueme (Salamanca 1971), 89. orr.

Jainkoaren esperientzia, heziketa teologikoa, Elizarekiko lokarriak, kultuan eta eliz eta gizarte-arazoetarako sentitutako konpromisoa? Posible ote da sinesgabeek elkarre hauen aurpegian Berri Onaren berritasun askatzaile eta salbatzailea antzema-tea? Nolabaiteko gogogabetasun erlijiosoa ez da, neurri batean, fedetik aldenduta-koei bakarrik dagokien ondarea.

21. Belaunaldi gazteei fedea transmititzerakoan sumatzen dugun zailtasun handia da gure gabezia espiritual eta ebanjelizatzaileen zeinuetako bat. Gabezia horiei ego-tzi beharko genieke ezintasun honen erantzukizun nagusia. Guraso kristau askok sufritu egiten du eta eginahalak eta bi egiten ditu seme-alabei kristau-fedearen al-txorra dakiten eta ahal duten bezala transmititzeko. Gure haur eta gazteak ingura-tzen dituen kultura lurralde polarraren antzekoa da, federa esnarazteko eta fedean hazteko. Ezin ditugu, hala ere, ondorengo hiru oharrok esan gabe utzi. Lehenen-goak honako arriskua dakarkigu gogora: gaur, gure artean, benetakoa dela fede-transmisioaren katea eteteko arriskua. Kristau-memoriaren ahuldadea ekarriko lioke gizarteari. Bigarrenak zera ohartarazten digu: normalean, fede-sentiberatasuna duten haur eta gazteak familia kristau sendoetatik datozela. Zori-tzarrez, ezin dugu esan familia kristau sendo guztiek beren seme-alabak fedean hazten ikustearen zoriona dutenik. Ezta kristau eta ebanjelizatzaile diren ikastetxe guztiek ere. Ezta buru-belarri haur- eta gazte-pastoraltzan jarduten duten parrokia guztiek ere. Hirugarren oharrak hauxe diosku: guraso asko ez dela larregi ahalegin-tzen beren seme-alabak erlijiora esnarazten, eta ez dakitela ondo hori nola egin ere; hain zuzen, ezjakintasun erlijiosoaz, zalantzez, anbiguotasunez eta inkoherentziez inguratuta daude berberak.

Era berean, gure eliz elkarteen muinak ere indar-gabezia erakusten du, elkar-tearen kristau-bizitza aberastuko luketen eta gizarteari oxigenoa emango lioketen elkarre biziak sortzeko gaitasun txikia duelako. Asko dira elkarturik diharduten laiko-taldeak, Ekintza Katolikotik hasi eta eliz mugimendu berriak deituetara. Baina urria da horietako kideen kopurua katoliko praktikatzaile guztiekin aldera-tuz. Beren fedea seriotasunez hartzen duten taldeak dira, eta kontu handiz zaintzen dute beren kideena ere. Horietako bakoitzak kristau-bizitzaren funtsezko alderdiak nabarmentzen ditu: otoitza, beren kideen heziketa, kristau-elkartearen aldeko zer-bitzua edo gizartearekiko konpromisoa. Funtsezko beste kristau-balio batzuk gutxi-esteko arriskua dute. Ez dira, orokorrean, elkarren aurka dauden taldeak. Baina komenigarria litzateke sakabanaketa txikiagoa, komunikazio handiagoa eta, horie-tako batzuetan, sustraitze sendoagoa, hurbilagoa eta konfiantza gehiagokoa elizba-rrutiko elkartean.

Egia da, ez dira garai egokiak ez herri-militantziarako ezta eliz militantziarako ere. Baina kristau-elkartearen kalitate ebanjelikoa da beharrezko baratzera bere barnean talde biziak eta biziemaileak sor daitezen.

Antzeko kemena behar du elkarteak, bertan apaiz-ministeriorako, biziera sagaraturako edota misioetarako bokazioak sor daitezen. Gure gazteak inguratzen eta kutsatzen dituen gizarteko giroa oso nahasia dago, elkarte indartzeko beharrezkoak diren horrelako bokazioak erne ahal daitezen. Espiritu Santuak nahi duen lekuan eta nahi duen sasoiaren sortarazten dituen arren, kristau-bizitza sutsuaz aberastutako elkarteko lurra da bokazio horien berezko alorra. Ez ote du lur horrek ureztatu eta ongarritu beharrik, bokazio horiek ernarazteko?

2.2.3. *Eliz erakunde ahuldua*

22. Eliza katolikoa, bere kideei nortasun oso zehatza eskaintzen zien eta kohesio nabarmena erakusten zuen erakunde sendo bezala aitortua izan da mendeetan zehar. Iraganean baloratutako erakunde asko zartatzen ari den aldi honetan, krisi larria jasaten ari da Eliza ere erakunde bezala.

Alde batetik, puntu asko jaitsi da berak eta bere arduradunek gizartean zuten sinesgarritasun altua. Gizartearen zati esanguratsu batek zalantzan jartzen ditu eta eztabaidatu egiten Hierarkiak hartutako jarrera batzuk; inoiz kontrako jarrera nabaria ere sortzen dute, premiarik gabeko interferentziatzat hartzen direlako gizarte heldu batean, edota pribilegiozko egoerak defendatzearen interes korporatiboei erantzuten dien esku-hartzetzat jotzen direlako. Egia da Elizaren ahotsa errespetuz entzuten dela oinarri moral handiak aurkezten dituenean edo kontinente osoetako gerra, gose eta miseria bezalako egoeretara zuzentzen duenean. Egia da, baita ere, herritar askoren benetako estimua komunikabide askotan islatuz dena baino handiagoa dela. Baina ordu makurrak dira gaurkoak Elizaren sinesgarritasunarentzat. Azken urteetan, Hierarkiaren irudiak jaitsiera nabarmena izan du gizarte-balorapenaren eskalan.

Kristau-elkarteek beraiek eta beren artzainek gure giza elkarteetan zuten ospearen zati handi bat galdu egin dute. Haiek hots egiten duten Ebanjelioa ezagutzen duela uste du jendeak eta ez du berritasunik aurkitzen Ebanjelio horretan. Espainiako Gotzainen Batzarrak dioenez, Ebanjelioaren proposamena zailtasun gutxiagoz onartzen dute gaur ez bataiatuek, hau da, Ebanjelioa inondik inora ezagutzen ez dutenek, bataiatuek baino, hauek «jakintzat eta gainditutzat» jotzen dutelako.

23. Egia da, halere, gure gizarteko zati handi batek aurkitzen dituela Elizaren aurpegian ezaugarri atseginago batzuk: Caritasen egintzak, misiolarien testigantza, erlijioso-erlijiosen konpromisoa azkenekoen alde (e.b., HIESaz jotako biktimentzako etxeak). Osasungarriak eta gizarte-mailan emankorrak diren beste alderdi batzuk (e.b., kristau Eskola), ez dira behar adina aintzat hartzen.

Baina eliz erakundearen krisia ez da kanpokoa bakarrik. Krisi hori ez da gizarteak berari buruz ikusten duena bakarrik; hor daude eliz erakundearen eta kide askoren bizitzaren arteko barne-tentsioak ere. Bukatuak dirudite, oraingoz behintzat, garai bateko ikuspegiak: kristau-izatea, funtsean, Elizak aurkeztutako Jainkoaren mezu osoa uste osoz sinestea dela, alegia, edota jokaera moralerako bere arau guztiak leial nor bere egitea, kultuan maiztasunez parte hartzea eta bere egintza apostoliko eta sozialetan umilki parte hartzea, etab. Askoren zentzu kritikoak zailtasunak aurkitzen ditu proposatutako fedean. Beren autonomiaren balorazio altuak immunizatu egiten ditu arau moral batzuen aurrean. Igande eta jaiegunetako ospakizunari dagozkion aginduak borrokan daude legearen ikuspuntu zabalagoarekin eta asteburuetako aisiaren antolakuntzarekin. Behartsuen aldeko konpromisoak individualismoaren eta erosotasunaren eskakizunen, eta lanaldi zorrotzen kontra jotzen dute. Sinestearen eta kide izatearen arteko alde garbia nolabait ezabatua geratu den garaiotan, honako paradoxa honen aurrean aurkitzen gara: badirela Elizako kide ez direla aitortzen duten sinestedunak, eta Elizako kide direla dioten sinestegabeak.

Ebanjelioari eta apostolutzari buruz ahuldua dagoen Eliza gara gizarte indartsu baten erdian. Baina, «*iraganeko kristautasuna ez zen uste den bezain sendoa*

izan, eta gaurkoa ere ez da dirudien bezain ahula».²² Paulok, gainera, hauxe dakarkigu gogora: «ahul naizenean, orduan naiz indartsu», «(Jainkoaren) indarra (gure) makaltasunean gauzatzen delako».²³

²² J. DELUMEAU, *Le christianisme va-t-il mourir?*, Hachette (Paris 1977).

²³ 2 Ko 12,9-10.

II.– GAUR EGUNGO EGOERAREN SUSTRAIAK

24. Nola iritsi gara egoera honetara? Zeintzuk dira gaurko krisi honetara eraman gaituen eliz barruko eta kanpoko eragileak? Zein erantzukizun dugu, egitez edo ez egitez, kristau-elkarteak eta beraren artzainok?

1. Aldaketa bereziki kulturala

Deskribatutako egoera honek sinestedun sentibera eta motibatu askorengan eragiten duen berezko erantzuna, bakarkako eta elkarteko erruduntasun-sentimendua izaten da. Kristauen kaskartasuna, Elizako gizabanakoen eta taldeen eskandaluak, artzainen ikuskera laburra, berriztapen sakonetarako ausardiarik eza lirateke gaurko gure egoeraren arrazoirik nagusienak. Ohikeria bihurtu dugu Jaiuren mezuak eraldatzeko duen indar berria.

Ezin du inork ukatu, kristau-elkarteak eta beraren kideok (artzain eta fededun) geure erantzukizun-maila dugunik. Vatikanoko II. Kontzilioak indartsu esan zuen: «*Ateismoaren sorrera honetan beren parte ez hain txikia izan dezakete fededunek... beren bizitza erlijioso, moral eta sozialeko hutsegiteekin, Jainkoaren eta erlijioaren benetako aurpegia agertu baino gehiago ezkutatu egin dutela esan daitekeelako*».²⁴

Dena dela, Kontzilioak berak beste norabide batean jartzen gaitu, hau esatean: «*Oraingo zibilizazioak berak ere... lurreko gauzeekin nahasiegia dagoelako, zailago bihur dezake, maiz, Jainkoaganako bidea*» eta «*giza ondasun batzuei ez dagokien izaera absolutua ematen zaielako, egiaz jainko txikitat hartuz*».²⁵

Gaur hedatua dagoen ustearen arabera, kultura-arloko arrazioak izango lirateke fedearen oraingo egoeraren zergati nagusiak. Horrela ikusten du Frantziako Gotzainen Batzarrak: «*Elizak gaur egun jasaten duen krisia, neurri handi batean, honengatik da: mundu-mailan gertatzen diren aldaketa sozial eta kultural axaleko eta sakon batzuek eragina dutelako Elizan bertan eta bere kideen bizitzan*».²⁶ Gure gizarteko eragile guztiek nabarmen eragin izan dute Elizan. Elizaren egoera batez ere gure bekatuei egozten dien ikuskera moralista ez da, beraz, ez bidezkoa ezta erabat zuzena ere.

Bestalde, gure Eliza bizi den gizarte moderno eta boteretsu hau krisian dago, hain zuzen ere, gainera etorri zaizkion aldaketak sakonak eta azkar gertatuak direlako. Hau da, beharbada, historian gertatu izan den kultura-hausturarik sakonena eta azkarrena. Oso gaizki kontrolatzen du bere lorpen eta indarren eraginez bizi duen noraeza. Eskura dituen baliabideei dagokienez oso aberatsa den arren, erabat pobrea da bere helburuak finkatzekoan. Munduz eta gizartez aldatzen ari gara. Mundu bat desagertzen ari da eta beste bat sortzen, beraren eraikuntzarako aurrez ezarritako eredurik izan gabe. Eliza ondo txertatuta zegoen desagertzear dagoen munduan, eta oraindik noraezean dago sortzen ari den mundu berrian.

²⁴ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 19. z.

²⁵ *Ibid.*

²⁶ FRANTZIAKO GOTZAINEN BATZARRA, «Proponer la fe en la sociedad actual», *Ecclesia*-n, 2.835-36. zz., 125. or.

2. Era askotako aldaketak

25. Ez dugu gertatutako aldaketa kulturalen irudi sistematiko eta osoa eskaintzeko asmorik, ez baikara gai ere hori egiteko. Are gutxiago da gure asmoa gure garaiko kultura deabrukeriatzat hartzekoa; izan ere, onura asko eta handiak eskaintzen ditu ekonomia, osasun, heziketa edota moral arloan (nahiz eta, zoritxarrez, ez gizadi osoari). Gure asmoa apalagoa da. Gure fededun- eta eliz bizitza bereziki markatu izan duten eragile batzuk bakarrik aipatuko ditugu.

2.1. Tradizio-krisia

Soziologo batzuen arabera, gero eta gehiago eta nabarmenago tradizio-ostekoa den gizartean bizi gara. Ez dira tradizio batzuk bakarrik ahultzen direnak, hondakin bihurtuz edo desagertuz. Tradizio osoa da sustraitik zalantzan jarria dagoena. Begirada arretatsuaz ez ezik, arduraz eta nolabaiteko susmoz ere egindako tradizio guztien azterketa kritikoak «mugitu egin die lur-zorua», gure gizarteak oroipen historikoa galtzeraino eta «amnesiko» bihurtzeraino.

Tradizioa ezinbestekoa da iraganari lotu gakizkion eta etorkizunera begira dezagun. Koherentzia ematen dio norberaren bizitzari eta bizitza sozialari. Elkarrekin bizi izandakoa izanik, lagungarri gertatzen da elkarte sortzeko. Moral-iturri da, besteekiko betekizun batzuk jartzen dizkigulako. Elkarteko kideen arteko komunikazioa ahalbideratzen du, elkarrekin bizi beharreko sinestean, balioen eta praktiken fondo bateratua eskaintzen dielako.

Benetan, era desberdineko tradizioak daude. Batzuk besteak baino onuragarriagoak dira. Tradizio oso zorrotzak erraz muga dezake askatasun pertsonala, eta moteldu egin ditzake sormena eta aurrerapena. Esklerotiko bihur daiteke eta gerriko ortopedikoa izan kideentzat. Hori gertatzen denean, tradizioarekiko atxikimendua tradizionalismo bihurtzen da. Horregatik, eguneratu egin behar dira tradizioak. Baina, printzipioz, euskarri mesedegarriak dira gizadiarentzat.

Ez da harrizkekoa tradizioaren krisiak Elizaren bizitzaren muinean bertan eragina izatea. «Gure garaikidetakoa askok Ebanjelioaren mezu fresko eta berritzailea izoztuko zukeen zaharkitutako erakunde bezala ikusten du Eliza, eta bere iraganari lotua dagoena. Ikuspegi hau Elizako bertako kideengan ere azaltzen da. Sines-tedun askoren bizitzan ikusten den beste joera hau da: Elizak transmititzen duen tradizioaren edukiarekiko errezelozko jarrera eta berritasuna handiestekoa.

Eliza, Jaunaren Heriotza eta Piztueraren Gertaera salbatzailearen oroipena da, bizirik dagoen oroipena. Egintzez erakutsi beharko dugu, atzera begiratzen dugunean ez dugula iraganari nostalgiaz begiratzeko egiten, eskertzeko baizik, eta bertatik Jainkoak nahi duen etorkizuna eraikitzen lagunduko digun indarra ateratzeko: askea, solidarioa, zorionekoa eta Jainkoagana zabalik egongo den gizadia eraikitzeko.

2.2. Erakundeen krisia

26. Erakundeek ematen diote tradizioari bizi arnasa eta iraupena; erakundeek dute transmititzen eta gaurkotzen tradizioa. Ondorioz, erakundeek jasaten duten krisiaren antzekoa jasaten dute. Hainbeste aldaketa sakon nozitu izan dituen famili erakundea da adibiderik gaurkoen eta ezagunenetakoa. Eskola-erakundea ere krisiaz zeharkatuta dago: zalantzan jartzen dira, bai hezitzaileen aginte-itzala, bai ikas-

leen heziketan duten egitekoa. Ikastetxe askotan hainbeste aldiz gertatzen diren indiziplina kasuei begiratzea baino ez dugu. Sindikatu-erakundea bera nabarmenki ahuldua dago. Afiliatuen portzentajeak ez du lanean daudenen %30a gainditzen. Erakunde politikoaren (gobernu, alderdi politiko, eta abarren) balorazioari buruzko iritzi-ikerketek sailkapeneko posturik baxuenetan kokatzen dituzte. Haiekiko atxikimendua behin-behinekoa da; haiengan jarritako konfiantza ahula da.

Luze eta zabal azaldu dugu I. kapituluan eliz erakundeak ere biziki jasaten duela orokorra den izen ona galtzearen arazo hori. Ikuspegi zabalagoan kokatzen dugu orain arazoa eta gertakari honek Elizaren osasun espiritualean eta pastorealean duen eragina azpimarratzen dugu. Eliz erakundea, adituen iritziaren arabera, kristau-sistema osoaren balorerik hondatuena da. Ondorioz, Elizak fedearen transmisioan eta Ebanjeliotik eratorritako jarraibide etikoen formulazioan duen bitartekari-lana auzitan jarria dago serioski gaur egun.

2.3. Indibidualismoa

27. Norbanakoaren balorazioa da garai modernoetako konkistarik garrantzitsuenetarikoa. Gizakia ez da zenbaki hutsa, edota famili nahiz gizarte-multzoko pieza hutsa. Badu eskubidea bere berezitasun errepikaezina eta bere egitasmoa izateko. Gaur pertsonen muin-muinean azaltzen den konbentzimendu honek gizon eta emakume askoren askatasuna eta osokuntza ekarri ditu.

Norbanakoaren balorazioa beste eragile garrantzitsu batzuek konpentsatzen eta orekatzen ez dutenean, indibidualismoa sortzen da. Gauzak muturrera eramanda, indibidualistarentzat talde-harremanek «balio dute» eta «baliagarriak dira» baldin eta, balantzea egitean, atseginak badira kideentzat. Indibidualistak ez dio bere burua benetan ezeri ez inori eskaintzen. Ez du inor eskuzabaltasunez maitatzen. Atsegin ematen dioten edota bere autoestimua sendotzen duten neurrian maitatzen ditu besteak.

Banakotasunaren kultura, indibidualismoan ereriko ez bada, «lokarriaren kultura» aberastu beharko du. Pertsona izatea, aske izatea eta lotua egotea da aldi berean. «*Giza taldeak ez dira norbanakoaren independentzian bakarrik oinarritzen, elkarrenganako menpekotasunean baizik. Honek ziurtatzen du benetako askatasunaren balioa eta zentzua*».²⁷

Gaur egungo kulturaren nagusi den joerak indibidualismorantz bultzatzen du, indarrez baieztatzen duelako «*norbanakoaren independentzia tradizioaren eta kolektibitatearen gainetik*».²⁸ «Nor bere buruarekin ondo egotea» bihurtu da, dirudienez, askoren bizitzako helbururik gorenena.

Indibidualismoaren lainoak pertsonak biltzen eta kutsatzen dituen heinean, orduan eta «kontrakulturalago» eta arrotzago egiten da Jainkoarekin bat eginda, elkarteari atxikita, fededun eta solidario izateko barrutik bideratuta, maitatzera bultzatuta egotearen kontzientzia bizia. «*Maitatzen ez duenak ez du Jainkoa eza-gutzen*».²⁹ Indibidualismoak batez ere norbanakoaren ongizate psikologikoa lortu nahi duten erlijiotasun-molde batzuk eragin ditzake, asko jota. «Mugimendu erlijio-

²⁷ A. MORATALLA, «Responsabilidad ética en política familiar», *Razón y Fe*-n (1995).

²⁸ GIDDENS (I. ZUBERO-k aipatua 15. oharrean aipatutako hitzaldian).

²⁹ *Jn* 4,8.

oso berri» batzuek behar honi erantzuten diotela dirudi. Ez da, beraz, harrigarria, jende askoren gogorik eza Elizak proposatutako doktrina eta kristau-bizitza onartzeko.

2.4. *Gure kulturaren joera nihilista*

28. Kontraesan bat dela pentsa daiteke, «asetasunaren kulturean» aldi berean tentazio nihilistak indarra hartzea. Aditu argi askoren ustez, gure garaiko konstanteetako bat da hori.

«Gizakiak ez du inoiz orain arte hainbeste jakin bere jatorriari buruz; baina ez du inoiz hain gutxi jakin bere jomugari buruz». Filosofo handi baten esaldi honek zuzen islatzen du gure garaiko gabezia bat. Gero eta hobeto ezagutzen dugu nola funtzionatzen duten gauzek eta munduak; baina, Nietzschek berak aitortuko duenez, «*helburua falta da; "zertarako" galderaren erantzuna falta da*». Nihilistarentzat gu garen eta ezagutzen dugun errealitateak ez du baliorik, ez duelako zentzurik: hori da, hain zuzen, nihilismoa.

Egoera hau ez da, besterik gabe, etsipenean erori diren pentsalari batzuen gogo-aldartea. Uste baino eragin handiagoa du guregan. «Beraz, zertarako ahalegindu, zertarako lan egin, zertarako zintzo eta solidario izan, zertarako bizi?» esamoldea etengabe bueltaka darabilgunean, nola edo hala, nihilismoak tentatzen gaitu. Fededunaren bihotzean galdera hauek behin eta berriz errepikatzen direnean: «*Zer irtenbide geratzen da, bakardadean, Jainkorik gabe eta moralik gabe bizitzen ikastea besterik? Berdin dio denak; ez du ezerk balio*». ³⁰

Joera nihilista «bizitza erdiko krisia» deiturikoan nabarmentzen da bereziki, gizon-emakumeek, une horretara iritsirik, beren iraganari begira jartzen direnean eta, bizi-arnasa ahuldu baten ikuspegitik, bere lorpen eskasak, desengainuak eta nekeak ikusten dituztenean, eta beren etorkizuna galderez eta hodei beltzez beteazaltzen zaienean. Ez da eraginkortasun- edota ezintasun-krisi hutsa. Zentzuari buruzko krisia da. Etsipenez betetako eta etsipenera eramaten duen galdera sortzen da: «Ba ote du zentzurik eginahalak egiteak? Merezi ote du pertsona eta egitasmoez liluratzek? Ez ote da zentzugabekeria eguneroko zereginetan bizitza ematea? Ez ote da errealitatearen printzipioa onartzeko gauza ez den boluntarismo itsua, antzua eta nekagarria?»

Gaurko kulturak gogortu eta luzatu egiten du, garaikide askorengan kroniko bihurtzen den egoera iragankor hau. Beren egonezina ez da J. Monoden erantzun zorrotz, baina gezurtiaz, isilduta geratzen: «*Zentzuari buruzko galderak ez du zentzurik*». Bizitzarako motibazioa ematen dieten zatikako zentzuak bilatzen dituzte. Familia da nobleenetakoa. Emakumezko askok, esate baterako, haur bat izan nahi duela aitortzen du, bere burua norbaiti eskaini ahal izateko eta bizitzako zentzurik eza saihesteko. «Zertarako» edo «norentzat» bat eskaintzen duten zentzuzko instantziak dira pobreen aldeko eta pobretasunaren aurkako borrokaren ideal soziala, edota emakumearen sustapenarena edo planetako ekologiarena. Badira beste arrazoi batzuk hain nobleak ez direnak: dirua pilatzea, atsegina itsu-itsu bilatzea, aginte-gosea... Zatikako zentzu hauetan murgilduta bizi da jende asko.

Hauetariko bakar batek ere ez dio esanahirik aurkitzen heriotzaren saihestezko gertaerari. Heriotza bera barnean hartzen duen bizitzako zentzurik gabe,

³⁰ Ik. H. KÜNG, *¿Existe Dios?*, Cristiandad (Madril 1979), 532. or.

kasurik onenean «garaipenez garaipen ibil gaitzke, azken porrota iristen deneraino». Asko jabetzen dira guztiari zentzua emango dion zerbaiten beharraz, eta horren bila dabilta. Batzuek kristau-fedean aurkitzen dute hori; honek zera dakarkigu gogora, gure bizitza osoa Jainko Aitaren begiradapean dagoela, eta hil beharra baino sendoagoa denez, Jainkoaren Presentzian bizitza osoa, betikoa, komunitarioa, zorionekoa ziurtatzen digun maitasunaz inguratuta. Baina beste askok, mesfidati tradizioarekin eta fidagaitz «ukitu eta pisatu» ezin den guztiaren aurrean, ez du lortzen, kultura honetan, bere bizitzaren erabateko Zentzua Jainkoarengan aurkitzerik. Eta bidaiaria lainopean galtzen denean, lehenago edo beranduago, zama bihurtzen da dena ibiltzen jarraitzeko. «*Bizitzeko sortua izan da gizakia. Eta hiltzeko. Eta BIZITZEKO. Horixe da-eta kristau-bizitzaren erritmoa: bizi-hil-BIZI. Hirugarren pieza kenduz gero, gainbehera ikaragarria da bizitza*».³¹

2.5. «Ekoiztu eta kontsumitu»

29. Bere zentzua kenduz gero, giza bizitzak bide bakarra du: ordezeko sasijainkoak bilatzea eta hauei balio absolutua ematea. Gure garaiko sasijainkorik arruntena «ekoiztu-kontsumitu» binomioa dela dirudi. Ekoizteko ahalegin itsua eta kontsumitzeko irrika zoroa dira, benetan, giza bizitzaren zentzurik ezari ematen zaizkion bi irtenbide desberdin eta faltsuak.

- «Ekoiztu»: Bizitza betetzeko era nekagarria bihurtu da askorentzat ekoizpena. Lanari eskainitako orduak eta lanak eskatzen duen arretak murriztu egiten dute sarritan ezkonduen eta familiaren kalitatezko bizikidetzarako ezinbestekoa den denbora. Murriztu egiten dute adiskidetasunezko harremanak eta zaletasun pertsonalak lantzeko aukera. Geure heziketa pertsonala osatzeko gogoak gutxitzen dute. Konpromiso humanitarioei eman beharreko denbora mugatzen.

Amarru batek sustatzen du produktibitateari eskainitako ahalegin hori: ekonomiak. «Dirua irabaztea» egin beharreko zerbait da, arrakasta sozialaren zeinua. Dirua bilatzen dugu, erosotasun-maila batzuk eta bizimodu arranditsua ziurtatzeko. Dirua, horrela, Jainkoaren ordezeko bihurtzen da. Gauzarik garrantzitsuena balitz bezala bilatzen dugunean, «metalizatu» egiten du gure bihotza eta sor eta gor bihurtu Jainkoaren ahotsa eta behartsuen oihua entzuteko. Charles Chaplinek ahaztezineko filme batean hain maisuki jasotako «urrearen sukarrak» hondatu egiten du gure osasun espirituala. Idoloek, azkenean, «erre egiten dute» beti.

Ekonomi alorrean indar handia duten interesek lan asko egin «beharra» eragiten digute, asko irabazi ahal izateko. Gaur indarrean dagoen ekonomi sistemak langile saiatuak behar ditu, eta kontsumitzaile onak.

- «Kontsumitu»: Gure kulturaren joera nagusia ez dirudi ekoiztu eta aurreztu denik, ekoiztu eta kontsumitu baizik. Ez da harritzekoa horrela izatea. Gure bizitzaren zentzua lausotzen denean, bizitza horrek gozamenuneak etengabe bilatzera eragiten du. Iraganeko oroipena mehea bada eta geroko itxaropena zalantzakoa, gauza bat geratzen zaigu bakarrik: irrikaz gozatzea orainaz. Kontsumismoaren atarian gaude. Kontsumista izatea, nork bere nahi eta beharrak ardura pertsonalaren oinarritzat hartzea da

³¹ L. ALONSO SCHÖKEL, *Esperanza. Meditaciones bíblicas para la Tercera Edad*, Sal Terreae (Santander 2000).

eta bizitza horiek asetzera bideratzea. Hauek dira kontsumismoaren ezau-garririk nabarmenenak: benetako menpekotasuna sortzen du gizakiengan batere beharrezkoak ez diren gauza askori dagokienez. Beraz «beharrezkoak ez diren beharrak» sortzen ditu. Jantziak, autoak, kirol arropak, musika aparailuak erosteko irrikaz bizi da kontsumista, eta telebista-saioak, edariak, janariak, ikuskizunak, bidaiak kontsumitzeko irrikaz. Kontsumistarentzat, «*mundua sagar handi bat da, botila handi bat, bular handi bat. Gu bularreko umeak gara, beti ikusminez, beti desilusioz jota gaudenak*» (E. Fromm).

Ia ezinezkoa da kontsumistaren bihotzean Jainkoaganako irrikak «lekurik izatea», edota Jesusi zinez eta gogoz jarraitzeak, bere elkarteari tinko atxikitzeak, txiroenganako sentiberatasunak «lekurik izatea». Zaila da, mila era engainagarritz kontsumismorako deia egiten digun giroan benetako kristau-bizitza eramatea. Gure elkarreetako kide asko eta asko ez gaude egaizko tentaldi honetatik libre.

3. Kristau-elkarrearen ahulezia eta desleialtasunak

30. Ez litzateke zuzena izango, ezta ebanjelikoa ere, Elizak gaur egun bizi duen egoeraren erantzukizun guztia aurreko atalean jasotako kultur eragileei egozte. Profetek Israeli gogorarazten zioten bezala, bere egoera negargarriaren arrazoia ez zela inguruko inperioen boterea bakarrik, baita bere bekatuak ere,³² Elizak ere apaltasuna eta zintzotasuna erakutsi behar du bere bekatuak aitortzeko. Vatikanoko II. Kontzilioak³³ eta Joan Paulo II.a Aita santuak testigantza eredugarri eta adoregarriak eskaini dizkigute. Eliz barruko eragile batzuk zehaztu nahi ditugu, orain aurkitzen garen egoeraren zergatia azaltzeko lagungarri izan ditzagun.

3.1. Fede-esperientziaren utzikeria

Hainbeste doktrinatan murgilduta eta hainbeste egitekotan sartuta egonik, larregi ahaztu dugu benetan funtsezkoa dena: fede-esperientzia zaintzea. Gure garai gozakaitez hauek fede bereziki bizia eskatzen digute, buruaz eta borondateaz gain, bihotza eta, ondorioz, jokaera ere konprometituko duen fede bizia. Esperientzia bizkortzen ez bada indargabetu egiten da fedea, eta ideologia edo boluntarismo nekagarriaren antzeko zerbait bihurtzen.

2002ko Garizumako Idazkian fede-esperientziaren ulermenera hurbildu nahi izan genuen, fede-esperientziaren ezaugarri eta moldeetara, zailtzen duten eragileetara, eskatzen dituen baldintzetara. Idazki honetan zehar gogoratuko dugu oraindik ere Idazki hura. Beharbada hunkibera izatearen errezeloagatik edota minaren eta injustiziaren aurrean bihozgogorra den espiritu-bidean erori nahi ezagatik, alde batera utzi izan dugu erlijio-esperientzia arretaz lantzea.

3.2. Fedearen eduki nagusien lausotzea

31. Gogoeta teologikoaren bidez egiten den kristautasunari buruzko azalpen doktrinala oso zabala da. Hostoz beteta dagoen zuhaitzak funtsezko bere adarrak ezkutatzen dituen bezala, hainbeste doktrinak fedearen funtsezko sinesteak ezkuta da-kizkiguke. Sineste sendo horiek, gainera, fededun askorengan zartatu egin daitezke,

³² *Is* 1,2-9.

³³ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Unitatis redintegratio*, 1. z. eta *Ad gentes*, 29. z.

geure ardura gai periferikoetan jartzen dugunean edota horien ezagutza teologikoa zabaldu nahian gabiltzanean. Jainko Aita, Jesu Kristo eta Pazko Misterioa, Elizaren eraikitzaile den Espiritua, maitasuna eta errukia balio nagusi bezala, Mariarekin batera Jesusi jarraitzea, eliz elkarte, itxaropena, fedearen testigantza eta pobreen alde jardutea, horiek dira gure fedearen funtsezko ardatza. Hauxe galdetu behar diogu geure buruari: ea gure lehentasuna egia horiek argitzea eta finkatzea izan den, ala gure mezuak eta egitarauak bigarren mailako eduki eta ekintzekin bete ditugun, nahiz eta baliotsuak izan.

Kristauok, tentazio horren ukitua dugularik, gaizki konpondutako gatazka bizi dugu, beharbada formulatu gabe: «gaurkotasun kulturalaren» eta «eliz leialtasunaren» arteko gatazka. Eliza berriztatzea, besterik gabe, «egunean jartzea» dela pentsatzeko joera dugu, hau da, inguruko kulturarekin sintonian jartzea. Elkarrekin nahasteko arriskua dugu «erosotzea» eta «egokitzea». Erosotzea kulturarekin bat egitea da norberaren tasuna ez galtzeaz arduratu gabe. Egokitzea nortasun horri eutsiz gaurkotzea da. Gizakundearen misterioaren eraginez, Elizak inguruko kulturara egokitu behar du, baina bereizketa on bat egin ostean; Espirituaren laguntzaz, kontu handiz, gogoeta luzez eta benetako pazientziaz bereizi egin behar du, zer den Ebanjelioarekin eta gizakiaren duintasunarekin bat datorrena, eta zer gizatasunarekin zerikusirik ez duena eta Ebanjelioaren kontrakoa dena. Eta kultura guztiek beren barruan era bateko eta besteko ezaugarriak dituztenez, Elizak garaian garaiko kulturarekin aldi berean sintonian eta kontraesanean bizi beharko du.³⁴

3.3. Jarraipenaren krisia

32. «*Atseginaren kultura*» (Galbraith) kokatuak gaudelarik, gutariko askok zailtasun bereziak sumatzen ditugu Jesusen jarraipenean aurrera egiteko. Sentitzen ditugu, agian, Jesusenganako nolabaiteko erakarpena eta estimua, bere maila moralaren eta bere mezuaren miresmena, baina sentimendu horiek ez dira mamitzen aurrerago agertzeraz emango ditugun jarraipenaren jarrerarik sakonenetan. Egia da beti izango garela «jarraitzaile ikasleak». Horregatik, ikasle izateko erabakia hartu behar dugu. Ez gara asko hori egitera ausartzen garen kristauok. Jesusi jarraitzeak berekin dituen eskakizunek beti gainezka egiten digute; oso-osorik bete ezin daitekeen ideal baten aurrean jartzen gaituzte. Baina aurrera egin dezakegu eta egin behar dugu, beti ere Espirituaren laguntzarekin. Ez dugu ahaztu behar, «*ezinezkoa egiten ahaleginduz bakarrik lortzen dela ahalezkoa den guztia*» (Unamuno).

Ondo ezagutzen ditugu jendetza handiek izan ohi dituzten zailtasunak hone-lako bideetan aurrera egiteko. Baina benetako jarraitzaileen kopurua nabarmenki handiagoa balitz, gure elkarteek «beste kolore bat» izango lukete; ez lukete bila dabilzanak desanimatzen eta atzerarazten dituen geldotasun eta eskastasun irudi hori emango.

3.4. Fede biziaren gaintik etikaren nagusitzea

33. Sinestedun esperientziaren defizitak utzitako hutsunea ahalegin etikoaz bete izan da betidanik. Ez da fedea ukatzen, baina baztertu egiten dira fedearen alderdi nagusietako batzuk, besteak beste, kontenplazioa eta otoitza.

³⁴ IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Jesukristori Eliza hone-tan jarraitzea* (Pastoral Idazkia, Garizuma-Pazkoa, 1989).

Kristautasunak badu baztertu ez daitekeen alderdi etikoa. «Gizaki berriak» ezin du bere bizitzako alderdi garrantzitsurik biziatu jarrera inkoherenteak izanez. Baina kristautasuna, oinarri eta funtsean, fedea da, ez etika.

Etika sozialak betetzen du batzuetan benetako sinestudun-esperientziaren hutsunea. «Sinestea konprometitzea dela» konbentziturik, fededun asko konpromiso sozial miresgarriaren uretan sartu izan da, baina konpromiso hori ez da behar adina ureztatu izan otoitzaz eta kristau-motibazioaz. Emaitza, kasu askotxotan, fedea ahultzea izan da, eta baita fedea galtzea ere. Zalantzan jar daiteke konpromisorik gabeko mistikaren kristau-nortasuna. Baina mistikarik gabeko konpromisoa, azkenean, altruismo huts bihurtzen da, edota erreta gelditzen da nekearen edo etsipenaren ondorioz. «*Dena mistikan hasi zen eta politikan bukatu*», zioen Ch. Péguy-k ahalegin sozialean sarturik beren fedea galdu zuten kristauen belaunaldi bati buruz.

Fede-esperientziaren defizit hori ordezkatzeko duena etika sexuala denean, bultzada eman beharko liokeen motibaziorik gabeko araudia bihurtzen da. Fede-esperientziaren arnasarik gabeko etika sexualak erraz jotzen du zorrotasunera edota arduragabekeriara.

Nagusiki etikoa den kristautasunak ezin du kristauen bizitza piztu, ezta sinesen ez dutenak edo zalantzan daudenak federa erakarri ere. Gure predikuak ez ote dira lar etikoak, nahiz eta oso ikuspegi orokorrak eman? Ez al da adorea gaur fededunek behar dutena, eta ez zaparrada etikoak? Filosofo grekoek ondo bereizten zuten bultzada etikoa eta honen azpian zegoen bizi-adorea. Konturatu ziren, adorerik gabe ez dagoela etikarik. «Moralik» gabe ez dago moralitaterik.

3.5. *Zatiketarako joera*

34. Aldaketa sozialek eta Elizaren ahultasunek zatiketa eragiten dute. Kultura postmodernoa «zatiaren kultura» da. Kultura honek zirrara eragiten du fededunengan ere, batez ere gazteengan. Indarrean diraute, zorionez, fedearen eduki nagusien onarpenak, Jesusen pertsonarekiko eta Ebanjelioko balio moralekiko atxikimenduak eta Elizako kide izatearen sentimenduak. Baina elkarte katolikoaren beharrezko batasuna iluntzen eta ahultzen duten era askotako jarrera doktrinalen edota pastoral aukeren aurrean ageri den pluraltasunak, bidezkoa izanik ere nahasketa eta egonezina eragiten ditu kristau-elkartean bertan eta kanpoan.

3.6. *Erantzun desegokiak eragin kulturalaren aurrean*

35. Gaur egungo kulturak fededunei zuzentzen dien interpelazioak era askotako jarrerak pizten ditu kristau-elkartean eta horietako batzuk kontratestigantza serioa izan daitezke.

- a) Lehenengo jarrera «*Ebanjelioa sustraitik hartzea eta rigorismoa*»³⁵ nahasten eta bata bestearen ordeztartzen dituena da. Bi jarrerok, egia esan, guztiz desberdinak dira. Neurri batean, rigorismoa Ebanjelioa sustraitik hartzearen karikatura da. Rigorismoak aginduari begiratzen dio, ez maitasunari; legeari itsatsita dauden eta intolerantziarako joera duten pertsonen ezaugarria da. Ebanjelioa sustraitik hartzen duenarentzat, kanpotik datorren araua, fede-esperientzia sakonetik nork bere egitean, gure kris-

³⁵ J.B. METZ, *Más allá de la religión burguesa*, Sígueme (Salamanca 1982), 15. or.

tau-sentiberatasunak bere-berez onartua gertatzen da. Gehiago joko bagenu Ebanjelioaren sustraietara, ez genuke hain zorrotzak izan beharrik izango. Rigorismoak atzerarazi egiten du; Ebanjelioaren espirituak erakarrri. Rigorismoak nekea eta barne-tristura eragiten ditu; Ebanjelioaren espirituak hazkundera eta barne-aberastasuna. Jesusek espiritu hori izan zuen; ez zen rigorista izan.

- b) Bigarren jarrerak ezin du jasan, kristau-mezua bere osoan aurkezteak nagusi den kultur inguruan eragiten duen erabateko gaitzespena. Orduan, *kendu edo ezkutatu egin nahi izaten ditu kristau-bizitzaren alderdirik paradoxikoenak* eta inguruko mentalitateak bere egin ditzakeen kristautasunaren alderdiak bakarrik nabarmendu. Gauzak muga-mugara eramanda, fedea humanismo huts bihurtzen du. Horrekin bat egiteko, gaurko gizona edo emakumea ez da kristau egiten.
- c) Beste jarrera kristau-elkartearantzat bereziki aldekoak diren sozial edo lege-baldintzak bilatzea da.

Bidezkoa da Elizak bere eliztarrentzat herritar guztientzat eskatzen diren askatasun-baldintzak eskatzea, eta bere bizitzaren eta ekintzen zabalkundearen aurka dauden bidegabeko oztopoak salatzea. Dena dela, Ebanjelioaren ikuspegitik mesedegarriagoa da negatiboki baztertua izatea, botere sozial edo politikoen aldetik pribilegioak izatea baino. «*Elizak ez du bere ustea aginte zibilak emandako pribilegioetan jartzen. Are gehiago: uko egingo dio era onez lortutako zenbait eskubideri, horietaz baliatuz bere testigantza zintzotasuna kolokan jartzen dela edota bizitzako baldintza berriek beste antolamendu bat eskatzen dutela ikus dezanean*».³⁶

- d) Beste jarrera bat animo gutxi izatea da gertatutako aldaketan aurrean.

Kristau gehienek gure Elizaren egoerari buruz duten iritzi orokorra ezkorra da batez ere. Gure jendearen zati handi batek Eliza ez doala ondo uste du. Beren esperientzia pertsonalak, inguruan jasotako iritziak, komunikabide gehienek bidez jasotako irudiak berrestu egiten diete susmo hori. Oraina gordina da; geroa iluna. Ezkortasuna da nagusi. Autoestimuko kolektiboa beherantz doa.

Autoestimuko kolektiboa baxua duen taldeak, nahi gabe bada ere, sinestaraizleak baino gehiago atzerarazleak diren mezu subliminalak bidaltzen ditu. Taldekideek konplexuz beterik eskaintzen dute fedea, beren ahultasunak zurrizko joera hartzen dute, eta beren elkarteari atxikimendu eskasa erakusteko tentazioa. Tomasen tentazioa³⁷ berritzen da horiengan. Ez dira ausartzen kristau direla esatera agerian. «Kristau kritikoak» dira, «kristau dialektikoak», «kristau erasmistak», «Elizarekin tentsioan dauden kristauak». Animo asko behar da hain animo gutxi duen talde batera hurbiltzeko.

Historiagileen iritziak, kristautasunak lehenengo mendeetan izan zuen zabalkunde harrigarriaren arrazoiak bat bere «animo kolektibo altua» izan zen, mundu greko-erromatarrekiko kontraste argian; izan ere, hau

³⁶ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 76. z.

³⁷ *Jn* 20,24. 29.

oso zabaldua eta boteretsua izan arren, ezkortasunak jota baitzegoen. «Lehenengo kristau-ebanjelizatzearen arrakastaren arrazoirik garrantzitsuenetakoa hauxe izan zen: paganoek beren buruarengan konfiantza galdua zuten bitartean, kristautasuna bestela agertzen zela denen aurrean: bizitzea merezi zuen fede bezala, beragatik hiltzea ere merezi zuen fede bezala».³⁸

³⁸ E.R. DODS, *Paganos y cristianos en una época de angustia*, Cristiandad (Madrid 1975), 173. or.

III.– GURE ELIZ EGOERAREN IRAKURKETA SINESTEDUNA

36. Egoera deskribatzea eta beraren arrazoiez jabetzea beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Giza gertaerak ez dira, besterik gabe, zergatiak deskribatuz eta eraginak aurkeztuz adierazten diren gertaera fisikoak bezalakoak. Interpretatu egin behar dira. Ezinbestekoa da beren esanahia aurkitzea.

Zuen aurrean gure elizbarrutien errealitateari begiratzean, interpretatu egin behar dugu fedearen argira errealitate hori, eta hori da orain egin nahi duguna. Batez ere hauxe jakin nahi dugu: zer irakasten digun Jainkoak gure egoeraren bitartez, eta zer egiteko eskatzen digun egoera horren aurrean. Vatikanoko II. Kontzilioak «aldien ezaugarriak sakonki aztertu eta Ebanjelioaren argira interpretatu»³⁹ behar ditugula gogorarazten digu. Begi-bistakoa da gure fedearantzat Espirituak zer-bait esan nahi diola Elizari gertaera hauen bidez. Arreta biziz entzun nahi diogu eta otzantasun gogotsuz erantzun.

A) IRAKURKETARAKO GILTZA BATZUK

1. Proba mingarria

Deskribatu eta azaldutako egoerak sufrimendua eragiten digu, kristau-elkarteen gainbehera gogorra islatzen duelako mendebaldeko Europa osoan eta gure artean. Gogorra da fededun askoren gogogabetasun erlijioso, sinesgabe ugariaren gaitzespena eta batzuk nahiz besteek Elizarekin dituzten arazoak ikustea. Zaila da fede katolikoak jasan duen aldaketa asimilatzea: soziologikoki zabaldua eta kulturalki babestua egotetik egoera berri batera igaro da sinestedun izatea, giro askotan zer-bait «kontrakulturala» izateraino eta «korrontez kontra» bezala bizi behar izateraino. Zaila da konturatzea Elizak «bere lekua bilatzen duela gizarte sekular eta pluralista honetan, eta ez duela aurkitzen. Zailtasunak ditu bere mezuarantzat egokia den hitza aurkitzeko eta hitz hori esateko tonu egokia asmatzeko. Horiek aurkitu aurretik, basamortua igaro beharko du eta krisi sakona bizi»,⁴⁰ bere solaskidea (gure garaiko gizon eta emakumea) aldatu egin delako, ez bere egiturarik sakonenean, baina bai bere sentsibilitatean, irizpideetan, jarreretan, balioen eskalan. Penagarria da beste hau sumatzea ere: inork ez dakiela ondo zer egin behar dugun eta nola sortzen den ere zehatz-mehatz kristaua, gaurko baldintza soziokulturaletan. Deserosoa da bide zaharrak uztea, eta deserosoa ibilbide ebanjelizaile berriak bilatzea. Triste da ingurumen askotan «hiltzen joatea».

Oinaze honen erdian jasotzen den Jainkoaren deia hau da: bere barruan Jaunaren Gurutzea antzeman eta horren aurrean sinestedunei dagokien jarrera hartu behar dela. Hauxe da gaur kristauok Jaunarekin bat egiteko eta bere Nekaldia gaurkotzeko aurrez aurre dugun gurutzeetako bat.⁴¹ Gurutzetat hartu behar dugu, eroapenez eta otzantasunez eraman eta, Berrerosleari lotuta egotean, beraren indar salbatzaileaz jantzita dagoela gogoratu. Aldi berean, bere Gurutzea eraman zuen

³⁹ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 4. z.

⁴⁰ J. KEZEL, «Annoncer l'Évangile aujourd'hui», *Nouvelle Revue Théologique*-n, 126 (2004), 3-15. orr. *Selecciones de Teología*-n laburbildua (2004), 288 or. eta hur.

⁴¹ Ik. Kol 1,24.

Errugabe bakarra Jauna dela aitortu behar dugu. Guri zera eskatzen zaigu: apaltasunez eta bakez onar dezagula gaurko egoeran dugun erantzukizunaren eta bekatuaren zatia.

2. Egundoko erronka

37. Historian lehenengo aldiz, IV. mendetik aurrera, diasporatik gero eta hurbilago dagoen gutxiengo egoeran bizi dira Eliza katolikoa eta gainerako kristau Elizak Europako hainbat lurraldetan, mundu jentilean edonon agertzen diren gutxiengo juduen antzera. Desitxuratua gelditzeko arriskua du, kristau izatea alde batera uzten ari den gizarte honetan. Baina badu fedeari eusteko, fede hori arazteko eta eskaintzeko aukera ere. Aztertzaile batzuen arabera, gure lurrean bizi dugun sinesgabetsunaren eta erlijio-hoztasunaren zabalkunde izugarriak zalantzan jartzen du Eliza horiek bizirik jarraitu eta iraun ahal izatea, baita gerora publikoki esanguratsua izan ahal izatea ere. Ez litzateke lehenengo aldia izango historian, oso biziak izandako Elizak baztertuta eta ia hondakin bezala geratzea. Asia Txikiko eta Ipar Afrikako kasuak dira argienak.

Eliza betikoa izango dela agindu du Jesusek munduaren azkena arte. Egia da Jaunaren promes honek ez duela ziurtatzen nahitaez gure Elizaren bizitasuna, ezta beraren presentzia soziologikoki sendoa ere gure artean. Baina egia da baita ere, «*Elizaren eta kristautasunaren geroa Jainkoaren esku dagoela batez ere, eta ez gizakiaren esku. Jainkoak, beraz, hutsean utz ditzake aurreikuspenik onenak eta oinarrituenak, historian hainbat aldiz gertatu izan den bezala*» (Van der Pol). Ukatu ezin dena zera da: gure lurrean kemen ebanjelikoa eta Elizaren eragin apostoliko eta gizatiartzailea nabarmen ahultzen ari dela.

Garrantzi handiko bi balio daude jokoan gaur egun, dagoeneko hurbil dagoen geroari begira. Galdera erara esan dezagun: *esanguratsua* izango ote da biharko *kristau-fedea* gero eta sartuago gauden gizarte europarrean? *Sinesgarria* izango ote da *gure Eliza*, bizitza-era kolektibo eta ageriko bezala, Jesu Kristoganako fedearen bitartekotza egiaztatua izan dadin bene-benetan? Bi galdera hauei emandako erantzunaren arabera «hondar» bat edota «hondakin» bat izango gara epe laburrera. Hondarra, adiera biblikoan,⁴² bizi-ernamuina da, gerora loratuko den itxaropenarekin. Hondakina iragan kementsuagoaren oroitzapen zurbila da. Teologo baliotsuen arabera, Espirituaren eraginak zerikusi handia izango du aukera batek edo besteak aurrera egin dezan; izan ere Espirituak, gure lankidetzarekin, kristau izateko era historiko berria sor dezake, gure kulturak eratu dituen eta desberdinak diren gizon-emakumeekin bat egingo duen eta gizaki horien funtsezko osagai guztiak bere egingo dituen. «*Desagertzen ari dena ez da kristautasuna, kristau izateko era historiko bat baizik*».⁴³ Sorkuntza horretan egotea eta parte hartzea izango da gure eginkizuna eta zoriona.

3. «Lurreratua, ez zapaldua»

38. Gaur egungo mehatxu eta arriskuak bi eratara uler daitezke: ezegonkortzailetzat har daitezke edo berriztapenerako aukera eta abiapuntutzat. Ez dago gure Elizak hondakin-egoerara daramatzen determinismorik. Ez du ezerk justifikatzen gure

⁴² Za 13,8-55.

⁴³ J.M. TILLARD, «Nosaltres som els darrers cristians?», *Qüestions de Vida Cristiana*-n 190 (1998).

etsipena. Lehen ez geunden hain ondo, eta orain ez gaude hain gaizki. Gaur egungo aldiak ez dira iraganeko historiako aldiak baino txarragoak Berri Ona iragartzeko. Gure historiako aldi hau, barnean daraman kritika, laztasun eta zapuzkeria guztia-rekin, graziazko eta bihozberritzeko aldia da guretzat. Joan Paulo II.ak esan digu: «*Gaurko historia ez dago bere baitan itxita, Jainkoaren Erreinura irekita baizik. Ez dira justifikatzen, beraz, ez etsipena ez ezkortasuna ez geldotasuna*».44 Ezin dugu sinetsi hainbeste gizon eta emakume arrunkeria hutsean finkatuta geratuko denik. Lehentxeago edo beranduxeago antzeman dezakete, beren bizitzako edukirik baliotsuena izango balira bezala eskaintzen zaizkien kontsumorako eta dibertsiorako gaiek ezin dituztela beren nahirik sakonenak bete.

Aurreko kapituluetan aurkeztu ditugun adierazle batzuek norabide horretara garamatzate. Beste askok irakurketa bikoitza egiten eta iradokitzen dute. Eliz erakundeak bere izen ona galdu izanak kezkatu egiten gaitu, baina atxikimendu ia absolutuetatik araztutako Elizarenganako maitasunera eramane gaitzake. Apaizen gutxiagotze nabarmena gaitz handia da, baina, ordainean, laikoaren heziketa eta sustapena egitera bultzatzen du eta sendatu egiten du gure Eliza klerikalismotik. Fededunen erlijio-gogogabetasunak asko desanima lezake, baina Ebanjelioaren aldeko eskaintza benetakoagoa eragin dezake beste fededun batzuegan. Sinesgabetasunaren zabalkundeak nahigabetu egiten gaitu, baina Jainkoaz dugun irudia garbitzera eramane gaitzake. Ebanjelizatzearen zailtasunek porrot-sentsazioa dakarkigute, baina gure solaskideentzako giza esperientzia esanguratsuak (e.b., maitasunaren edo elkartasunaren esperientzia) bilatzera eta esperientzia horien azpian dagoen Jainkoarekiko topaketa eragiteko pedagogia zorrotzera bultza gaitzakete. Elizan sentitzen dugun murrizte eta ezintasun-esperientziak berak beheraldia ekar diezaguke, baina, era berean, gure bizitzako oinarritzako babesa Berarengan bakarrik bilatzera, Jainkoak bakarrik salbatzen duela hobeto ulertzera eta gizon-emakumeengana hurbiltzeko dituen bide misteriotsuak errespetatzera eramane gaitzake. Azken batean, gure babesgabetasunezko giza esperientzia Jainkoaren esperientzia gertatuko den esparrua izan daiteke eta izan behar du, Espirituaren bitartez.

Bizi ditugun garaiotan durundi egiten dute eta bereziki adoretzuak dira Apostoluaren hitzok: «*Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaldu ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geuregan... zuengan bizia ager dadin*».45 Edota beste hauek: «*Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak?... Baina guztiotan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituenari esker. Bai baitakit ziur, ez herio eta ez bizi, ez aingeru eta ez goiko beste indar, ez oraingo eta ez geroko, ez inolako botere, ez ortziko eta ez lur azpiko indar, ez beste izakik, ez gaituela aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunarengan agertu digun maitasunetik*».46

4. Erlijioak bizirik dirau

39. Gaurkoz Elizak une estuak bizi ditu. Baina –aurrerago aipatu dugunez– Erlijioak bizirik dirau eta kemen berritua eskuratzen ari da. Erlijioaren teorikoek seguru-

44 JOAN PAULO II.a, *Sollicitudo rei socialis*, 47. z.

45 2 Co 4,8-12.

46 *Erm* 8,35-39.

tzat jo izan dute luzaroan, sekularizazioarekin, hau da, ekonomia, jakintza, politika eta gizarte-bizitza Elizaren babes eta kontrolpetik emantzipatu edo aske geratzearekin erlijioen desagertzea etorriko zela nahitaez gertakari sozial garrantzitsu bezala. Ez zuten inoiz zehaztasunez aztertu ahal izan beren uste hori. Esperientziak gezurtatu egin du. Adituek irmoki diote, Erlijioak bizirik iraungo duela mundu sekular-tuan modu desberdinetan. Erlijio-tradizio zaharrek, kristautasuna barne, fededunen jendetza handiak biltzen jarraituko dute. «Mugimendu erlijioso berrien» mundu zabalak bizitasun sinestezina erakusten dihardu, nahiz eta anbiguotasun eta faltsutze ugazatuz zeharkatuta egon. Hauen bultzatzailea, erlijio-behar ukazina (Jainkoaren hustasuna) da, alde batetik, eta, bestetik, hainbat eragile: aldaketa sozialek eragindako segurtasunik eza, anonimatatik eta masifikaziotik ihes egiteko borondatea, jende askok bere nortasuna galtzeko duen beldurra, individualismoari kontra egitea.

Adituen arabera, gainera, iragarritako Erlijioen desagertze sozialaren ordean, aldaketa sakona gertatzen ari da kultura modernoaren arloan, egiazko erlijio-aldakuntza, hain zuzen ere. Sekularizaziotik «sakratuaren erlijioetarako» igarotzealdian geundeke. Baina «erlijio» hauek gurtzen duten sakratua ez da Jainko traszendentea, gizakia baino aurreagokoa eta handiagoa dena, giza bizitzan sartua dagoena, beraren aitorkuntza miresgarria eta liluragarria egitera eta bere bizitzako «grabitate-zentroa» aldatzera daramana. Sakratua pertsonaren barneko hondoa baino ez da, zeregin profesionalak, ardua ekonomikoak, osasunaren zainketak, kanpoko jarduera, neurgarria eta ukigarria den guztia baino barrurago dagoen pertsonaren hondoa. Barruko espazio horretan jabetzen da gizonezkoa edo emakumezkoa bere «ni»-az, bere duintasunaz, eta edertasunerako eta kontenplaziorako gustuaz. Inguru ukiezin, bortxaezin, bihotz-bihotzeko hori da. Barru hori sakratua da. Bilatzea eta lantzea «sakratuaren erlijioa» praktikatzeko da. *Esprit* (1997) aldizkariak «Jainkorik gabeko erlijio» deitzen dio. Galdera egin dezakegu, ba ote dagoen Erlijiorik beste Norbait ez dagoenean Berari zuzen galkizkion, gurtu dezagun, Berari emanak bizi gaitezten? Esan dezakegu, sakratu hori Jainkoagandik giza barnekotasunera eramatea Erlijioaren hondamena dela, edo baita idolatria ere. Adituak eratsua goak dira. Erlijio-esperientzian Jainkoa traszendentea eta inmanentea da aldi berean. Beste era batera esanda: nire berdina ez den eta neure burua eskaintzen diodan Norbait da; eta, aldi berean, «*neure barruko muina baino barrukoagoa da*» (San Agustin). Mistiko handiek batera bizi izan dituzte bi alderdiok. Kanpotik bat-batean sartzen den eta gizakiaren autonomia murrizten duen Jainkoaren irudiari alergia dion kultura honetan, bada Erlijiora urrats bat emateko modua: egunero zereginaren premiek harrapatuta bizi izatearen aurkako jarrera hartzea, alegia, eta nor bere barruko misterioa onartzea. Beharbada norabide horretan sakonduz, zabalduko lirake Jainko Traszendentearengana.

5. Espirituak munduan jarduten du eta Eliza gidatzen

40. Gure gizartea erlijio-hoztasunerantz, noraezean bezala, ibiltzeak eta gure fedearen ahultasun gero eta handiagoak erantzukizun neurrigabea eta, horrexegatik, urduria eragiten du gudan bere-berez. Honen eraginez, biderkatu egin ditzakegu, era amorratuan, gure egitasmoak eta lanak. Gehiegizko erantzukizunak gehiegizko ekintza eta eroapenik eza dakartza. Jarrera honen azpian gure fedearen defizita dago. Ahaztu egiten dugula dirudi, Espiritu Santua dela salbamenaren Protagonista eta Elizaren Gidaria. Espiritu Santua, izan ere, Jainkoak berezkoa duen era apalez, historian eta Elizako zirrikietan ekintzan ari da, eta guk baino begirada luzeago eta bareagoaz begiratzen dio munduari eta kristau-elkarteari.

Egia da giza historia bi askatasunez idatzita dagoela: Jainkoarena eta gizaki-ena. Egia da, bestalde, mundua eta Eliza bera benetako gizatasuna eta erlijio-sentiberatasuna galarazi diezaieketen indarren eraginpean daudela. Baina egia da, era berean, Jaunaren Heriotzaz eta Piztueraz markatuta dagoela historia.⁴⁷ Jainko Aitak ez du amore eman bere borondate salbatzaile unibertsal eta eraginkorrean. Berak bere salbamena gaurkotzen jarraitzen du guk ezagutzen ez ditugun, eta gure esku bakarrik baleude seguruenik guk aukeratuko ez genituzkeen bideetatik. Gure fedearen uste sendo honek benetako ziurtasun sakon eta sentitu bihurtu behar du, larregizko gure alarmak baketzeko eta garenak izatearen poza berreskuratuzeko.

Espiritu Santuak gidatzen du Eliza, salbamenaren gune eta salbamenarako bide bezala. Gure aurretik doa Bera. «*Ez gara konkistatzaileak ezta salbatzaileak ere, haren laguntzaileak baizik*». Berak bere misio hirukoitza betetzen du Elizan: unibertsal egin, gaurkotu, barneratu. Unibertsal egiten du Eliza, bere baitan ixten duten, bere burua mantentzeaz larregi ardurarazten duten eta munduaren behar eta itxaropenen aurrean bihozgogor bihurtzen duten ikuskera estuetatik askatuz. Jesu Kristoren betiko berritasuna gaurkotzen du Elizan. «*Espiritu Santurik gabe Kristo iraganekoa bihurtzen da; Idazteuna letra hila; Eliza, erakunde hutsa; agintea, menderaketa besterik ez; ekintza ebanjelizatzailea, propaganda; liturgia, oroipen magiko hutsa eta moral ebanjelikoa, esklaboentzako etika. Baina Espirituarengan, Kristo Berpiztua bizirik eta ekintzaile dago, Ebanjelioa bizia ematen duen indarra da, Elizak elkartasun hirukoiztarra iragartzen du, agintea zerbitzu askatzailea da, misioa Mendekoste iraunkorra, liturgia salbamenaren oroipena eta aurrerapena da*» (I. Hazim). Espirituak, azkenik, barneratu egiten du: Jesu Kristo bera, fedearen mezua eta balio ebanjelikoak (pobretasuna, otoitza, karitatea) gauza arrunt eta berezko egiten dizkigu.

Espiritua aitortzea, beraren presentziaren zeinuez jabetzea, eta otzantasun, leialtasun eta apaltasunez Berarekin elkarlanean jardutea mesedegarriagoa da, larritzea eta erantzukizun gehiegi hartzea baino.

6. Bihozberritze-aldia

41. Fedearen argira gure Elizen egoera eta gure gizarteak Erlijioaren aurrean dituen jokabideak aztertzeak oinarritzko jarrera bat eskatzen dio kristau-elkarteari: bihozberritzea. Berrikuntza eta bihozberritzea edo konbertsioa elkarrekin loturik dauden bi hitz dira. Apokalipsiko Elizei bezala,⁴⁸ Espirituak indartsu dei egiten digu bihozberri gaitzen. Gure elkarte eta arduradunoi ere «*hasierako maitasuna galdu al dugun*»⁴⁹ galdetzera dei egiten zaigu, edota Jesu Kristo Testigu leial eta egiazkoaren salakuntza merezi dugun: «*Epel zara, ez bero, ez hotz*».⁵⁰ Islatua ikusten al dugu geure burua adierazpen gogor hauetan?

Eskastasunetik berotasunera eta nolabaiteko irrikara ere igarotzea burutu gabeko eginkizuna da gutariko askorentzat. Beste ezer baino lehen eta batez ere, ez dugu gizartera, garai modernoetara, egiara, zuzentasunera, onera bihurtu behar. Ezta pobreengana ere. Jainkoagana bihurtu behar dugu. Ez dago benetako kristau-

⁴⁷ Jn 12,31 hur.

⁴⁸ Ik. Ap 2 eta 3

⁴⁹ Ap 2,4.

⁵⁰ Ap 3,1.6

bihozberritza bere aurpegia Jesu Kristorengan distira betean azaltzen duen Jainkoarekiko Elkartzeko pertsonal eta komunitariorik gabe. Bihozberritzea ez da ohitura eta jarreraren eraberritzea hutsa. «*Jainkoarengana itzultzea*»⁵¹ da. Hauxe da sendatu beharra dugun funtsezko harremana. Hori sendatzen eta indarberritzen bada, gainerako guztiak sendotu egingo dira. «Jainko honengana igotzen dena, mundu honetara jaisten da».

Gure garaiko atmosferak gutxitu egiten du guregan bihozberritzearen mugimenduaren abiadura. «*Datorren geroaren tentazio handia* –hala zioen Teillard de Chardinek– *zientziaren, teknikaren eta artearen mundua Idazteuneko Jainkoa baino biziago, erakargarriago eta liluragarriago hartzea izango da*». Bihozberritzea honetara dei egiten digu etengabe Espirituak gaurko abagunean, gure bihozberritzearen mugimenduari aurrea hartuz. Jainkoa bera delako bihozberritzen gaituena. Paulok zehaztasunez dakarkigu gogora: «*Egitzazue bakeak Jainkoarekin*».⁵² Pascalek Jesu Kristoren ahotan jartzen ditu gutariko bakoitzari zuzenduak dauden hitz esanguratsu batzuk: «*Zuk ez nindukezu bilatuko, nik aurretik aurkitu ez bazintut*». Jainko Aitaren Errukia gure bihozberritze-prozesuaren aurretik azaltzen da eta prozesu osoan lagun egiten digu.

Jesu Kristoren Jainkoarengana bihurturik, kristau-elkartera bihurtuko gara eta onartu egingo dugu den bezala, Jainkoak nahi duen bezalako izaten laguntzeko. Gizartera bihurtuko gara, Jaunak maite duen bezala maitatzeko, bere balioak aitortzeko eta gure lankidetzara eta kritikaren zerbitzu apala eta zintzoa eskaintzeko. Pobreengana bihurtuko gara bereziki. Hauekiko solidaritatea da gaur «Jainkoa» esateko eretako bat.

Biziki nahi dugu, hastera goazen Garizuman Bihozberritzearen sakramentua den Penitentziaren ospakizunak aparteko garrantzia eta sakontasuna izan dezala, eta arretaz prestatua izan dadila. Elizak aginduta daukan eran egindako gure bekatuen aitortza osoak eta bakarkako absoluzioak ziurtatu eta sendotu egingo dute gure bihozberritzearen zintzotasuna.

B) GURE GARAIRAKO ESPIRITU BIDEA

42. Gizarte honen erdian gure elkarrekin errealitatearen irakurketa sinestoduna egiteko, abagune honetan egokia den espiritu-bidea gauzatu behar da. Horren ezaugarri batzuk azpimarratuko ditugu.

1. Konfiantzaren espiritu-bidea, ez baikortasunarena

Orainaren azterketak eta geroari buruzko ikuspegiak ez dute baikortasunerako aukera handirik ematen. Ez dugu inolako berme errebelaturik, hemendik 25 edo 40 urtera gauzak hobeto joango direla dioskunik. Baina badugu arrazoirik gure Jainkoaganako konfiantzan sakontzeko, oraingo larritasunak eta geroko beldurrak baretuz.

Konfiantza, gizakiarengan sakon sustraitua dagoen funtsezko bizi-jarrera da. Hala ere, gure gizartean berezko konfiantza ahulduz doala ikus dezakegu. Jendeak

⁵¹ *Lm* 3,40.

⁵² *2 Ko* 5,20.

«etorkizuna loturik» eduki nahi du eta, horretarako, konfiantza gehiago du bere ahaleginetan besteen laguntzan baino. Zenbat eta programatuagoa izan gure munda, orduan eta zailagoa da konfiantza.

Jainko Aitaren maitasun ukaezina, Jaunaren Piztueraren indarra eta Espirituaren etengabeko jardura historian, euskarri sendoak dira, ez gure iragana Jainkoaren errukiaren zainpean bakarrik uzteko, bakarkako eta elkarteko gure geroa ere Hark guretzat duen arduraren esku uzteko baizik.

Gaurko garaian Jaunaren dei berezia entzun dezakegu, Berarengan konfiantza garbia izan dezagun. 71. Salmoa otoitz-giroan hausnartzeak gure itxaropena indartzen laguntzen digu, besteak beste. Singularrean nahiz pluralean esan dezakegu: «*Jauna, zuregan dut babes, izan zakizkit harkaitz babesle... zure eskuetan jartzen dut nire arima... Jaunagan dut uste osoa... nire etorkizuna zure eskuetan dago... Zuk erakutsi zenidan zeure maitasuna arriskualdian... izan kemen eta adore Jaunagan uste sendoa duzuenok*».

2. Leialtasunaren espirtu-bidea, ez arrakastarena

43. Ez hain aspaldi, harriak Abrahamen seme-alaba bihurtzen zirela ikusten genuen. Abrahamen seme-alabak harri bihurtzen direla ikusten dugu gaur. Jainkoaren aurrean erakutsitako bihozgogortasuna garai guztietako gertakaria da. Jesusek biziki ezagutu zuen jendaurreko bere bizitza. Apurka-apurka, ia bakarrik geratu zen. Bere giza esperientzian gero eta hobeto ulertu zuen, Aitak leialtasuna eskatzen ziola, ez berehalako arrakasta.

Asko erein behar dugu, gutxi biltzeko. Leialtasunaren grazia eta poza eskatu behar ditugu ugalkortasun eskaseko garaian. Simon Pedroren hitzak ezagunak egiten zaizkigu: «*Gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sare*».⁵³ Geuk ere lanean dihardugu haren izenean, jakinik, beste ezer baino lehen leialtasuna eskatzen zaigula. Hau da, «*denboraren buruan gastatzen ez den maitasuna*» (Rovira Bellosa).

3. Erantzukizunaren espirtu-bidea, ez erruduntasunarena

44. Ezin gara besoak gurutzatuta egonean egon onez onean egin dezakeguna egin gabe. Berrri Ona bizi eta honen testigantza ematea ez da garrantzitsua bakarrik; garrantzitsuena da. Baina onartu egin behar dugu, ez garela egin ezin dugun onaren eta saihestu ezin dugun gaitzaren arduradun. Ondorioz, erruduntasuna saihestu behar dugu. Guk ez dugu geure elkarte-ahultasunaren, askoren erlijio-hoztasunaren, edota gazteen aldentzearen erru guztia, ezta gutxiagorik ere. Luze eta zabal azaldu dugu, deskristautzearen arrazoirik nagusiena inguruan nagusi den kultura dela. Indar handiko eragina du honek, eta honen aurrean ezin dugu gauza askorik egin. Pertsonen eta taldeen pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moldea eratzen du. Bere balioak ezartzen dizkie.

Erruduntasuna arriskutsua da. Barruko garrantasuna eragiten duen edari mitatza da. Ia derrigorrezko bihurtzen da besteen gainera jaurti beharra: guraso, eskola, giro, komunikabide, Hierarkia... nornahiren gainera.

⁵³ Lk 5,5.

Egokia izango da erruduntasun hori 130. Salmoarekin baretzea: «*Jauna, nire bihotza ez da handinahi, ez nire begiak gorazale; ez nabil gauza handien atzetik, gainditzen nauten harrigarrien atzetik. Ostera, isil eta bare dut barne-gogoa; haurtxoa amaren altzoan bezala, haurtxoa bezala dut barnean gogoa. Itxaron, Israel, Jaunagan, oraindanik betidaino!*».

4. Itxaropenaren espiritu-bidea, ez nostalgiarena

45. Gainbehera jasan izan duten familiek beren garai distiratsuen nostalgia izaten dute. Gure elkartetan ere badago iraganaren nostalgia. Israelek ere sentitu zuen nostalgia hori erbestealdian eta estualdietan:⁵⁴ «*Babiloniako ibai-ertzetan eseriak geunden negarrez, Sionen oroipenez. Ur ondoko sahatsetan utziak genituen zitarrak zintzilik... Nola kantatu Jaunaren kantarik atzerriko lurraldean?*». Nostalgia tristura dakar, eta honek geldotasuna. Oso-osorik behar ditugu geure indarrak gure fedea bizitzeko eta honen testigantza emateko.

Hara, itxaropenaren abiapuntua den uste sendoa: gauzak gehiago «izango direla Jaunagan» sinestea. Honela saiatzen da itxaropena pertsonengan, taldeetan, egoeretan, beren barruan esnarazten, berengan txertatutako Jaunaren Piztueraren ernamuin bezala daramaten aurrera egiteko dinamismo hori. Itxaropenak atera egiten gaitu iragan pertsonalari eta elkartekoari buruzko gogoeta nostalgiko eta malenkoniatsu horretatik, eta posible den etorkizuna errealismoz eraikitza eta behin betiko etorkizuna prestatza bideratzen gaitu.

Gure iritziz, bereziki hiru dira gizarteak guregandik jaso behar dituen mezu eta testigantzak: Jainkoa dela Absolutu bakarra; ukazina dela gizon eta emakume ororen duintasuna; badagoela arrazoirik itxaropenerako.

5. Eroapenaren espiritu-bidea, ez presarena

46. Motelak eta neketsuak dira bihozberritze prozesuak, bai bakarkakoak nahiz elkartekoak, bai norberarenak nahiz besterenak. Kristau-bizitzaren eta apostolutza-bizitzaren eragozpenek asalatu egiten gaituzte sarritan. Presak eten egiten ditu behar baino lehenago prozesuak, umatu ordez. Ezinbestekoa dugu itxaropenaren alaba den eroapen espirituala eta pastoral. «*Begira nekazariari: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta pazientziaz itxaroten ditu sasoiak sasoiko euriak. Izan pazientzia zuek ere eta bete zaitezte adorez, laster etorriko baita Jauna*».⁵⁵

Kristau-pazientzia ez da, inola ere, axolagabea gaizki dagoenaren aurrean. Ez du etsitzen eta ez du dagoen horretan uzten, baldin eta aldatzeko aukera badu. Gauzak zuzentzearen jasaten dituen zauri pertsonalak otzantasunez sufritzen ditu. Behin eta berriz saiatzen da gauzak hobetzen, eginahalak eginez. Prest dago itxaroteko. Eroapen hau otoizlaria da eta ekintzailea.

6. Txikia estimatzearen espiritu-bidea, ez handia irrikatzearena

47. Gauza txikiak estimatzen jakitea ez da, kristau espiritu-bidean, «kontsolazio-saria» gauza handiak lortu ezin ditugunerako. Txikiak eta txikiak noblezia ebanjeli-

⁵⁴ 137. Salmoa.

⁵⁵ St 5,7-8.

koa dute. Horrela Ebanjelioan, pertsona pobreek eta baliabide apalek aparteko hurbiltasuna dute Jainkoaren Erreinuarekin eta honen legeekin. «*Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu*». ⁵⁶

Bizi dugun egoerak kendu egin digu gure elkarteen bizitzan eta egintzan gauza handiak burutzeko ilusioa. Aukera egokia da, inoiz gutxietsi behar ez genituen errealitate txiki askoren balioa berreskuratzeko: e.b., jendeak bere fedeari eta praktikari dion atxikimendua, parrokia jakin bateko pastoral gunearen leialtasuna, gaitasuna onartzeko baretasuna, guraso batzuen erlijio-berresnatzea famili katekesiari esker. «Txikia ederra da», hala dio jakinduria asko gordetzen duen atsotitz ingeles batek.

7. Sintoniaren espiritu-bidea, ez distantziarena

48. Gizakiengandik beti hurbil dagoen Jainkoa, ⁵⁷ hurbil egin zaigu behin betiko Jesu Kristorengan. «Barrutik» bizi nahi izan du gizon izatearen duintasuna eta morrontza. Kristau-elkaratearen zeregina da Jaunaren hurbiltasun hau historian luzatzea. Ez du, beraz, urruntasun- eta errezelo-jarrera izan behar gizartearekiko, empatia sakona baizik. Paulorena bezala, hau da kristau-elkaratearen zeregina: «*Guztien-gana ahalik eta gehien egokitu, nolabait batzuen batzuk salbatzeko*». ⁵⁸

Mundua hainbeste aldatzen denean eta elkarlean benetako triskantzak sortzen dituenean, erraz eragiten ditu beragandik defenditzeko eta urruti mantentzeko jarrerak. Diaspora-egoerak «egiaz etxean ez egotearen» sentsazioa sortu ohi du, arrotz sentitzearena. Mundu horretan gure kristau-sentsibilitatearen oso kontra-koak diren irizpideak, ohiturak, legeak, idazkiak, telebistako egitarauak ezartzen direnean, arrotz sentitze hori aldentze kroniko eta hotz bihur daiteke, eta izoztu egin dezake nabarmenki munduarekiko gure komunikazioa.

Edozein gizartetan oso eroso sentitzen den Eliza «bertan goxo» gelditu den Eliza da, gizarteari zor dion zerbitzua eskaintzen ez dakien edota eskaini nahi ez dion Eliza; hain zuzen, gizartean indarrean dauden joeren eta aginte-indar sozial, politiko, ekonomiko nagusien aurrean, apalenak edo ahulenak direnen aldetik egon behar du Elizak, hauen interesak zaintzen. Gainerakoan, Eliza mutua izango litza-teke, atsegin emailea, errazegi moldatzen dena.

Baina Eliza, benetan, txertatuta dagoen gizarteko kide sentituko ez balitz, bizidetzkoa den haren autonomia errespetatuko ez balu, haren aurrean jarrera harro eta berekoia izango balu, bere doktrina argitsua izanik ere distantziaren berariazko tonu hotza eta gogorra erabiliko balu, Elizak ez luke bere zereginaren alderdi garrantzitsu bat kontuan hartuko: «*gizadi osoaren batasunaren ezaugarri eta tresna*» ⁵⁹ izatea, alegia. Jaunarena bakarrik da Eliza. Eta Bera zerbitzatzan du, ez bere burua zerbitzatzan, mundua zerbitzatzan baizik, hau da, munduari fedea eskainiz eta mundua gizatiar egiten ahaleginduz. Munduarekiko elkartasun dialektikoa da-gokio Elizaren estatutu teologikoari.

⁵⁶ Mt 11,25.

⁵⁷ Eg 17,27-28.

⁵⁸ 1 Ko 9,22.

⁵⁹ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Lumen gentium*, 1. z.

8. Sendakuntzaren espiritu-bidea, ez kondenarena

49. Itxura batean, «*atseginaren kulturak*» zauriturik ez duela onartzen pentsa daiteke. Askok eta asko dira, hala ere, zaurituak. Horietako asko, Lehenengo Munduaren lotsarako, beren behar eta nahi funtsezkoenak asetzera iristen ez direlako Hirugarren Munduan. Beste asko, «*oparotasunaren miseriak*» (Mounier) bizi dituztelako, eta oparotasunak ezin dielako giza izatearen alderdi guztiei erantzun: hor daude gaixotasuna, heriotza, maite ditugunen maitasunik eza, okerreko bidea hartzen duten seme-alabek sortzen duten larritasuna, etorkinek beren zorte badaezpadako eta asaldatuagatik bizi duten kezka, biktimen samina, maite ditugunak giltzapean egotea. Gizakiok ez gara, egia esan, izaki aseak, gure arazo guztiak konpontzeko gauza garen izakiak. Gure egia-rik sakonenean, ematen duguna eta itxuraz garena baino prekario eta behartsuagoak gara. Psikologoentzat, gabezia betetako izakiak gara funtsean; gabezia horretatik sortzen da giza nahia. Teologoentzat, gizakiari dagokion behin-behinekotasuna kreatura ororen kontingentziaren zeinu da.

Horrelako gizadiak errukia behar du, kondena baino gehiago. Jesusek Nikodemori diotso: «*Jainkoak ez zuen Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, haren bitartez salbatzeko baizik*».⁶⁰ Gaur egun errukigintza miseria material handiagoa zegoen garaietan bezain garrantzitsua da eta beharrezkoa. Min batzuk desagertu egin dira edota arindu gizadiaren zati batentzat, ez denentzat. Baina gaitz berriak azaldu dira. Zaurituen elkarteak gara. Elizak Jesusen, hau da, Samariar Onaren, zeregina historian luzatzeko agindua jaso du. «*Haren zauriek sendatu zaituztete*».⁶¹ Kristauok badugu parte gizakien zaurietan eta, aldi berean, Jesusen sendatze-eginkizuna betetzen jarraitu behar dugu. Geuk ere senda dezakegu, baita geure zaurien bitartez ere. Izan gaitzen errukitsuago, kritiko baino. Izan gaitzen gupidatsuago, aztertzaile zorrotz baino. Izan gaitzen apal geure bekatuak aitortzeko⁶² eta bekatariari harrera ona egiteko.⁶³

Gure artean egindako gogoetak gure kristau-elkarteak berriztatzeko beharrezko diren giltza espiritualak argitzen eta osatzen ditu. Giltza horiek eraberritzera eta berriztatzera dei egiten digu:

- Espirituak munduan duen presentziaren zeinuak arakatu.
- Zailtasunak eta aukerak ezaguturik.
- Errealismoz eta itxaropenez.
- Otoitzean argia eta indarra bilatu.
- Iraganeko malenkoniarik gabe.
- Gure geldokeriez jabetuta.
- Ditugun alderdi baikorrak oinarri hartuta.
- Indibidualismoa gaindituz.
- Ezkortasuna saihestuz.
- Esperientzia txikien bidetik.
- Bilaketan elkarrekin arituz pastoral gogoetaren bidez.
- Aurreikusi daitezkeen egoera eta beharrei aurrea hartuz.
- Geroaren aurreikuspegi pastorala eginez.
- Gaur egin daitekeena biharko utzi gabe.
- Erreinuaren itxaropen aktiboan, mostaza-alea bezalako errealitate txikietatik eta azkenekoenganako hurbiltasun eta elkartasunetik.

⁶⁰ *Jn* 3,17.

⁶¹ *1 P* 2,24.

⁶² *St* 5,16.

⁶³ *Lk* 19,1-10.

IV.– BENETAKO BERRIKUNTZAREN GAKOAK

50. Gure elkarteek azaleko egokitze edo ukitu batzuk baino askoz gehiago behar dute. Jaunak berrikuntza sakonera dei egiten digu. «*Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da*».⁶⁴ Gaurdanik prestatu behar ditugu «*zeru-lur berriak; han dena Jainkoaren nahiaren arabera izango da*».⁶⁵

Tamaina honetako berrikuntzak eskatzen duena ez da murrizketa, kristautasunaren muina jasotzea baizik. Funtsezko gauzetan ahalegindu behar dugu, «*kristau-izatearen funtsa*» aurkitzen. Gure fedearen muinera, bihotzera jo behar dugu.

Muin honetan aurkituko ditugu gure eliz berrikuntza bideratuko duten *gakoak*. Gako horiek ez ditugu gaur bizi dugun egoeratik bakarrik ateratzen. Elizaren bizitzaren eta misioaren muinari berari dagozkio. Baina gaurko garai eta ingurumariaren eraginez, alderdi berezi batzuk markatu behar ditugu horietako bakoitzean.

1. Esperientziaz igurtzitako fedea

51. Aurrekoengandik jasotako fedea behar adina sekula eskertuko ez dugun altxorra da. Gaur are premiazkoagoa da fede hori barneratzea, nor bere egitea, bihotzetik pasatzea, esperientzia sinestedunaz bustitzea. Fededunok testigu izan behar dugu batez ere, ez errepikatzaile. Guk geuk ere gestore baino gehiago artzain izan behar dugu. Ez dugu antolakuntzarekin eta ahaleginarekin ordezkatu nahi, Espirituarekin bat eginiko bizitzatik eta Elizarekiko atxikimendu zintzotik bakarrik sor daitekeena.

1.1. Beharrezkoa

Behar hori kristautasunaren erraietatik sortzen da; izan ere, kristautasuna sinesteen multzoa, nolabaiteko jokaera morala edota elkartearen egindako gurtza baino lehen fede bizia da, hau da, esperientziaz ukituta dagoen fedea. Era berean, Elizaren bokazio ebanjelizatzailetik sortzen da kristautasuna. «*Jainkoaren krisiari Jainkoaganako grinarekin baino ez diogu erantzungo*» (J.B. Metz). Jainkoaren esperientzi hustasunaren gainean egitura hutsak baino ez dira eraikitzen. Jainkoaren esperientziarik gabe ez dago benetako kristaurik. Eta kristaurik gabe ez dago bidalirik.

Fede-esperientziaren beharra askoz nabarmenagoa da, fededunek fede hori eliz babes urriekin eta kontrako giro sozialean bizi duten garai honetan. Gizarteak talde bati buruz eratzen duen irudi ezkorrak euri azidoaren antzeko eragina duela ziurtatzen dute giza zientziek talde horren animoan. Esperientziak «berresten» ez baditu gure uste edo sinesteak, gero eta gutxiago estimatzen dira bai usteak berak, bai uste horiek dituen taldea. Alderantziz, esperientzia sendoa denean, gizakiak «*altxor preziatutzat estimatzen du, beretzat bizi-, zentzu- eta edertasun-iturri bihurtu den eta munduari eta gizateriari distira berria ematen dion zerbait hori*».⁶⁶

⁶⁴ 2 Ko 5,17.

⁶⁵ 2 P 3,13.

⁶⁶ C.G. JUNG, *Psicología y Religión*, Paidós (Bartzelona 1987), 167. or.

1.2. Zein esperientzia

52. 2002. urtean idatzi genuen Pastoral Idazkian fede-esperientziaren muina argitzen saiatu genuen. Gaur beste zerbait azpimarratu nahi dugu: fede-esperientzia sugestiorako joera duten pertsona ezegonkorren sentimendu periferiko bezala gutxiesten dutenen aurrean, argi utzi nahi dugu, fede-esperientzia ez dagokiela sentimenduei, bihotzari baizik. Horregatik hain zuzen ere, gure buruaren baiespina eskatzeaz gain, afektuak, balioak eta borondatea ere konprometitzen ditu.

Fededun askok «aparteko» iritzia izan ohi du fede-esperientziari buruz. Gizaki gehienengan fede-esperientzia ez da gertakari mistiko berezi-berezia izaten. Idazteunaren argira irakurritako gure bizitzako eguneroko gertakizunen sakonean Jainkoaren presentzia apala antzematen dakien fedearen munduarekiko berezko hurbiltasuna da.

Fede-esperientzia, beraz, Jainkoari buruzko esperientzia da. Bera gure giza esperientzien bihotzean azaltzen da, beti erdi itzalean: etxeko eta laneko bizitzan, gertakari adoregarri eta kezkarrietan, gaixotasun eta sendaketan, ikasketa eta gogoetan, solidaritate-zeinetan, gure fedearen ospakizunean. Ezinbestekoa da fedearen ikusmena eta entzumena bizkortzea, Jainkoaren presentzia antzemateko. Jainkoarenganako leialtasuna eta gure bihotza Harengana apaltasunez zabaltzea dira esperientzia honen euskarriak.

1.3. Hasi eta berriz hasi

53. Fede-esperientziaren urritasuna ez al da gure elkarten ahultasun ia endemikoa? Esperientzia hori berpizteko, guztiz premiazkoa da kristau-sarbidea sendotzea eta gaurkotzea, eliz jarduera hori da, izan ere, mendez mende fededunen belaunaldi desberdinak suspertu dituen. Horren beharra ez daukate bilaketan diharduten aldenduek bakarrik, edota noizean behingo praktikatzaileek bakarrik. Ohiko praktikatzaile askok ere egin beharko genuke federako eta kristau-bizitzarako sarbide-prozesua. Jakintzat ematen ditugun oso oinarritzko sineste eta jarrera batzuk ez daude dirudien bezain ondo finkatuta. Zimendu horiek sendotzen ez baditugu, fedearen gure eraikina zartatu egingo da.

Benetako sarbidea ez da burua doktrinaz betetze hutsa; hori baino zerbait askoz aberatsagoa da. Sarbide-prozesua fede-esperientziara esnatzea da, eta esperientzia horretatik edukiak aberastea, bizitza morala bideratzea, Jainkoaren Hitza eta liturgiaren sinbolo handiak nork bere egitea, elkarte-sena lantzea, gizartea zerbitzatzeko sentsibilitatea zabaltzea.

Ez dira, beharbada, gehiegi izango horrelako prozesua egiteko erabakia hartzen dutenak. Harrigarria eta mingarria deritzogu horri, ikusirik hainbeste eta hainbeste direla orduak ematen dituztenak gimnasioko saio luze eta neketsuetan, argaltzeko saioetan, era askotako ikastaro edo ekintzetan. Ez dezagun amore eman. Ahal duguna egitera iritsiko gara. Gehiago arduratu behar gaitu prozesuaren kalitateak, partehartzaileen kopuruak baino.

1.4. Otoitz egiten ikasi

54. Sarbide-aldian, otoitz egiten ikastea erabakigarria da fede-esperientziarako eta kristau-praktikarako. Otoitzak Jainkoa norbait «egiazkotzat» hartzera eramaten gaitu, eta ez errealitatearen eta ametsaren artean dagoen bitarteko izakitzat. Apar-

teko lekua da otoitza gure bizitzari buruz fedearen argira azterketa egiteko eta, askotan itzalpean bada ere, Jainkoak zer eskatzen digun antzemateko. Maiz otoitz egin gabe, kristaua indargabetu egiten da, eta apostoluak amore ematen du. Apai-zok askotan egin izan dugu otoitzerako deia, baina ez gara hainbeste ahalegindu otoitz egiten irakasten. Espiritu Santuak eskari hori pizten dihardu gaur gure Elize-tan. Entzun eta bultzatu egin nahi dugu.

2. Jarraipenaz landutako fedea

55. Gure garaiotan, «*kontraesana litzateke, etikaren gutxieneko maila bat eta azaleko erlijiotasun bat oinarri hartzen dituen hala-holako kristau-bizitza nahikotzat hartzea*». ⁶⁷ Zoritxarrez, Jesusek Berari jarraitzeko egin izan duen deia, pertsona kotsakratuentzat bakarrik zela ulertu izan da mendeetan zehar. Gaur egun uxatuta daude Jesusek dei hori bere jarraitzaile min eta egonkorrei bakarrik egin ziela zioten exegeten irudipenak. Teologiaren baieztapenak argiak dira: Jesusi jarraitzeko deia unibertuala da. Vatikanoko II. Kontzilioak, ⁶⁸ bete-betean berretsi zuen ikuspegi hau: «*Fededun guztiak, diren biziera nahiz egoeratakoak direla, kristau-bizitzaren goren mailara eta maitasunaren perfekziora deituak dira. Santutasun honek bizimodu gizatiarragoa eragiten du lurreko gizartean bertan ere. Kristoren urratsei jarraituz lortuko dute perfekzio hori, haren antzeko eginik eta gauza guztietan Aitaren nahiari men eginez*». ⁶⁹ «Jesus Jauna da» ⁷⁰ dioen fedea aitormena pazko-fedearen esakune laburra den bezala, «Jesusi jarraitzea» ere kristau-jokamoldearen esakune laburra da. Zera esan nahi du: Jesusen erabaki, balio, jarrera eta jokaerak nork bere egiten dituela, eta gure bizi-egoera jakinean gaurkutzen dituela.

Jesusi jarraitzea, Berak gu liluratzen uztea da. Berarengan mugagabeko konfiantza jartzea. Jaunaganako baldintzarik gabeko maitasunaz bilduta sentitzea. Bere balio-eskalarekin bat egitea da. Bere misioa nork bere konpromisotzat hartzea. Jarraitzaileen elkarteari atxikitzea. Horrela, geure afektibitate, balorazio eta erabakiguneak Jesusengan, Jesusen egitasmoan eta Jesusen elkartean txertatuak geratzen dira.

Jarraitzailea ez da Jesusek «harrapatua» sentitzen; alderantziz, askatasun-esperientzia adierazgaitza eta poztasun adieraztezina bizi ditu. Jesusek ez die bere jarraitzaileei arrakasta eta lorpen ikusgarriarik agintzen. Askatasuna eta poztasuna baino ez dizkie agintzen. Minik gabea ez den askatasuna, beharrezkoa denean, ondasunak, harremanak, egitasmoak, handinahikeriak, irrikak, asmoak, familia bera atzeratzen jakitea eskatzen duelako. Alde batera uzte horrek oinazea eragiten du, baina ez du poztasuna kentzen, besterekin konparatu ezin daitekeen poztasuna. Poztasun gutxi dagoela diote. Poztasuna ugaria da Jesusi jarraitzen diotenentzat. Urriak, jarraitzaileak dira.

56. Jarraipena ez da Jaunaren eskakizuna bakarrik. Ebanjelioa era sinesgarrian eskaintzeko baldintza ere bada. Kristau-elkarte batean kideen gehiengoak zintzotasunez Jesusi jarraituko balio, haren interpelaziorako indarra egundokoa litzateke.

⁶⁷ JOAN PAULO II.a, *Novo millennio ineunte*, 31. z.

⁶⁸ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Lumen gentium*, 8.

⁶⁹ *Ibid.*, 41. z.

⁷⁰ *Eg* 2,36.

Elkarte handiaren barruan elkarte txikiagoak baina guztiz ebanjelikoagoak eratu eta ugalduko balira, hark beste kolore bat izango luke eta sorpresa, miresmena eta erakarpena sortuko luke aldendutako askorengan. Benetan jarraitzaileak diren kristauen jendetza hedatuko balitz gizarteko bazter guztietan, zer pentsatu edukiko luke askok eta askok. Gure Elizak asko du jokoan jarraitzaileen kalitate eta kantitatean.

Ebanjelioetan eskatzen den Jesu Kristoren jarraipena oso erradikala da eta gure garairako utopiko eta irrealizat har daiteke. Zalantzarik gabe, Mendebaldeko bizi baldintzak ez dira giro egokia jarraipen hori gauzatzeko. Hori da soziologo askok «kristautasun light» edo arina deitu duten eta orokorra eta ohikoa bihurtu den kristau-bizitza: Jesu Kristorekiko atxikimenduaren eta honekin bat ez datozen beste leialtasun batzuen arteko hibridoa. Hibridoak antzuak direla irakasten digu biologiak. Elizak, gehiegi edota gutxiegi eskatzeagatik, interpelaziorako indarra galdu ote duen galdetu beharko genioke geure buruari. Beharbada zenbaitek gehiegi eskatzen dugu alderdi askotan, eta gutxiegi beste batzuetan.

Jarraipenak asko eskatzen du, baina ez du gure ahulezia ahazten; batak ez du bestea ukatzen. Jesusek dio: «*Gizakientzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake*». ⁷¹ Bere eskakizunak mailaka onartzea ere ametitzen du. Baina ez dator bat «beherapenekin», inkoherentzia kronikoarekin, anbiguotasunarekin, edota bizitza bikoitzarekin.

3. Elkartean bizitako fedea

3.1. Taldea ala elkartea?

57. «*Eliza batasunaren etxe eta eskola egin*», ⁷² hori da Aita Santuak milurteko berriaren hasieran jaurtitako erronka ederra. Erronka bidezkoa da. Ez gara hutsetik abiatzen, baina ibilbide luzea dugu aurrean.

Begirada soziologikotik, taldea eta elkartea ez dira gauza bera. Taldean (pentsa dezagun, e.b., merkatarien edo profesionalen bazkune batean) kideen arteko lokarriak interes berdinak izatetik sortzen dira. Beren arteko lokarri pertsonalak, ondorioz, ahulak eta iragankorrak izan ohi dira. Barne-harremanak, orokorrean, ez dira beroak, ezta doakoak ere. Kanpo-harremanak, korporatiboak izaten dira (taldearen interesak defendatzen dituzte), ez solidarioak (denen ongizateari begira). Elkarte bateko kideek, ostera (demagun, e.b., familia bat), gauza asko elkar lotzen dituen: odol-lokarriak, jatorri bera, historia bera, denek onartutako balioak. Horregatik elkarte sano bateko lokarriak indartsuak eta sendoak dira, eta elkarte horren barruan bizirik daude komunikazioa eta elkartasuna.

3.2. Elkartea beharrezkoa da fedea bizitzeko

58. Gure parrokiak eta antzeko beste elkarte batzuk talde hutsetik elkartera doan tartean kokatzen dira sarritan. Kasuen arabera, maila desberdinetan dituzte deskribatutako bi polo horietatik hurbilago jartzen dituzten ezaugarriak. Gure bokazioa elkartea egitea denez, elkarte-ezaugarriak lantzeko ahalegin guztiak bide onetik doaz. Gure eliz taldeei Jesusen egitasmo salbatzailean benetan *direna izatera dei egiten zaie*. Ezinbestekoa da, beraz, ahalegin honi erabaki sendoz eustea.

⁷¹ Mt 19,26.

⁷² JOAN PAULO II.a, *Novo millennio ineunte*, 43. z.

Ez da, hala ere, beharizan teologiko hutsa; soziologikoa ere bada: kristau-bizitza osotasunez bizi izateko eta gaur, aterperik gabeko garaiotan, fede katolikoari eusteko, gero eta beharrezkoagoa da elkartean sarturik egotea. Parrokiari buruz hitz egitean, Italiako Gotzainen Batzarrak zera zioen: harremanen sakabanatzea eta hoztea eragiten duen ingurumari sozialean, parrokien bokazioa dela «*harrera bazterketarik gabe egitea, hurkotasunezko harremanak bizitzea, ezaguera eta maitasunezko lokarri zehatzak izatea, Eukaristia ospatzea eta lekuko biztanleen ardura izatea, horiengana bidalia dela sentituz*».73

Eliz elkartetik babes gutxi edota inolako babesik jasotzen ez duen fededunak eliz bizitza motela biziko du gehienez, edota oso gutxi iraungo du fede-bizitzan. Beharrezko du famili giroa, giro beroa, gizarteko giro hotz, gogor eta lehiakor askoren aurrean benetako aukera izango dena. Fededunak sustatu egin behar du elkarteko kidesun-sena, hainbeste eragilek hoztasunera eta urruntzera bultzatzen dutenean. Askorengan erlijio-hoztasuna eragiten duena bere elkartearikiko lokarri estu eta aberatsik ez izatea da. Horientzat ez da nahikoa harrera zuzenak eta gizabidezkoak izatea. Eukaristian biltzen garenok ez gaude han herrikide huts izateagatik, anai-arreba *izateagatik* eta *izateko* baizik.

3.3. Itun Berriko elkarteen antzera

59. Kristau-elkarte orok ondo islatua du bere «kode genetiko» Itun Berrian, batez ere Apostoluen Eginen liburuan. Hauek dira lehenengo elkarteen ezaugarriak nabarmenenak. Espiritua haien erdian dagoenaren kontzientzia bizia dute.⁷⁴ Hitz entzuteko, Eukaristia ospatzeko eta elkarrekin otoitz egiteko biltzea ezinbesteko osagai da beren bizitzako egitarauan.⁷⁵ Senidetasun-sen bizia erakusten dute⁷⁶ eta, honen arabera, eskuzabaltasunez erdibanatzen dituzte beren ondasunak.⁷⁷ Elkar osatzen jarduten dute gogotsu.⁷⁸ Beren kideen artean ez dago oztopo sozial eta kulturalik.⁷⁹ Ez dago, ezta ere, menpekotasunezko⁸⁰ eta indarkeriazko⁸¹ harremanik. Desberdinak sentitzen dira gainerako gizartearen aurrean,⁸² nahiz eta bertako kide eta zerbitzari izan.⁸³ Dena dela, aurpegi ematen dute, Ebanjelioaganako leialtasunak eskatzen duenean.⁸⁴ Beren presentziak harridura, miresmena eta eraso ere eragiten ditu.⁸⁵ Ez dira bekaturik gabeko elkarreak: badituzte handinahikeria, pro-

⁷³ ITALIAKO GOTZAINEN BATZARRA, «Il volto missionario delle parrocchie in un mondo che cambia», *Informes de la Secretaría General de la Conferencia Episcopal Española*-n (2004ko ekaina), 137. or.

⁷⁴ *Eg* 2,16-21.

⁷⁵ *Eg* 2,46.

⁷⁶ *1 Jn* 2,7-11.

⁷⁷ *Eg* 4,34-35.

⁷⁸ *1 Ts* 5,14-15.

⁷⁹ *Ga* 3,26-29.

⁸⁰ *Mk* 10,42-45.

⁸¹ *Mt* 5,43-48.

⁸² *Jn* 17, 14-19.

⁸³ *Mt* 5,43-48.

⁸⁴ *Eg* 4,18-21.

⁸⁵ *Eg* 8,1-3.

tagonismoak, norgehiagokak, edota hutsegite sexualak.⁸⁶ Baina, baita beren nortasunari eustera, elkarte alternatibo bezala bizitzera eta beren testigantza gizarteari eskaintzera bultzatzen dituen indarra ere.

3.4. *Elkarteak eta elkartea*

60. Mendez mende, fededunok mila eratara gauzatu nahi izan dugu Itun Berriak aurkeztutako ideal komunitarioa. Gaur kristau-elkarteak mundu desberdin batean sustraitzea dagokigu, jatorriei leial eutsiz eta garai berrietara moldatzeko sormena garatuz. Elkarteen berriztapenak aldaketa ekarri behar du, eta baita bihozberitzea ere.

Elkarte guztietan garrantzi berezia izan behar du Jesusen presentziak: Hitzean, Eukaristian, pobreengan, elkartean bertan eta elkarte horretan Kristo Artzaina agertzera ematen duen apaizarengan. Otoitza, sakramentuen ospakizuna, ondasunen eta zerbitzuen erdibanatzea, adiskidetzea, denon artean burutu behar dugun misio ebanjelizatzailea eta gizartearen aldeko maitasun zerbitzari eta kritikoak ez dira, inola ere, hautagarriak.

Ezaugarri hauek guztiak errazago hezurmamitzen dira gizatiarra den elkarte batean, neurri handiko parrokia batean edota elizbarruti osoan baino. Zenbaki handiek kualitatiboki aldatzen dituzte taldeak. Baina Eliza ez da elkarte txikien uhartemultzo bat. Elkarte guztiak elkarrekin lotuak daude beren artean, Hirutasunetik bertatik datorren lokarri estimagaitzaz: elkartasunaz, alegia. Elkarte bakoitza Elizaren zelula da, baina ez da *Eliza* unibertsala, ezta elizbarrutiko *Eliza* ere. Hauek gabe, norberaren fedea edota talde txikiarena pobretuz eta desitxuratuz joango litzateke, eraikin baten hondakinen antzeko zerbait bihurtu arte. Elizaren fedea, neure fedearen muga eta hutsuneak ikusteko aukera ematen didan ispilua da. «Eliza handiagorik» gabe (elizbarruti edota Eliza unibertsalik gabe), elkartasun zabalaren oxigenoa faltako litzateke elkarte txikiei, elizbarrutiko eta munduko bazter guztietatik datozen kristau-bizitzako testigantzak, beste toki batzuetako gogoeta teologikoa eta esperientzia pastoralak, mundu guztian zehar hedatua dagoen eliz familiako kide izatearen sentimendua, eta beren artzainen gidaritzak. Zenbat eta gehiago isolatu elkarte txiki bat, orduan eta arinago hiltzen da. «Jesusena eta bere buruarena» bakarrik izango litzatekeen elkarteak, parrokiak, artziprestaldeak edota pastoral barrutiak, ez luke asko iraungo.

3.5. *Komunikazio handiagorantz eta hoberantz*

61. «Eliza handiagoa» oraintsuko bere historiako unerik larrietakoa igarotzen ari den honetan, beharrezkoa dugu gogoeta hauek egitea. Jendartean zabaldua dagoen iritziaren zati handi batek, batez ere eliz hierarkiaren aurka erakusten duen gordintasuna, eta kristau-elkartearen zati nabarmen baten eta hauen artzainen artean berez izan behar lukeen konfiantzaren krisia, kezkarriak dira, ez bakarrik eta batez ere pertsona eta talde askori sufriarazten diotelako eta nahigabetzen dutelako, Elizaren zeinuaren eraginkortasuna moteltzen dutelako baizik. Zeinua axolagabeentzat ilundu egiten bada, are zailagoa gertatzen da horiek federa itzularaztea. Fededun askorentzat ere zeinua lainotzen bada, fedea nahitaez pobretu egingo da, eta ahuldu elkartasuna.

⁸⁶ 1 Ko 1,10-13; 5,1-2.

Zeregin garrantzitsua bezain zaila eta labaina dugu begi-bistan, hau da: eliz barruko harremanen zauriak sendatu eta Elizaren aurpegia egiaren eta apaltasunaren argiaz argitu; ausardia profetikoa eta autokritika izan behar ditugu, hitz garbia eta elkarrizketa zintzoa, giza arazo guztienganako sentiberatasun fina eta horiek dituzten inplikazio moralen argitze objektiboa, Jainkoaren errukiaren seinale izate-tik eratorritako ulermen errukitsua eta fedean sendo sustraitutako doktrina-argitasuna, pazientzia handiko otzantasuna erasoaren aurrean, eta sendotasuna gizakiaren egiazko duintasunaren defentsarako, askatasuna bera baino lehenagokoa baita gizakiaren duintasuna.

Hemen ere badugu elkartean barruan gauzatu beharreko eginkizuna. Elizarenganako maitasunak ahalegin handia eskatzen du, ez Eukaristia ospatzen duen elkarte txikian edota parroki elkartean bakarrik, baita elizbarruti-mailan eta mundu-mailan ere. Ezinbestekoa den «Eliza handiagoarekiko» urruntasunak zail egiten du hura ondo ezagutzea eta harekin harreman estua eta beroa izatea. Urruntasun horren ondorioz erraz kutsatzen zaigu inguruko girotik datorkigun irudi eskasa. «Irudiak» ordezkatu egiten du «esperientzia». Zuzeneko elkarketak sustatu behar ditugu, fededunei hobeto helarazteko gure Elizen benetako taupada. Beharrezkoa da egitasmo eta errealtate ebanjeliko miresgarriari buruz informazioa eskaintzea ere komunikabide askok behin eta berriz landutako gizarte-irudiak sortzen dituen eragin etsigarriak neutralizatzeko. Kristauek eskubidea dute beren Elizaren berri zuzenean izateko. Denok ikusi izan dugu, batzar txikiek edota jendetsuek (santutegiren batera egindako erromesaldiak, bakea eskatzeko deialdiren batek) badutela gaitasuna askoren fedea sendotzeko.

4. Ebanjelizatzeraren behartutako fedea

4.1. Ebanjelizatze berria

62. «Ebanjelizatzea Jesu Kristoren Berri Ona askatasunez eskaintzea da, mezu hori oraindik jaso ez duen edo, behintzat, behar den bezala jaso ez duen giza esparru batean egindako eskaintza» (J.M. Rovira Belloso). Eskaintza hau baliozko gauza da gure kasuan ere, kontuan hartzen badugu, mendebaldeko Europako gaur egungo biztanleria osatzen duten belaunaldien zati handi batek ez duela mezu hori eskas eta zatika baino jaso. Adin jakin batzuetakoek ia ez dute jaso ere egiten. Estimaten dituzte historikoki kristautasunak eskaini izan dituen giza balio batzuk: askatasuna, pertsonaren duintasuna edota solidaritatea; baina ez diote inolako sinisgarritasunik ematen balio horiek sustatu zituen fedeari.

Gabezia larri hauez jabetuta, Joan Paulo II.ak «ebanjelizazio berrirako» egitasmoa proposatu zuen, horretarako hari nagusi batzuk eskainiz. Berak zioenez, «fedearen iragarpena egin behar zen fedea dagoeneko bizirik ez dagoen eta eraginikorra ez den kristau-tradizioko herrialdeetan».⁸⁷ «Paganismo berriari ebanjelizazio berriarekin erantzun behar zaio» (Lazioko Gotzainei egindako hitzaldia).

4.2. Bultzada ebanjelizatzailearen arrazoiak

63. Ebanjelioaren mezua benetan gizatiartzailea eta mesedegarria da denontzat. Baina ez da hau Ebanjelioa iragartzearen arrazoi erabakigarria. Ebanjelizazioaren lehenengo helburua ez da «Elizak galdutako lekua berreskuratzea», leialtasunez

⁸⁷ JOAN PAULO II.a, *Redemptoris missio*, 33. z.

beste honi erantzutea baizik: «*Jainkoak bere burua eman nahi du ezagutzera, Eliza osatzen dugunon bitartez*». ⁸⁸ Ebanjelizatzea, Jainkoaren nahi honi bai esatea eta horretan laguntzea da.

Jainkoaren nahia bat dator garai guztietako gizon eta emakumeen nahi eta beharrik sakonenekin; baita geure garaikoekin ere. Nahi horiek gaurko kulturaren azpian ezkutatuak aurkitzen dira; hain zuzen, kultura honek gizakia jarri du gauza guztien erdigune gisa bere arrazoi autonomoarekin eta bere askatasun burujabearekin, eta berari eskaintzen dizkio bere arreta eta estimua ia «gurtzeraino». Baina nahi horiek ezin dira guztiz ezkutatu. Mundu itxi horren zirrikietatik, galderak agertzen dira: egia ote da gure bizitzaren zentzua erabat geure esku dagoela? Eta, beste Norbaitenak bagina eta Bera balitz gure arrazoi, askatasun eta zorionaren sekretua eta iturria? Gure egitasmo, egintza eta ihesbideetara murrizten ote da dena?

Jainkoaren nahi salbatzaileak eta gizakiaren nahi ezkutatuak interpelatu egingen dute Eliza, esanez: «Izan zaitez zeu zarena: Jainkoak gizaki guztientzat duen maitasunaren eta arduraren zeinua. Zeinua zerbait adierazteko izaten da. Erakuts ezazu zeure bizimoduarekin, gizakia Jainkoari entzuteko etorri dela mundu honetara, eta Bera gurtuz, fededunen artean senidetasuna indartuz eta munduaren eta pobreen zoriarekin egiazko solidaritatean biziz Jainkoari erantzuteko. Zure iragarpen-hitza zure bizitzaren baieztapen eta osagarri izan dadila». Izan al daiteke kristau-elkarterik honelako eskakizunaren aurrean bihozberritu beharra sentitzen ez duenik?

4.3. *Gaurko solaskideak*

64. Jainkoaren maitasun salbatzailea denontzat zabaltzen bada, nor gara gu geure proposamen ebanjelizatzailetik inor baztertzeko? Ekoizpenak eta gozamenez asezinak itsututa «azaletik bizi diren» hainbat eta hainbat gazte eta heldu ere ezin dugu bazterrerara utzi. Ezta, arrazoi batzuk edota besteak direla medio, erabateko axolagabetasunean daudenak ere. Jainkoak ez du bere borondate salbatzailea murriztu; anai-arreba hauek, bestalde, ez dira hain desberdinak, Jainkoarenganako horien erabateko zabalkundea ezeztatuta geratzeko behin betiko. ⁸⁹

Baina, gure Elizen gaur egungo indarren arabera eskurago ditugun pertsona eta taldeei zuzendu behar diegu batez ere gure ahalegina. Hauek lirateke talde horiek:

- Erlijio-bilaketako prozesuan daudenak. Badira batzuk bilaketa horretan ari direnak zehazki. Baina askoz gehiago dira, gaur Elizara, Jainkoa aurkitzeko bidea asmatu nahian, argi bila hurbiltzen direnak. Beren seme-alaben sakramentuak ez ote lirateke aukera ona izango egoera honetan daudenentzat, beren kezka aintzakotzat hartu eta lehenengo erantzun bat emateko? Beste batzuegan erlijio-bilaketa hori inplizitua da: balio etikoak «jainko-aurpegiak gabeko absolututzat» hartzen dituztenak dira, eta balio horiei benetan eta zinez atxikitzen zaizkienak. Hauek ez daude dirudien bezain urruti.
- Kristau-praktikatzailak dira, lehen aipatu dugun bezala, berriro ebanjelizatatu beharra dutenen beste taldea.

⁸⁸ J. KEZEL, aipatutako artikulua, 284. or.

⁸⁹ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Gaudium et spes*, 19, 21, 24, 41. zz.

- Eliz mugimendu berrietako eta Ebanjelioaren arabera bihozberritutako bizitza zintzotasunez bizitzen ahalegintzen diren elkarte txikietako kristauna da beste taldea. Hauen artzainak gara. Lagundu egin beharko diegu beren fedea aberastu dezaten, beren elizbarrutiarekiko eta Eliza unibertsalarekiko atxikimendua heziz eta osoa den kristau-esperientzia eratzten duten balio funtsezkorik falta ez dakien saiatuz. Batzuek erabaki handiagoz heldu beharko diote konpromiso eraldatzaileari. Beste batzuek barnebizitza eta otoitza edota heziketa zaindu beharko dute gehiago. Denek dute beren Elizagandik jasotzekorik asko eta beren Elizari eskaintzekorik asko.
- Hor dago gure parroki elkarteetan, ikastetxeetako elkarteetan edo antzeko errealitateetan elkarlanean aritzen den talde bizi eta motibatua ere. Ardua biziz zaindu beharko dugu horien kristau-esperientzia osoa, baita suspertu ere horien eliz konpromisoa.
- Bada, azkenik, osasuna, eskola, kultura, aisia, edota konpromiso sindikala eta politikoa bezalako herri-zereginetan sartuak dauden kristau oso eta sendoen taldea. Beharrezkoa dute janari sendoa, eta nahi dute gainera janari hori, beren kristau-fedea eta -konpromisoa bizi ahal izateko; izan ere, leku bereziak, garrantzitsuak eta nahiko gogorrak diren esparruetan egin behar izaten dute beren kristau-testigantza.

4.4. *Nola ebanjelizatu*

65. Gaurko kulturak hain nabarmenki aldatu baditu gure herrikideen buru- eta bizi-sentsibilitatea eta fedearen aurrean dituzten jarrerak, fede hori aurkezteko erantzukizuna dugunok kontuan izan beharko ditugu gertatutako aldaketa horiek guztiak. Gaurko gure solaskideak, neurri handi batean, «gizon eta emakume desberdinak» dira. Sumatzen ditugu aldaketa horiek. Denbora behar dugu solaskide berri hauei aurkeztu beharreko proposamena gaurkotezko. Eroapena behar dugu iluntasuna jasateko eta, «gau-zaindariak goizargia bezala» egunsentia itxaroteko, baina ekinez eta bilaketan ahaleginduz itxaron behar dugu.

Vatikanoko II. Kontzilioak Misioei buruzko Dekretuan (*Ad gentes*) eskaini eta Aita Santuak *Redemptoris Missio* entziklikan berri zituena jarraibideak inoiz baino gaurkoagoak dira guretzat, hain zuzen ere lehen baino hurbilago gaude orain «misio-egoeratik»: presentzia, alegia, ingurumari guztietan, solaskideekiko elkarriketa, ekintza zuzen eta gizakor guztietan laguntzea, kristau-bizitzako testigantza, Jesu Kristoren ageriko iragarpena.

Hain zuzen ere, giza bihotzaren barrena, hainbeste aldaketaren erdian, funtsean ez delako aldatzen, eta Jainkoari buruzko galdera eta nahien iturri delako, sakoneko galdera horietara zuzendu beharko dugu geure arreta ebanjelizatzailea. Eta, bizitzako zereginak, ardurak eta dibertsioak direla eta, galdera horiek sortzen ez diren inguruetan, esnarazten saiatu beharko dugu, zuhurtziaz sortaraziz. Izan ohi dira pertsonaren bizitzan une egokiagoak, galdera-esnatze hori egin ahal izateko.

Joan Paulo II.ak hiru bereizgarri jarri zizkion ebanjelizazio berriari: «*sugar berria, metodo berriak, adierazpen berria*».⁹⁰ Komentatu eta luzatu egingo ditugu bereizgarri hauek. Sugarra, fedea berraurkitu eta gogo biziz eskaintzen duen elkarte bihozberritu batetik jaiotzen da. Metodoak ez die, batez ere, garaian garaiko baliabide teknikoak begiratzen, Berri Onaren proposamen apalari baizik; honen indarra, gainera, ez dago bere aldeko inguruabarretan, Jainkoaren maitasun salbatzailearen

⁹⁰ JOAN PAULO II.a, Latinoamerikako Gotzainen Kontseiluari hitzaldia (1983).

indarrean baizik. Adierazpen berriak gure hizkera eguneratzea baino zerbait gehiago eskatzen du: Berri Ona iragartzea da, hau da, gure Jainkoaren esperientzia eta, aldi berean, gaurko munduarekiko sintonia zintzoa, baina kritikoa, adierazten dituen hizkeran Berri Ona iragartzea.

4.5. Pobreak begien aurrean ditugula

66. Mundu modernoak ahaztu egin ditu pobreak. Elizak ezin du horrelakorik egin. Gure misio ebanjelizatzaileak gizartean eta kristau-elkarteetan ere «kontzientzia txar» mesedegarri bat esnatzera eta sustatzera bultzatzen gaitu.

«Justiziaren aldeko jarduera ezinbestekoa da Elizaren sinesgarritasuneko, baina ebanjelizatzearen alderdi bat ere bada», esan zuen 1974ko Sinodoak. «Sufritzen dutenekin, direnak direla ere, Elizak solidaritatez jokatzeko ez badu, ulergaitza bezain sinestezina gertatzen da Ebanjelioa» (E. Schillebeeckx). Zati asko kendu beharko genizkioke Ebanjelioari, edozein eratako pobreekiko erakusten duen sentiberatasunetik «garbitzeko».⁹¹

Horregatik, Elizaren ekintza sozial eta karitatezkoa, Elizaren egintzari dagozkion hiru kapitulu handietako bat da, Hitzaren zerbitzuarekin eta Eukaristiaren ospakizunarekin batera. *«Berri Onaren iragarpena da karitatearen lehenengo era. Baina... karitatearen testigantzarik gabe... ez litzateke ulertuko iragarpen hori, edota komunikazioaren gaurko gizarteak egunero jaurtitzen digun hitz-jarioan galduta geratuko litzateke».*⁹² Elizan berdintzat hartu behar ditugu pobreak benetan. Elkarre berri izaten saiatu behar dugu gero eta gehiago, gizarteko baztertu eta ahaztuei Jainkoaren seme-alaba eta Kristoren Gorputzeko atal bezala duten duintasuna aitortzeko. Gu horiei emanik bizitzearen mende dago, neurri handi batean, Elizaren berriztapena. Pobreak, izan ere, ez dira gure zerbitzuaren jasotzaile bakarrik. Jainkoaren salbamenaren bitartekari ere badira.

⁹¹ Mt 5,1; Mk 1,40-42; Lk 7,11-17; Jn 5,1-9.

⁹² ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA, *La caridad de Cristo nos apremia*, 1. z.

V.– GURE AUKERAK ZEHAZTEKO OHARRAK

67. Nola gorpuztu aurreko kapituluko aukerak, pastoral jarduerarako iradokizunak gaurkotuak izan daitezten (hau da, gure egoerara moldatuak), eta egintzara eramangarriak (gure indarren arabera), alegia?

Argibide batzuk baino ezin ditugu eman. Oraindik ez ditugu bideko gorabeherak bere osoan ezagutzen. Gauez eta ibilbide nahasian dabilzan gidarien antzekoak gara; batez ere argi motzak erabiltzera behartuak. Hala ere, ez diogu orainari bakarrik begiratu nahi. Elizaren etorkizunak ere arduratzen gaitu, eta bereziki gure elizbarrutien geroak. Gure nahia ez da Eliza boteretsua izatea. Baina Ebanjelioaren senari eta bizitasunari eutsiko dion Eliza nahi dugu, esanguratsua izan dadin gero gizaratean ere. Espiritu Santuak eman ohi dituen ezustekoak onartzera beti zabalik gaudelarik, urrats apal batzuk eman nahi ditugu gaurdanik, Berarekin elkarlanean jarduteko zeregin eder honetan.

1. Pastoral estilo eraberritua

68. Gaurko gure egoeratik geroa prestatzeko, berriztatu egin behar dugu geure pastoral estiloa: espiritualagoa, ebanjelizatzaileagoa, elkartekoagoa, ardurakideaagoa, pertsonalizuagoa bihurtu, eta arreta gehiago jarri gure elkarrekinako pastoral gunearen heziketan.

1.1. *Espiritualagoa*

Estilo *espiritualagoa* duen pastoralgintzak ondorengo osagai hauek ditu, besteak beste. Lehenengo eta behin, «Jainkoak bakarrik salbatzen dueneko» uste apala eta konfiantzaz betea. Gu zerbitzariak baino ez gara. «*Egin behar genuena besterik ez dugu egin*».⁹³ Jainkoa da bilaketa eragiten duena, Bera bihozberritzen duena, barrutik irakasten duena, konpromisora dei egiten duena. Hori benetan sinesten dugunaren seinale da, gure ahalegin eta zeregin apostolikoak Jainkoaren eskuetan utzi eta Berarengan atsedean hartzea. Horixe da apostoluaren espiritu-bidearen ezaugarri nagusia. Are gehiago pastoral fruituak hain begi-bistakoak ez direnean, gure garaiotan gertatzen den bezala, eta eraginkortasunik ezaren sententzia handiagoa denean. Apaiz, erlijioso-erlijiosa edo laiko izan, pastoral arduradunok hezita egon behar dugu, aberatsa, sustagarria eta eskakizun handikoa den espiritu-bide apostolikoan. Espiritu-bide horrek izan behar du, ministerioan laguntzaile berezi izango direnen heziketa-gaietako bat.

Hori benetan sinesteak otoitz apostolkoa eskatzen du, bakarka eta taldean egindako otoitza, ekintza garrantzitsua bezala. Paulok praktikoki erakutsi zigun bere Gutunetan.⁹⁴ «*Apostoluzari lotutako otoitza da, bere sorrera eta janaria apostoluzan aurkitzen dituenena... Prestatu egiten du ekintza apostolkoa, honen bidelagun gertatzen da, eta, ekintza hori posible ez denean, ordezkatu egiten du*» (S. Lyonnet).

⁹³ Ik. *Lk* 17,10.

⁹⁴ *Kol* 2,1-3; *2 Tm* 1,3-5.

1.2. Ebanjelizatzaileagoa

69. Estilo *ebanjelizatzaileagoa* duen pastorgintza eskatzen digu gaur bataiatu askoren fede-egoerak, Berri Ona ia jaso ere ez dutenen, edo behintzat funtsean era kaskarrean jaso dutenen taldekoak direlako. Ez da, beraz, zuzena ezta probetxugarria ere, bizitza arrunteko ekintza pastoralen eta berez ekintza ebanjelizatzaileak direnen arteko bereizketa egitea. Ekintzak berdinak (senar-emaztegaiekiko elkarriketatik hasi eta homiliaraino), ikuspegi ebanjelizatzaile batetik egin daitezke, edota daukagunari eustea helburu duen pastoral ikuspegitik. Ikuspuntua da erabakigarria. Lehenengo kasuan, solaskideek federa bihozberritzean sakondu egin behar dutela aitortzen digu praktikoki. Bigarrean, gauza egintzat ematen digu hori..., edo beharbada ezinezkotzat. Ikuskera izanik erabakigarria, esan beharra dago, bere pastoral egitasmoan fedetik aldenduen daudenei zuzendutako ekimenen batzuk sartzen ez dituen elkarteak sormen eta bizitasun falta erakutsiko lukeela. Fedearen zabalkunde-indarra elkartearen bizitasunaren seinalea da.

1.3. Elkartekoagoa

70. Estilo *elkartekoagoa* duen pastorgintzak zera eskatuko liguke, beste gauza askoren artean: gogoeta egitea gure elizbarrutietan diakonatu ezartzeari buruz, eta laikoen ministerio batzuk onartu eta sustatzea. Horrela egin zuen Elizak hasieran, Espirituak gidatuta. Aholku hori ematen du Aita Santuak *Novo millennio ineunte* entziklikako 46. zenbakian. *Christifideles Laici* entziklikak ere 23. zenbakian zioen: «*Artzainek onartu eta sustatu egin behar dituzte fededun laikoen ministerio, zeregin eta jarduerak, Bataioa eta Sendotza baitira horien sakramentu-oinarria eta, fededun askorentzat, baita Ezkontza ere*».

Bidezkoa da laikoen egiazko ministerioaren ezaugarriak hemen gogora ekartzeari. Elizaren bizitzako arlo garrantzitsuak betetzen dituzten zerbitzuak dira (katekesia dela, famili edo osasun-pastorgintza, karitatezko eta sozial ekintza, etab.). Ardura egonkorra eta norik bere egindako erantzukizun-maila adierazgarria eskatzen dituzte. Elizak onartu egin behar ditu. Guztiz zentzuzkoa da onarpen hori jendaurrean egitea elkartearen ospakizunean.

Elizbarrutiok zehazki erabaki beharko genuke, zein diren jendaurrean ministeriotzat onartu beharko liratekeen zerbitzuak. Era berean, pertsona egokiak izendatu beharko gintuzke ministerio horiek gauzatzeko, eta heziketa egokia eskaini horiei.

Ministerioak onartzeak eta, horrela, publiko egiteak aberastu egiten du Eliza osoa, eta eliz zeregin desberdin horietan argiago erakusten du Elizak bere sakramentuzko izaera. Lagundu egiten du beharrezkoak diren eliz zerbitzu askoren kalitatea eta egonkortasuna ziurtatzen. Horrela aldatu egiten da, gainera, Elizaren irudi okerra, batzuk «igorleak» balira bezala (apaizak, alegia) eta besteak «jasotzaileak» (laikoak). «*Kristoren gorputza den Elizan, bakoitzak eginkizun desberdinak burutzen ditugu. Batek Jainkoaren jakinduriaren eta hitzaren doktrina ikasten jartzen du bere arretoa osoa, Jainkoaren legearen gogoetan iraunez gau eta egun: gorputzaren begia da hori. Beste bat anai-arreben eta behartsuen aldeko zerbitzuaz arduratzen da: gorputz santu horren eskua da beste hau. Beste bat Jainkoaren Hitzaren entzule lehiatsua da: gorputzaren belarria da. Beste batek aspergabe bisitatzen ditu ohean daudenak, nahigabetuen bila irteten da eta behar-egoeran dagoena estualditik ateratzen saiatzen da: zalantzarik gabe, Elizaren gorputzaren oina deitu diezaiokegu honi*» (Origenes).

1.4. Ardurakideagoa

71. Vatikanoko II. Kontzilioak (*Ad gentes*) eta Elizaren geroko gogoetak (*Christi-fideles laici*) helduak diren laikoak Elizan «laiko heldu» izan daitezela eskatzen dute. Sentsibiltate sozialak, era berean, asko baloratzen du kideek beren elkarteko bizitzan benetan parte hartzea.

Funtsezko argibide honek pastoral ondorio garrantzitsuak dakartza. Laguntzaileak ardurakide bihurtu daitezela eskatzen digu. Laguntzaile hutsa denak egitasmoak gauzatzean bakarrik parte hartzen du. Ardurakide denak, ordea, sorkuntzan ere parte hartzen du, eta erabakia umatzen eta egitasmoa gauzatzean esku hartzen du. Horrexegatik hain zuzen ere, solidario sentitzen da gauzatutako egitasmoaren emaitzez arduratzean, eta ez dio uko egiten bere erantzukizun pertsonalari beste koordinatzaileen gainera botaz. Espiritu honek sustatuta, *Novo millennio ineunte* entziklikak 40. zenbakian, honetara dei egiten digu: «*“Aitu” gutxi batzuen gain utzi ezin den eta Jainkoaren Herriko kide guztien erantzukizuna eskatzen duen misiolari ekintzan parte hartzera*».

Egintzara eramaten den ardurakidetasun hori onuragarri gertatzen da horretan parte hartu dutenentzat beren kristau- eta eliz nortasunari dagokionez. Ardurakidetasun horrek beren ebanjelizatzaile-izaera sakonago bizitzera eramaten ditu. Sakonago jabetzen dira Elizaren misio ebanjelizatzaile bakarreko lankide izateaz beste laiko, erlijioso-erlijiosa eta apaizekin batera.

Ez genuke zuzen ulertuko ardurakidetasuna, eliz elkartearen barneko osasuna indartzeko beharrezko den jarduerara bakarrik murriztuko bagenu. Beren fedearen eraginez, familian, lanbidean, edota kultur, sindikatu- nahiz politika-arloan, herri-elkartearen eraikuntzan eta berrikuntzan sartuak dauden kristauak ere ardurakide sentitu behar dute; eta ez mundu hau gizakorragoa egiteko ekintzetan elkarrekin jarduten dutenekin bakarrik ardurakide, baizik eta baita Jainkoaren Erreinua sustatze-lanean elkarrekin ari diren beren kristau-elkartarekin ere. Beren Elizatik ez dute bidezko beren autonomia eragotziko duen agindurik jaso behar; bai, ordea, beren kristau-konpromisoa argitu eta suspertzen duten irizpide eta zerbitzuak. Gizarteari eta eliz elkarteari berari begiratzeko darabilten ikuskera eskaini behar diote Elizari. Eliz elkarreak beharrezko ditu pertsona horien ohar eta iradokizunak, hobeto kokaturik egoteko eta bere misioa hobeto betetzeko.

1.5. Pertsonalizatuagoa

72. Gaur egungo gizon-emakumeen psikologiak eta ebanjelizazioaren inguruabar bereziek gure pastoralgintzari aparteko seilu bat ematera behartzen gaituzte: pertsona bakoitzari arreta zuzena eskaintzera, alegia. «Artisau-pastoraltza» egitea dagokigu. Inoiz baino gutxiago pentsa daiteke gaur egun kristauak «seriean» egin daitezkeenik. Jakina, beharrezkoak dira talde osoari eskaintzen zaizkion zerbitzu pastoralak; baina asko eta askorentzat behintzat ez dira nahiko. Bakarkako arreta eskatzen dute bilaketan dabiltzanek, senar-emaztegaien bikoteek, senar-emazteek, edota konpromisoren bat hartzera erakarri nahi dugun edozein fededunak. Ez dira hauek uzta oparoen sasoiak. Gaur «banan-banan egiten dugu batuketa».

Garaian garaiko estilora oraintsu arte egin izan den bezala, fededunen bidelagun pertsonala izateko ministerioak aparteko garrantzia du gaur berriro ere, eta erabakigarria izan daiteke hainbat jendek fedearen argia aurki dezan. Pertsonen patxadaz entzutea, haiei harrera egiteko denbora hartzea, bizitzako une berezietan

(seme-alabaren jaiotzan, poz edo oinaze bereziko uneetan, bizitzako hautaketa garrantzitsua egin behar denean, gaixotasuna edo heriotza denean) jendearekin bat egitea, gizon-emakume askoren amets eta beharriaz erantzutea da; izan ere, itxura batean dena eskura duen gizarte honek ez du betarik horiei entzuteko. Baina hori egitea, batez ere, Jainkoaren maitasunarekin bat egitea da, banan-banan arduratzen baita Jainkoa bere seme-alabez,⁹⁵ bakoitzari bere izenez deituz, Artzain Onaren espirituaz bere ardi guztiak eta bakoitza ezagutzen dituela eta maitasun guztiz bereziz maite dituela.⁹⁶

Duela gutxi arte ia apaizen esku bakarrik zegoen ministerio hau ez dagokie, inolaz ere, soil-soilik apaizei. Ezinbestekoa da ministerio hori laikoengan ere aurkitzea. Badira gaitasun bereziak dituzten gizon eta emakumeak, begi ona dutelako, erraz lortzen dutelako bihotz-sintonia, eta sentiberatasun espiritual eta zentzu ona dutelako. Beharrezkoa da, gainera, bidelagun hauek prestatzea, ministerio hori bete dezaten. Beharrezkoa da, baita ere, horien pastoral zerbitzua, apurka-apurka, laguntza psikologiko hutsean gera ez dadin kontu izatea.

1.6. Ebanjelizatzaileak zaindu

73. Arduradunok egundoko hutsegitea izan dezakegu pastoralgintzan zuzenean esku hartzen duen laguntzaile-taldearekin: aski sendoak eta arduratsuak direla pentsatzea, alegia, eta ez dutela gugandik arreta pertsonal berezirik behar. Gure elkarteetako talde ebanjelizatzailearen kalitate espiritual eta apostolikoa erabakigarria da. Kalitate hori izango badugu, era askotako zerbitzuak eskaini beharko dizkiogu: heziketa, espiritu-bizitza, elkarrekin-erabakia, eta beren pastoral arlorako beharrezkoa duten trebetasuna. Bakoitzari bide-laguntasuna eskaintzea eskatzen du gainera. Eta beren egoera pertsonalaz interesatzea, beren lana estimatzen dugula erakustea, eta gure konfiantza adieraztea harreman zuzena eta hurbilekoa izanez.

Laguntzaile leial ugari «erre» egin da laguntzaile *hutsak* direla eta beren proposamen edo ekimenak agintekeriaz eta inolako errespeturik gabe baztertuak izan direla ikustean. Beste batzuk «deshidratatu» egin dira, espiritu-bizitzaren, heziketaren edota jarraipen pertsonalaren urik eskaini ez diegulako. Badira batzuk animoa galdu dutenak ere, gudan berenganako benetako interes pertsonalik ez ikustean honako ondoriora iritsi direlako: Elizak ere bere onura edo probetxuaren araberak bakarrik baloratzen dituela pertsonak.

Balio handiko meatzea dira pertsona eta talde hauek. Eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari, kontu handiz zainduz meatze hori.

2. Eliz eginkizun handiak berriztatu

74. Jainkoaren Hitzaren zerbitzua, ospakizuna eta karitate-ekintza dira eliz eginkizunaren atal nagusiak. Elkarteak berriztatzeko ezinbestekoa da, egintzara eraman behar dituen eginkizun nagusi hauetako bakoitza berriztatea.

Irizpide argi bat izan behar dugu geure ahalegin berriztatzailerik honetan: benetan nagusiak eta guztionak diren eginkizunak, behar bezala gaurkotuta, azpimarra-

⁹⁵ *Jkd* 11,23-24.

⁹⁶ *Jn* 10, 14-15.

tzea, geure denbora fede-, ospakizun- eta karitate-arlokoak ez diren beste lanetan galdu gabe, nahiz eta lan horiek ere bidezkoak izan.

2.1. Jainkoaren Hitzaren zerbitzua

Espiritu Santuak piztutako Jainkoaren Hitzarenganako erakarpenak, jende askori dei egiten ari da Bibliaren irakurketa fede-ikuspegitik egitera, eta horrelako talde ugari ari da sortzen gure Elizetan. Bistakoa da talde hauek jasotzen duten fruitu espiritualak. Jainkoaren Hitza aurkitzea «*haren garaikide egitea da, bera gure garaikide egin dadin*» (J. Ratzinger kard.). Aurkikuntza honek eragiten duen poza eta sendotasuna nabarmena eta itxaropentsua da. Biziki nahiko genuke talde hauen ugalketa, gure elkartean larruazal lehortu antzekoan azal fresko berria sor dezaten.

Jainkoaren Hitzaren zerbitzua predikuan ere gaurkotu beharrekoa da. Entzule askok gogoz ez baizik eta gogo txarretik entzuten du Hitza. Arretaz entzungo badute, bat egin behar du prediku horrek beren eguneroko arazoekin, eta baita beren helburu eta gabezia sakonenekin ere, hala nola, zentzua aurkitzearekin eta bakardadearekin. «*Zergatiren bat eta zertarakoren bat dugunean, hobeto jasaten dugu nola hori*» (V. Frankl).

Oso zaila da horrela predikatzen asmatzea. Vatikanoko II. Kontzilioak hori aitortzen du,⁹⁷ «*munduaren oraingo egoeran, askotan, guztiz zaila gertatu ohi dela*» dioenean. Predikariok kontu handiz prestatu beharko genuke geure burua eta ikuspegi desberdin bat hartu: gizakiaren «sakonera doana», alegia, entzuleek fedearen sendotasuna lortua dutela uste izan gabe.⁹⁸

Jainkoaren Hitzaz elikatzen diren kristauak presente daude gizarteko inguru guztietan, odol-zain kapilarren antzera. Horien fedearen «odol-presioa» altua bada, sortuko zaizkie aukerak fede hori aldentutako pertsonen aurkezteko eta garbi-garbi, kontu handiz eta errespetuz fede hori eskaintzeko.

Kontakizun-estiloak dirudi egokiena komunikazio honetarako. «*Fedea barruratzeari, neurri handi batean, lagunarteko identifikatze-prozesuen arabera da; kristautasuna beren eguneroko bizitzara zintzotasunez eramaten saiatzen diren pertsona konkretuekiko harremanen bidez egiten diren prozesuak dira, eta horri buruz besteekin hitz egiteko eta horiei beren testigantza emateko prest dauden harreman pertsonalen bidez egiten diren prozesuak*» (Mette). Fedearen lekuko handiek utzi dizkigute historian zehar gure kristau-esperientzia aberasten jarraitzen duten testu hilezkorak. Gure garaikideek esperientziari aitortzen dioten garrantzia leku egokia da transmisio-molde honetarako. Baina esker onez eta apaltasunez bakarrik transmititu daiteke fede-esperientzia. Kontaketa honen jasotzaile nagusia Jainkoa bera da. Jainkoari zuzenduta daude San Agustinen «Aitorpenak», eta bere ibilbide espiritualak eta fede-esperientzia dira liburu horretan kontatzen duena. Kontakizun honek, gainera, benetakoa eta zintzoa izan behar du: jaso duguna bakarrik esan behar dugu. Kontakizuna besteri on egiteko asmoz eta bukaeran irakaspena erantsiz egiten denean, hondatu egiten da eta nolabaiteko faltsutasun-eta proselitismo-sentsazioa uzten dio solaskide zuhurrari.

⁹⁷ VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Presbyterorum Ordinis*, 4. z.

⁹⁸ Ik. J. OÑATE, *De la experiencia a la fe*, Idatz (Donostia 2003), 221-255. orr.

Paganismotik hurbil dagoen famili eta eskola-giroa bizi duten gure haur gehienek katekisten eskutik jasotzen dute lehenengo ebanjelizazioa. Katekisten buru-
eskaintza proban jartzen duen lan izugarria da hori, eta hainbat zailtasun artean
egiten dena. Ondo zuzendu eta bideratutako famili katekesia motibazio gehigarria
izan daiteke haurrentzat, eta interpelazio apal eta emankorra gurasoen fede lokartu
eta utziarentzat.

2.2. Ospakizuna

75. Jainkoaren Hitzaren zerbitzuak eta karitate-ekintzak bat egiten dute liturgi ospakizunean, batez ere Eukaristian. Hitza iragartzen da eta konpromisoa sustatzen Eukaristian. Kontzilioak esaldi trinko eta egokiaz esana du: «*Liturgia jotzen du Elizaren jardunak bere gailurra, eta era berean, liturgia da Elizaren indar guztiaren iturria*».99 Igandeko eukaristi ospakizuna elkarraldi apartekoa da, izan ere bertan hurbiltzen da kristau-elkartea iturri honetara eta gailur honetara.

Igandearen esanahia bera aldatzen ari dela ikusten dugu gaur: aisialdirako denbora bihurtu da, eta beste garai batzuetan Eukaristiari eskaintzen zitzaion aldi horretan biltzen dira herri-mailan eratzen diren ekitaldi, ibilaldi eta ospakizunak. Zailtasunak zailtasun, kristauok ezin diogu igandea ospatzeari uko egin. Guretzat igandea ezin da egun profano bihurtu. Pertsekuzioen erdian ere, Eukaristiarik gabe ezin zirela bizi eta beren pertsegitzailerei «*ezin dugu bizirik iraun iganderik gabe*» erantzuten zieten kristau haien ondorengoak gara. Antzeko kontakizunak iritsi zaizkigu kontzentrazio-esparruetatik; leku haietan isilka egindako Eukaristian parte hartuz sustatzen omen zuten kristauak beren fedea eta iraunkortasuna. «*Parrokiak antolatzen dituen ekintza guztien artean, ez da besterik Jaunaren egunaren eta Eukaristiaren igandeko ospakizuna bezain ezinbestekoa eta hezitzailea denik elkartearentzat*».100

«*Jaunaren eguna, Elizaren eguna eta gizakiaren eguna*» da igandea kristau-entzat. Jaunaren eguna da, Pazkoa gaurkotzen duelako. Elizaren eguna da, bere elkarre-kontzientzia iragartzeko, sendotzeko eta adierazteko biltzen delako publikoki egun horretan Eliza. Gizakiaren eguna da, lanaren uztarritik askatzen gaituen eta poza eta itxaropena berpizten dituen jaieguna delako.

Igandeko eukaristi ospakizunak gure Jaun berpiztuarenganako fede-aitorpen pozgarria izan behar du, Hitzaren entzute bizia, Kredoaren aitorten arduratsua, Jainkoari zuzendutako otoitz zintzoa, jaunartzean Kristorekin bat egitea, Aitarentzako eskaintza, senide-batzarra eta misiorako bultzada.101

Presta dezagun ardura osoz igandeko Eukaristia. Eragingarria da horretarako, Aita Santuak aldarrikatutako «Eukaristiaren Urtearen» ospakizuna ere. Zaindu ditzagun ospakizun-lekua eta estetika. Orekaz ospa ditzagun Hitza eta Sakramentua, abestia eta isiltasuna. Nabarmendu ditzagun sinboloak. Begi-bistan izan dezagun homilian eta ospakizun osoan, gogorik eza astindu beharrean dauden fededun arretagabeak. Zaindu dezagun igandea, eta berak geu zainduko gaitu.

99 VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium*, 10. z.

100 JOAN PAULO II.a, *Dies Domini*, 35. z. Ik. ere IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Igandearen kristau ospakizuna* (Pastoral Idazkia, Garizuma-Bazko Biztuera, 1993).

101 Ik. IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Ebanjelizatzea fedetik ezak jotako egunotan* (Pastoral Idazkia, Garizuma-Bazko Biztuera, 1994).

2.3. Karitate eta sozial ekintza

76. Lotura etenezina dago ospakizunaren eta zerbitzuaren artean; hain zuzen, Jesu Kristogan gugana etorri den Jainko Salbatzailea bera pobreekin eta txikiekin berdindu da.¹⁰² Otoitza eta karitatea, Ebanjelioaren gogoeta eta gizakiaren aldeko ekintzetan parte hartzea, sakramentu-jarduera eta pobreen aldeko zerbitzua ez banatzea da elkarteen erronka.

Gure garaiko gizarteak baliabide asko du Jainkoaren Hitza «neutralizatzeko» eta enbarazu egiten dionean «muturrekoa» jartzeko. Min gehiago ematen dio kristauen testigantza apal, iraunkor eta konprometituak, bereziki baztertuen alde gauzatutako karitate-testigantzak. «*Maitasuna bakarrik da sinesgarria*» (H.U. Von Balthasar). Azkenekoekin gauzatzea, mundu honetan «Jainkoa» esateko bidea da.

Elizaren karitate-ekintzaren lehenengo eragilea teologikoa izanik (Jainkoa pobreenekin berdindu dela, alegia, Jesusengan), gure Caritasetako taldeek eta erlijioso-erlijiosek zuzendutako sozial kutsuko beste hainbat ekintzak beren arduradun eta laguntzaile guztien kristau-nortasun eta -motibazioa zaindu egin behar dute. Ekintza hauek ez dute izan behar, lehenengo eta behin, beren fedean ahul sentitzen direlako, besteen alde zerbait egin nahi dutenentzako esparrua. Karitate-ekintzan jarduteak Hitzaren zerbitzua egiteak edota Ospakizunaren duintasuna sustatzeak adinako eliz maila du. Ondorioz, lehenengo arrazoiak teologala izan behar du. Eta kristau-heziketak, asko zaindua.

3. Pastoral egitura batzuk eraberritu

77. Garizumako aldi honetan bihozberritzera egiten zaigun premiazko deia ez dagokie gure bizitza espiritualari eta gure pastoral jarrerei bakarrik. Gure eliz erakundeen egitura eta funtzionamendua ere bete-betean harrapatzen ditu. Hauetan islatuko dira eta ekile bihurtuko hartutako aukera espiritual eta pastoralak. Pastoral egitasmoak hobetzera eta pertsona eta talde sinestedunen jarrera espiritual eta apostolikoak fintzera mugatutako berrikuntza benetako urratsa litzateke, baina ez nahikoa. Berrikuntzak egituretan ere gauzatu behar du. Egitasmo eta jarrerak antolakuntza-molde berriak eskatzen dituzte. Molde berri horiek sortuko ez bagenu, oinazea eta paralisia eragingo genuke.

Behar diren aldaketak, zalantzarik gabe, guk gaur geure gain har ditzakegunak baino zabalagoak eta sakonagoak dira. Errealismoz, gaur-gaurkoz posible ditugunei eta gure elizbarruti guztietan, puntu batzuetan era berdintsuan eta beste batzuetan era desberdinean, egiten ari garenei begiratuko diegu.

3.1. Parrokia ireki

78. Bere jurisdikzioko bataiatu guztiei dei egin eta biltzeko ardura duen, eta Elizak leku horretan bizi diren herritar guztiengana bidalia den elizbarrutiko zelula da parrokia. Pastoral egitura guztiz egokia eta nabarmena da parrokia gaur oraindik ere. Bertan jasotzen dute eskuarki eliztarrek, gutxienez, federako lehenengo sarbidea. Eliztar horientzat ospatzen da, gutxienez igandero, Eukaristia. Bere giza baliabideen eta baliabide materialen zatirik handiena eliztarren beharrei erantzuteko erabiltzen da. Parrokia arduratzen da, era berean, familien giza eta kristau-bizitza.

¹⁰² Mt 25,31-46.

Gizarteko zati batean txertatua egonik parrokia, elizbarrutia eta Eliza zati horretako fededunen eta fedegabeengandik hurbil egotearen irudi berezia gertatzen da. «*Bere seme eta alaben etxeetan bizi den Eliza bera*»¹⁰³ da. Hurbiltasun honek harrera abegitsua egiteko egokiera ematen dio eta kideen arteko adiskidetasun eta hurbiltasunezko harremanak eragiteko gauza egiten, inor baztertu gabe, lotura estuagoa dutenen artean. Antenak altxatuak ditu bere inguruan gertatzen dena jasotzeko, jendearen behar eta oinazeak antzemateko eta hurbil dituen herriko talde eta ekimenekin elkarrizketa eta lankidetzaz eratzeko. Lehen lur-sail hori kanpandorrearen itzalpean bizi bazen, gaur parrokiak gizon-emakumeak bizi direneko «lurralde» desberdinetan kokatzeko premia sentitzen du. Parrokiarik eta antzeko eliz zentrorik ez balego, elizbarrutia, bere erlijio-bizitza, askoz ere pobregoa izango litzateke.

Baina parrokia, gaur, beharrezkoa izanik ere, ez da nahikoa. Bukatu dira parrokia bere indar hutsez osatzen zeneko garaiak. Parrokiak, ezta handienak ere, ez dira gauza berak bakarrik praktikatzaileen fedea eta elizartasuna sustatzeko beharrezko diren zerbitzu eta eragingarri guztiak eskaintzeko, ezta horien herri-konpromisoa sustatzeko eta misiolari-ekimenak sortzeko ere. Gaurko bizimoduaren ezaugarri den mugikortasuna dela medio, parroki mugak desagertu egiten dira. Gertakari honek are beharrezkoagoa egiten du parrokien jarduera bateratua. Parrokiaren bakarkako jarduera parrokien arteko elkartasunaren eta ardurakidetzaren kontra dagoen jokabidea da, eta kalte egiten dio bere pastoral eraginkortasunari.

Auzoarekin ondo konpontzea eta noizean behinka elkarri laguntzatxoren bat ematea baino zerbaite gehiago da, ebanjelizatzeak eskatzen duen parrokia eta antzeko eliz zentroen arteko jokabide bateratu benetakoa. Jokabide horrek ez ditu parrokiak eta parrokia ez diren zentroak zapaldu nahi, indartu eta lankide bateratu egin baizik. Elkar osatuz, askoz hobeto erantzuten diete beren izaerari eta misioari, beren indar hutsez bakarka lan eginez baino. Beti geratuko da jatorrizko parrokiaren ardurapean oinarritzko eginkizun-sortaren bat: haurren katekesia, Eukaristiaren ospakizuna, gainerako sakramentuen eta hiletan ospakizuna, gaixo eta zaharrekiko harremana, tenplua eta pastoral lokalak zaintzeko ardura, familiekiko harremana, berariazko jaiera edo debozioak.

3.2. Pastoral Barrutiak edo parrokiak gaindikoak

79. Hain zuzen ere, parrokiaren bakarkako ezintasun honi erantzuteko, ebanjelizatzearen kalitatea hobetzeko eta gure pastoral baliabide murriztuak ahalik eta ondoen erabiltzeko, gure elizbarrutiek parrokiak gaindiko Pastoral Barrutiak sortzeari ekin diote, hainbat parrokia, pastoralerako eliz zentro, ikastetxe, erlijioso-erlijiosen ekintza eta bazkun apostoliko, batasun handiago batean bil ditzaten. Puntu ilun ugari daukagu oraindik Pastoral Barruti hauek etorkizunean zehazki izan behar duten erakuntzari buruz. Gogoeta teorikoak eta esperientzia praktikoak batera aurrera egin ahala, galderak argitzen joango gara eta beharbada geure jarduerak aldatzen.

Pastoral Barrutia ez da apaiz baten edo biren pastoral ardurapean jartzen den parrokia-sorta pilatze hutsa, gaur egungo apaiz-urritasunak hala eskatzen duelako. Elkar osatzeko eta bakarka egiterik ez dutena batera egiteko elkartzaren diren parrokia eta beste eliz zentro batzuen multzo elkartua da. Eta estilo berri batez egiteko lan hori: estilo espiritualaz, alegia, komunitarioaz, ebanjelizatzaileaz, ardurakideaz,

¹⁰³ JOAN PAULO II.a, *Christifideles laici*, 26. z.

pertsonalizatuaz, eta ebanjelizatzaileen prestaketaz arduratzen den estiloaz. Lurralde mugatua du, apaiz koordinatzaile bat, pastoral talde bat eta egitasmo bat.

Pastoral Barrutiak ez dira artziprestaldean lekuan jartzen; hauek eliz araudiak jartzen dizkien eginkizunak betetzen jarraitzen dute (ik. 533. kan. eta hur.). Eginkizun horiek gaur ez dituzte betetzen parrokien ezintasunak, eta ez dute Pastoral Barrutia bezalako erakunde ez hain zabalak eta hurbilagoak haietatik atera dezakeen pastoral eraginkortasuna hobetzen.

Pastoral Barrutiek moldaketa malgua eskatzen die, bai parrokietako eta beste eliz zentroetako pastoral arduradunei, bai eliztarrei. Hauei neketsu egiten zaie «beren parokiako» kide bakarrik izatearen sentimendu indartsuari uko egitea, bateratze horrek eragindako aldaketek batzuetan eskatzen duten mugikortasuna onartzea eta pastoral ministerioen jasotzaile huts izatetik lankide ekintzaile izatera igaro beharra. Apaiz batzuek ez dute konfiantzarik egitura berri hauen geroan. Beste batzuei kosta egiten zaie «beren» parokiaren ardura beste batzuekin batera eramatea, talde-diziplinan sartzea. Ulertzekoak dira eta gainditu daitezkeenak halako kontrako jarrera hauek.

3.3. Talde pastoral edo ministeriala

80. Talde pastoralak oinarritzko balioa du Pastoral Barrutiaren egituran eta jardueran. Apaiza buru duen fededunen talde bati ematen dio Gotzainak, Pastoral Barruti osoak bere bizitza eta misiorako behar dituen zerbitzuak eskaintzeko agindua. Taldea, beren baldintza eta karismen arabera, elkartea eraikitzeko eta misioa bultzatzeko ministerio desberdinak beren gain hartzen dituzten apaizez, laikoez eta erlijioso-erlijiosez osatua dago. Ordenaren sakramentuaren bidez Kristo Artzaina ordezkatzeko eta, beraz, Hitzaren, Gurtzaren eta Karitatearen zerbitzuen koordinatzaile izateko gaitua den apaiza da talde horretan buru.

Taldeko kideak ez dira, lehenengo eta behin, lan-taldea bakarrik, nolabait benetako elkarrekin txikia baizik. Lan-talde hutsa ez denez, taldearen helburuetako bat guztien hazkunde orokorra da (giza mailako hazkundera, espirituala eta ministeriala). Elkarrekin eginkizuna bakarrik egiten duena, azkenean «erre» egingo da edo, gutxienez, adoregabatu.

Elkarrekin den taldea izanik, Jaunaren inguruan biltzen da aldizka, otoitz egiteko. Bere lanaren eta lankideen lanaren egitaraua eta ebaluaketarako bilerak egiten ditu. Elkarrekin bizitzen dituzte beren lan bateratuko jaiak eta saminak, lorpenak eta porrotak. Taldekideetako bakoitza ardurakide da talde osoari dagokion guztian, nahiz eta bere erantzukizuna arlo jakin batean izan.

Taldekideen arteko harremanak eragile guztiz garrantzitsuak dira. Hemen egoten da sarridan pastoral taldeen bizitasuna eta batasuna, edota beren arteko liskarren iturria. Guztiz garrantzitsuak dira komunikazio-askatasuna eta ezinbestekoak diren gazteei aurre egiteko eta horiek konpontzeko era.

Apaiz koordinatzailearen misioa oso erabakigarria da. Berari dagokio bereziki elkartasunaren ardatz izatea eta taldean denak onartuak, estimatuak eta baloratuak senti daitezen arduratzea. Taldekideetako bakoitzari emandako arduraren jarraipen zehatza egin gabe, haiengan konfiantza izaten jakin behar du, «dena kontrolpean» izatea nahi lukeen neurrigabeko erantzukizunaren jarrera hartu gabe. Taldekideek beren gain hartutako eginkizunek ere ez dute apaiz hori koordinazio-lanetara mu-

gatuko eta eliztarrekiko eta beren arazoekiko harreman zuzenetik aldenduko. Aholku pertsonaletan eta ministerio desberdinetarako bokazio berriez arduratzean (apaizetarako eta biziera sagaraturako bokazioez ahaztu gabe) emango du bere denboraren zati handi bat eta bere artzain bihotzaren arreta.

3.4. Laikoen bazkunak eta mugimenduak bultzatu

81. Eliza eta munduaren arteko harremanak batez ere laikoen bitartez gauzatu behar dira. Munduarekiko elkarrizketarako jarrera baikorrak lagundu egiten du, Eliza gure arretagune nagusi egiteko tentazioa saihesten; izan ere, gure garaiko gizon eta emakume guztiei Berri Ona iragartzeaz arduratzeko ordez, arreta nagusia geure talde eta elkarteetan jartzeko arriskuan eroriko ginateke. Jaunak mundura bidaltzen duen Elizak onartu eta nabarmendu egin behar du laikoen garrantzia. Laikoak ebanjelizazio misiolariarako ekintzaile nagusitzat hartzeak «inguru-giroetako pastorgintzari» zor zaion arreta eskaintzea eskatzen du. Pastoral arlo honek adierazten du ondoen kristau laikoen presentzia eraldatzaileerako bokazioa gizartean.¹⁰⁴

Gaur, gure parrokia eta Pastoral Barrutietako asko ez da gauza kristauak bere lanbideko edo herriko ingurumarian apostolikoki jarduteko behar duen heziketa osorik eskaintzeko, eta ez da gai ere gizarteko egintza eraldatzailean sustraitutako fede-konpromisoa bizi dutenen bidelagun izateko behar den bezala. Beharrezko dira era egonkorrean eta ondo antolatuta jardungo duten elkarte eta mugimenduak, gizon eta emakume laikoei beren kristau-bokazioaren arloan –familian, lanbidean edota gizartegintzan– hazten laguntzeko.

1996ko Garizumako Pastoral Idazkian adierazten genuen: bazkunik gabe ezingo ditugu inoiz gure Elizetan izan ondo hezitako eta apostolikoki ekintzaile diren laikoak: «*Talde horietan aurkitu behar dituzte kristauak harrera- eta askatasun-guneak beren fedearen janaritzeko, Jesusen jarraipenean sakontasuna eta koherentzia irabazteko, Ebanjelioaren argitan beren praxia aztertzeke, elkarte-espirituan hazteko eta ebanjelizazio-eginkizunarekiko zerbitzua berritzeke... baita laikoen jarduera eta partehartzea gizarteko bizitzan arreta bereziz bultzatzeko ere, gizarte zuzenago eta solidaritza gehiagokoa eraikitzeke, Jainkoaren erreinuari dagokion bezala*».¹⁰⁵ Apostolutza elkartu eta antolatuaren era desberdinak elkarteko fede-esperientziaren eta bere alderdi ebanjelizatzailearen lehen mailako adierazpen eta testigantza dira. Era desberdinetako laiko apostolutzarako ekimenen ugaltzea Espirituak lekuan lekuko Elizei egiten dien oparia da, ebanjelizazioa hobeto garatu dezaten.

Ez da nahikoa laikoen bazkun eta mugimenduak gizartean bizitasunez sarturik egotea; eliz lokarrien kalitatea ere zaindu behar dute. Senide arteko harremanak eta elkartearen arteko elkarlana, beti erraz gauzatzen ez den funtsezko eskakizuna da. Adeitasunez eta konfiantzaz sustraiturik egon behar dute ezarrita dauden elizbarrutian. Beren egitarauak lekuko Elizaren pastoral Egitasmora moldatzea eta elizbarrutiko Batzarretan aktiboki parte hartzea elizartasunaren bi seinale oso baliotsu dira.

¹⁰⁴ Ik. PAULO VI.a, *Evangelii nuntiandi*, 18. z.

¹⁰⁵ IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Laikoa: kristau nortasuna eta eliz eginkizuna* (Pastoral Idazkia, Garizuma-Bazko Biztuera, 1996).

3.5. Biziera erlijiosoaren karismak sustatu eta berriro txertatu

82. Bizi ditugun kultur eta sozial aldaketa sakonek biziera erlijiosoa ere interpelatu dute. Kongregazio asko «*beren elkartearen fundazio-esperientziarako itzuleraprozesua egiten ari da, beren nortasuna berriro aztertu eta hasierako helburu nagusia eta beren karismaren lehenengo intuizioa berreskuratzeko. Honela, elkarteak indar berriak aurki ditzake eta gaurko arazoei eta horien zergatiari erantzun eraberrituak eskaini sustrai-sustraitik*» (Arbukle).

Elizan eta munduan duten misioak hala eskatuta, eta eliz ahultasunaren eta erlijioso-bizitzarako bokazio berrien eskasiaren eraginez egiten ari diren eraberrikuntza-prozesu horiek aberastu egiten dute gure Elizen elkarte-bizitza eta gaurkotu gure ahalmen ebanjelizatzailea. Gaur alderdi batzuk nabarmenduko ditugu bereziki.¹⁰⁶

Elkarte erlijiosoetako senide-bizitza eraberritua elkarte-esperientziaren eta ebanjelizatzailearen altxor baliotsua da Elizaren bizitzan. Elkarte ugaritan egiten diharduten bezala, elkarte-bizitza eraberritzeko lan egitea garrantzi handiko erreferentzia izan daiteke, Espiritua Jainkoren Herrian sustatzen ari den elkartemugimendurako. Aldi berean, Erreinuko errealitate interpelatzailea da indibidualismorako joera duen gizarte honetan, baita fedegabeentzat ere.

Erlijioso-erlijiosen pobretasun ebanjelikoak, bene-benetan biziz gero, denoi laguntzen digu geure bizitzan neurritsu, apal, senidekor eta zerbitzari izaten, eta justizia sozialaren eta solidaritatearen aurrean bereziki sentibera den bizitzak duen balioa eta poza nabaritzen. Batez ere pobreei, gaixoei edo zaharrei laguntzen dieten kongregazioek gizartean baloratuak ez direnen aldeko doako eta eraman handiko maitasunaren testigantza ematen dute. Horiek «lehenengotzat» hartzen laguntzen diote kristau-elkarteari. Fundazioko karismari leial izanez, gure egunotako pobreen interpelazioa entzutean, Eliza pobreagoa eta pobreengandik hurbilagoa izatera bultzatzen dute. Baztertuenen zerbitzuan eta defentsan benetan konprometitutako bizitza hori bereziki esanguratsua da gizarte osoarentzat.

Bereziki otoitzean jarduten duten biziera erlijiosoko elkarteek indar baliotsua eskaintzen diote Elizari bere jarduera apostolikorako, eta etengabeko deia dira, gure egitasmoetan fruituak berehala ikusi nahia gainditu dezagun, Jainkoaren asmoak hausnartuz eta bere dohainen doako esperientziara zabalik egonez. Erlijioso-erlijiosen otoitz-elkarte hauek zera dakarkie gogora gure Elizei, «*otoitza dela apostolutza ororen arima*». Aurreko Pastoral Idazki batean azpimarratutakoa gogoratzan dugu: «*Elkarte kontenplariok a zer nolako laguntza eman diezaiokezuen gaur ebanjelizatzeari, bi alderdi hauek elkarrekin uztartzen ikasten baduzue: otoitz egiten eta Jainkoa goستن eskainitako bizitza-aitorpena, batetik, eta egiazko Jainkoa "itsumustuan" bilatu nahirik zuengana hurbiltzen direnei harrera xume eta bihozkorra egitea, bestetik!*».¹⁰⁷

Irakaskuntzan jarduten duten institutu erlijiosoak guraso, hezitzaile eta ikasleekin batera ardurakidetasun eta elkarren arteko benetako harreman senidekorrez jantzitako hezkuntza-elkartea eratzen ahalegintzen dira. Elkarte hori oinarri ga-

¹⁰⁶ IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Eliza elkarte ebanjelizatzailea* (Pastoral Idazkia, Garizuma, 1983), 62-67. zz.

¹⁰⁷ IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINAK, *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan* (Pastoral Idazkia, Garizuma-Bazko Biztuera, 1994), 82. z.

rrantzitsua da eliz eta herri-konpromisorako kulturaren munduan. Kristau-eskolaren nortasunari eusteko oso baliagarriak dira, kongregazio desberdinen arteko, eta hauen eta lekuko Elizen arteko elkarlana, baita laikoak gerorako hezkuntza-egitasmoetan elkartzea ere, kristau-eskola ebanjelizaziorako esparrutzat hartuz eta elkarrizketa eratuz fedearen eta kultura eta gure garaiko sentsibilitatearen artean.

Ondo dakigu, era askotako aniztasuna erakusten duen karisma erlijiosoa Espiritu Santuaren opari ederra dela Elizarentzat. Opari hori bere horretan errespetatu nahi dugu, ez dena izatera bortxatu gabe. Era berean, indar berri baten beharra duen gure Elizen enborrean txertatu nahi dugu.

BUKAERA

83. Hausterre egun honetan hasten dugu Garizumako bihozberritze-ibilbidea. Pastoral Idazkiak berak ere bihozberritzearen urratsak jarraitu ditu. Lehenengo atalean nola gauden galdetu diogu geure buruari. Alderdi argitsuak ikusi ditugu, baina baita ilunak ere. Bigarren atalean, zergatik gauden honela, galdera egin dugu; eta zera ikusi dugu: gu moldeatzen gaituen gaurko kultura honek ahuldu egin dituela eliztarrak. Gure zaurietako batzuk zehaztu ditugu. Hirugarrenean, ondorengo galdera egin dugu: zer diosku Jainkoak egoera honetan? Eta bihozberritzera egiten zaigun deia entzun dugu: geure buruak, geure elkarteak, geure erakundeak berritzera, eta guk munduaren aurrean, Elizaren aurrean, Jainkoaren aurrean ditugun jarrerak ere berritzera egiten zaigun deia. Laugarren atalean, beste galdera bat aurkeztu dugu: zer egin bidegurutze honetan? Geure erabaki zehatzak bideratzeko aukera batzuk eskaini ditugu. Bosgarrenean, hori guztia nola egin aztertu dugu, eta ohar praktikoko batzuk eman ditugu.

Orain zeuoi eta geuri dagokigu, paperean esana dagoen bihozberritze hau bizitzara eramatea. Eliza osoa datorkigu laguntzera. Berak Garizuman oparotasunez eskaintzen digun Hitzak argitu eta Jainkoaren aurrean samurtu egingo gaitu. Penitentzi ibilbideko sei asteetan egunero Eukaristia ospatzeak indarberritu egingo du bihozberritze-bidean urrats sendo bat emateko gure erabakia. Apaltasunez eta konfiantzaz, eta aldatzeko asmoz, hurbilduko gara Adiskidetzaren sakramentura, eta bere graziak umatu egingo du Jainkoaganako, Ebanjelioaganako, elkarteaganako, gizarteaganako eta pobreenganako gure itzulera.

Ez ditzagun ahaztu, azkenik, Elizak graziatzeko aldi honetarako ematen dizkigun hiru aholku bereziak. Otoitz egin nahi dugu, otoitzik gabe bihozberritzea arinkeria hutsa delako. Bizitza neurritsuagoa eraman nahi dugu, neurritasunez bizitz errazago sortzen delako gudan Jainkoaren nahia. Erruki izango dugu geure gizarteko eta munduko beste toki batzuetako pobre eta ahulentzat, gizakien premiekiko sentibera izateak gizakor egiten gaituelako eta, batez ere, Jainkoaren Errukia esku beteka jaso duenak eskuzabaltasunez banatzen ez badu, lotsarik ez duelako.

Maria, Jaunaren Ama eta Birjina Sortzez Garbia, bidelagun izan zen lehenengo kristau-elkartearentzat. Argitu egin zuen eta kemena eman zion bere testigantzarekin eta bere hitzarekin. Geuk ere lagun izan dezagula Garizumako bihozberritze- eta berriztatze-ibilbidean. Horrela, ondo prestaturik iritsiko gara Pazkoa ospatzera, «Kristorekin hil eta berpizteko».

Iruñe eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteiz
2005eko otsailaren 9a
Hausterre Eguna

- † **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- † **Rikardo**, Bilbaoko Gotzaina
- † **Joan Maria**, Donostiako Gotzaina
- † **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- † **Karmelo**, Bilbaoko Gotzain Laguntzailea